goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-09-02
EGUBAKOITZA
475. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET

TOKIKOM

Hildakoa atzo auto istripuan

Autobusak eta autoak jo zuten elkar | 4

Gatz biltegi ondoan gertatu zen. | A.M.

Aramaioko parrokoak egin zuen Aita Santuaren bisitarako ereserkia | 9

Danbakako irabazleak, Xarmak, badihardu diskoa grabatzen | 33

Donostiako Orfeoia eta Bilboko Udal Banda Oñatin hilaren 9an | 31

Ramadan bukaerako otoitzaldia egin zuten hainbat lagunek joan den martitzenean.

Gipuzkoako pakistandarren meskita, gurean

Urtebete daroa zabalik Bergarako meskitak, eta pakistandarren kultura eta integrazio zentroa ere bada | 2

LEIRE KORTABARRIA

SINADURAK

IÑAKI PEÑA | 6

6 | XABIER URTZELAI

MAIALEN MADARIAGA | 16

23 | ANJEL BERGARETXE

XABIER ZUBIZARRETA | 40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 36
EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38

Juan Lizarralde omenduko dute Legazpiko Artzain Egunean

Oñatiko artzainak 85 urte ditu | 5

Euskal Pedalkadak martxa bihar igaroko da bailaratik

Espainiako Itzuliaren "inposizioaren" aurka dei egin dute | 4

"Ezinezkoa zait Araban diputatu eta Arrasaten zinegotzi izatea"

Itziar Lamarain | Arabako Kultura, Euskara eta Kiroletako foru-diputatua | 8

Kongorako dirua batzeko Elkartasun Jaia egingo dute gaur Antzuolan

Pintxo-menua egongo da, sei eurotan | 25

"Meskita zabalik dago denondako, musulmana izan edo ez"

- Bergarako meskitak urtebete daroa zabalik
- Gipuzkoako pakistandarren meskita bakarra da
- Euren hizkuntza eta kultura zentroa ere bada

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Gipuzkoan meskita bakarra dute pakistandarrek, eta berau Bergaran dago, Zubiaurre kalean. Eta joan den martitzenean, jai giroa eta poza izan ziren nagusi kale horretan, Debagoieneko eta bailaratik kanpoko 250 gizonezko musulman inguru batu baitziren hantxe. Hura ez zen egun arrunta eurendako: izan ere, Islam erlijioa dutenendako jai egun handia zen, Ramadam hilabetea bukatzekok festa eguna. Horixe ospatzera batu ziren Bergarako meskitan. Pakistandarrak ziren gehienak, baina beste jatorri batzuetako musulman batzuk ere joan ziren.

Zubiaurreko meskita oso gutxitan egoten da horren jendez gainezka. Baina urte osoan, egunero -egunero, ditu ateak zabalik; eta ez bakarrik pakistandarrendako, edo edozein jatorriko musulmanendako, baizik eta eurak ezagutu nahi duen edozeinendako. Hori da euren asmoa, meskita ireki zutenetik, orain urtebete inguru: "Ateak denondako daude zabalik. Inork ezagutu nahi bagaitu, gure erlijioa, gure kultura... hementxe gaude bera hartzeko gertu", esaten du komunitateko presidenteordе Mohamed Afzal Txohan-ek. Bera Oñatin bizi da oso gaztetatik; gurean bizi diren pakistandarren artean, bera da denbora gehien daramana, eta zubi-bide lanak egiten ditu, batzuei integratzen laguntzen eta besteei euren kultura, erlijioa eta ohiturak pixkana-pixkana ezagutarazten.

Hain zuzen ere, bi helburu horiek betetzen ditu Debagoieneko pakistandarren meskitak: erlijio beharrak asetzeaz gain, eurak elkarrekin egoteko lekua ere bada, kultura eta gizarte zentroa, alegia.

Haurrei hizkuntza erakusteko

Meskita barruan hainbat espazio egokitu dituzte, Txohan-ek azaltzen digun moduan: espazio nagusia otoitz egiteko eta, otoitzaldirik ez dagoenean, leku libre gisa erabiltzeko daukate; eta, horrez gain, gela txikiago bat dute, bere sarrera propioarekin, eta hor emakumeak eta umeak batzen dira: emakumeek gaztelania ikasten dute, besteak beste; umeek, aldiz, erlijioa, gaztelania (behar dutenek) eta urdua, pakistandarren hizkuntza. Izan ere, pakistandar etorkinen seme-alaba asko hemen jaioak dira: "Seme-alabok euskaraz oso ondo egiten dute; horregatik, urdua gal ez dezaten nahi dugu", esaten du Txohan-ek.

Azkenik, meskitan ortozik ibili behar denez, oinak garbitzeko harraska bat daukate.

Egoitza zabalik dago edozeinendako, eta "edozein egunetan, 30-40 lagun batzen dira, eta jende gehien batzen da egubakoitzetan, gure asteko jaiegunean", esaten du elkarteko presidenteordeak.

Hiletak egiteko leku aproposa

Urteko ohiko erritoak betetzeko lekuaz gain, orain musulman hileta erritoak egiteko leku egokia dute bailaran. Txohan-ek gogoratzen du zelan 2006an, gazte pakistandar bat hil zenean, Bergarako Ipintza futbol zelaian egin behar izan zuten hileta, meskitarik ez zutelako. Debagoieneko lehenengo hileta musulmana izan zen

DATUAK

250
MUSULMAN

Ramadama bukatzeko festan, 250 gizon batu ziren Bergaran; bi txanda egon ziren otoitz egiteko.

1
MESKITA

Gipuzkoako pakistandarren meskita bakarra da Bergarakoa. Urduz egiten dituzte hainbat errito.

Pakistango produktuak dendan.

ESANAK

"Bergararrek oso ondo hartu gaituzte, oso jende ona topatu dugu"
MOHAMED AFZAL TXOHAN
PAKISTANDARRA

"Oso ondo joan da Ramadama; orain hurrengo, Arkumearen Festa daukagu"
ABDUL NAVEED
PAKISTANDARRA

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

Eid el Fitr ospakizunean otoitz egiten iman-arekin.

Meskitako komunitateko ordezkariak.

Zapatak janzten errezatu ondoren.

Gizon zein emakumeendako

Ramadama musulman heldu guztiek egin behar dute, eta oso salbuespen gutxi daude: adibidez, hilerokoa duten edo erditu berri duten emakumeak, edo oso gaixo dauden pertsonak. Umeak ere salbuetsita daude, baina nerabe direnean hasten dira apurka-apurka Ramadamarekin betetzen.

Ramadam bukaera ospakizuna (Eid el Fitr) ere musulman guztiendako da, eta, otoitzaldiaz gain, bazkariak eta denetariko ospakizunak egiten dituzte familian edo lagunartean. Arropa berria ere erosten dute. Martitzeneko ospakizunean, meskitara gizonak bakarrik deituta zeuden arren, emakumeek beste ospakizunetan parte hartzen dute. Emakumeak ezin dira goizeko otoitzaldira joan.

hura. Dagoeneko nabarmena zen meskita baten premia. Gaur egun meskita den lokalaren parean lokutorioa eta jatekoen denda dute, eta hango gela bat egokitu zuten otoitz egiteko; baina txikiegia zen, batez ere Ramadam sasoiko eta bukaerako ospakizun handietarako. Orduan hasi ziren meskita egiteko leku bila. Azkenean, parean dagoen beheko solairuko egoitza bat errentan hartu zuten eta hantxe dago meskita.

Denon laguntzaren beharra

Bergarako meskita garrantzitsua da Gipuzkoan, pakistandar komunitateak bereziki eurendako daukan bakarra delako –martitzeneko otoitzaldian, adibidez, Koraneko irakurraldiak arabieraz egin zituzten, baina imanaren beste azalpen batzuk urduz egin zituzten; eta, Debagoienekoez gain, Mutrikuko, Ondarroako eta beste herri batzuetako pakistandarrak etorri ziren–; hala ere, oraindik ez dago bukatuta. Hala, joaten den edozeinek ikusiko du oraindik obrak aurrera doazela. Txohan-ek esan digu hemendik urtebetera dena bukatuta egotea espero dutela.

Baina pixkanaka doa aurrera: ez dute dirulaguntzarik jasotzen, eta finantzaketa bakarra norberak borondatez ematen duenetik dator. Itsulapikoa daukate meskita sarreran, gura duenak lagun dezan.

Eskuz, norbere lanarekin ere laguntzen dute batzuek. Igeltserotza eta elektrizitate lanak egin behar dira oraindik, esaterako. Txohan-ek esaten duenez, "proiektu guztia eginda dago eta baimen guztiak dauzkagu. Baina lana borondatez egiten du jendeak, eta ez dago diru askorik; horregatik, denbora behar du. Norberak ahal duena ipintzen du, batzuek gehiago eta beste batzuek gutxiago", esaten digu.

Meskitara eta eurak ezagutzera joateko gonbidatzeaz gain, Debagoieneko pakistandarrek "eskerrak" ematen dizkiete bergararrei, Udalari eta, bereziki, Zubiaurreko bizilagunei: "Bergararrek oso ondo hartu gaituzte, eta meskita ere bai. Oso jende ona da", esaten du Txohan-ek.

Hurrengo jairako prestatzen

Ramadama egitea Debagoienean eta Pakistanen ez da gauza bera, eta leku batean eta bestean erraztasunak eta zailtasunak daudela dioskute: "Pakistanen bero handiagoa egiten du, baina, era berean, han goizez egiten da lan, eta arratsaldez ez. Hemen, aldiz, gehienok arratsaldez ere lan egiten dugu, eta alde horretatik gogorragoa da. Baina horrek dakarren ahalegina ere Ramadamak eskatzen duenaren barruan doa", esaten du Txohan-ek.

Hurrengo ospakizun handia Arkumearen Jaia da, Ramadama bukatu eta hilabete eta 10 egunera. Abraham-ek Jainkoari semea sakrifikatu beharrean arkumea sakrifikatu izana gogoratzen dute. Familia bakoitzak arkume bat erosten du eta Mekara begira sakrifikatzen du abere-hiltzaileak, horretarako bedeinkatutako aiztoarekin. Gero, arkumea familian jaten dute, hainbat modutara prestatuta.

Cricketean egiteko zelai bila

Pakistango kirol jarraituena cricketa da, eta horri eusten diote Debagoieneko pakistandarrek; baina jokatzeko zelai egokia behar dutela diote. Orain, Arrasateko gazteek Iturripen jokatzen dute, eta Bergarakoek, Labegaraietan; hortxe batzen dira, esaterako, argazkiko bergararrak: "Sei lagunek jokatzen dugu. Batzuetan, gu baino nagusiagoen aurka ere jokatzen dugu". Euren esanetan, "zaila da" kirol hori, izan ere, pilota "indar handiz" jaurtitzen dute batzuek.

Zaib (12), Hammad (10) eta Kamran (12) cricket-ean ibiltzen dira. | LK.

SVMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak
Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

Bergaran agerraldia egin zuen eguaztenean askotariko eragilez osatutako taldeak. | MIRIAN BITERI

Euskal Pedalkadetarako deia, Espainiako Itzuliagatik

Itzulia Euskal Herritik pasatzeak ez diela kirol irizpideei erantzuten diote

MIRIAN BITERI | BERGARA

Espainiako Itzulia Euskal Herritik igaro behar dela-eta, hainbat ekimen iragarri dituzte hurrengo egunotarako gurean; tartean, Euskal Herri mailan biharko antolatutako Euskal Pedalkadak bizikletan martxan parte hartzeko gonbita egin dute. Horren harira, agerraldia egin zuen, eguazten arratsaldean, eragile sozial eta politikari, txirrindulari eta kirol taldez osatutako bergarar talde batek.

Bergarako kultura etxean egindako prentsaurrekoan, herritarren izenean, Unai Arantzabalek hartu zuen lehenik hitza. Haren esanetan, itzulia Euskal Herritik pasatzea ez da kasualitatea eta ez die kirol irizpideei erantzuten. Helburua honakoa dela esan du: "Hego Euskal Herria Espainiaren zati dela aldarrikatzea; Euskal Herritarrek bat egiten dutela irudikatzen saiatzea; PSE-PPrekin gauzak aldatu direla frogatzea". Era berean, Espainiako eta Frantziako estatuei "gure etorkizuna" erabaki ahal izateko eskubidea ukatzea leporatu zien.

Horren aurrean, salaketa kaleratu eta bergararrak itzuliaren aurrean euskal nazioa izatea aldarrikatu eta defendatzera deitu zituen. Horretarako hainbat ekimen egingo dituztela jakinarazi zuen. Tartean, Gasteiztik irten eta Bilbon amaituko den Euskal Pedalkadak martxa. Jesus Arantzabal txirrindulari historikoak eroango du lekukoa Bergaran.

Udaletxeko balkoian leloa

Arantzabalen ostean, Bergarako alkate Jesus Elortzak hartu zuen hitza, Bildu eta Aralarren adierazpenaren berri emateko. *Txirrindularitzari bai, inposaketari ez, Euskal Herria! nazioa* lelopean aurkeztutako adierazpenarekin bat egiten dutela jakinarazi zuen. Horren harira, gaineratu zuen itzulia Euskal Herrian dagoen bitartean udaletxeko balkoian esandako leloa "modu ikusgarrian" zintzilikatuko dutela. Era berean, antolatzen diren ekimenenetan parte hartzeko gonbita egin zien herritarrei.

Tartean, bailaratik igaroko den zikloturistei zuzendutako Euskal Pedalkada martxan izateko dei egin zuten biek. Arrasaten, Muxibarko biribilgunean egin dute hitzordua, 11:45ean; Bergaran, 12:15ean, Labegaraietako saihesbideko biribilgunean. Antzuolara, ostera, 12:30ean iritsiko da Etxezurira eta Deskarga aldera egingo du. Bizikleta eraman behar dela gogorarazi zuten. Horrez gainera, Bergaran 14:45ean deitu zituzten ostera herritar guztiak, Infernukua kanpoan.

Bestalde, irailaren 10era begira beste bi ekimen antolatu dituzte Bergaran. Egun horretan bi elkarretaratze egingo dituzte, bata Burdiñaten eta bestea Gorlan. Horretaz gainera, ikurrinak balkoira atera ditzatela eskatu zieten bergararrei eguaztenean agerraldia egin zutenek.

BAILARAKO IBILBIDEA

TOKIA	ORDUA
Arrasate	
Muxibarko biribilgunea	11:45
Bergara	
Labegaraietako saihesbideko biribilgunea	12:15
Infernukua	14:45
Antzuola	
Etxezuri	12:30

Irailean hego haizea eta euri gutxi izango ei dugu

Pello Zabalaren arabera, San Migelen bueltan izango den ilargi berriarekin aldaketa etorriko da

A. ARANBURUZABALA / M.BITERI | OÑATI

Abuztuari agur esanda, irailean hego haizea sartuko dela eta horrek zaparradak eta tenperaturan gorabeherak ekarriko dituela uste du Pello Zabala eguraldi adituak. Honakoa esan du: "Egunen batean edo beste euria botako duen arren, ez dut uste hilabete euritsua izango denik; kontuz, baina, San Migel jaien bueltan izango den ilargi berriarekin; elurra ez da-eta urruti ibiliko". Bada, udazkeneko tenporak heldu bitartean, besterik ez du aurreratu nahi izan.

Mendebala udan

Udari dagokionez, espero moduan mendebala jaun eta jabe izanda, kostaldeko eta barrualdeko eguraldiek zerikusirik ez dutela izan dio. Arantzazun jasotako datuak oinarri hartuta, uztailean hainbat komunikabidek azkeneko 72 urteetakoekin alderatuz euritsuena zela bazioten ere, Zabalaren iritzia bestelakoa da: "Hondarribia edo Bidasoa aldean kokatuz gero, horrela izan zen, bai, baina Bilbon, Gasteizen edo Nafarroan jasotako datuek, berriz, kontrakoa diote".

Orain artean udak eman duenaren irakurketa orokorra eginda, datu zehatzagoak eskatuta, betiere Arantzazun batutakoen arabera, Zabalak dio, abuztuaren 20a eta 21a izan zirela egunik beroenak: 30 eta 29 gradu, hurrenez hurren.

Euriari dagokionez, egun askotan lanbro antzean busti badu ere, litrotan gutxi batu dela dio: uztailaren 12ko trumoiak Arantzazun utzitako 26 litroak gogorarazi ditu. Behe-lainoaren presentzia etengabea izan dela ere azpimarratu du, itsasotik datorren mendebalari egotzi dio, beste behin, horren ardura.

DATUA

26

LITRO

Horixe da joan den uztailaren 12ko ekaitzak Arantzazun utzi zuen litro kopurua. Orain arteko udako egun euritsuena.

Hildako bergarar bat eta zauritu bat autobus batek eta auto batek elkar jota

Elorregitik Bergararako bidean izan zen atzo istripua; autobuseko hiru bidaiariak onik irten ziren

A. MONEDERO / M.BITERI | BERGARA

Hildako bat eta zauritu bat izan ziren atzo goizean, Elorregiko bidegurutzetik Bergarara bidean, auto batek eta autobus batek elkar jo ostean. Autoa gidatzen zihoan gizonezkoa da hildakoa; hain justu ere, Benito Davila bergararra. Udal langilea zen hura, herriko hilerrian dabilen ehorzleetako bat. Goizean, 11:30ean, gertatu zen istripua GI-627 errepidean, esan bezala, Elorregiko bidegurutzetik Bergarara bidean. Diputazioak gatza biltzeko duen biltegitik gertu, Deba erreka zeharkatzen duen zubiaren inguruan. Opel Astra familiarrak eta autobusak aurrez aurre jo zuten.

Herrizaingo Sailetik jakinarazi zutenez, larrialdi zerbitzuak berehala joan ziren istripua gertatutako tokira, eta suhiltzaileek burdinen artetik atera behar izan zuten hildakoaren gorpua, eta baita auto berean, gidariaren ondoan, zihoan gizonezko zauritua ere.

Debagoieneko ospitalera

Jarraian, Debagoieneko Eskualdeko Ospitalera eroan zuten azken hori, Arrasatera. Bestalde, autobusean zihoazen hiru bidaiariak eta gidaria onik irten ziren.

Istripuaren ondorioz, errepidea bi noranzkoetan egon zen itxita, eta ilara luzeak sortu ziren. Ertzainak eta Arrasateko eta Bergarako udaltzainak ibili ziren GI-627 errepidean zirkulazioa bideratzen.

Denboraren kapsula lurperatzeaz gain, hitzaldia dute Ulman

Ulmaren 50. urteurrenaren harira, Nabarraldeko zuzendari Angel Rekaldek hitzaldia egingo du martitzenean, 18:00etan, Ulmako auditoriumen. Bestalde, eguaztenean, 17:30ean, 50 urte barru zabalduko duten denboraren kapsula lurperatuko dute taldearen zerbitzu zentraletako lorategian.

Zarauzko Euskal Jaira joateko autobus zerbitzua jarri dute

Hilaren 9an Zarautzen ospatuko den Euskal Jaira joateko autobus zerbitzu berezia izango da. Honako ordutegia izango du: Eskoriatzan, 10:15ean; Aretxabaletan, 10:25ean; Arrasaten, 10:35ean, eta Bergaran, 10:50ean. Jarraian, AP-1 autobidea hartuko du. Itzultzeko autobusa 21:15ean irtengo da Zarauztik.

Hilaren 11n eta 25ean egin daiteke ostera Intxortako ibilbidea

Irailean ere Intxortako ibilbidea egiteko aukera dago. Hilaren 11ko bisita euskaraz izango da eta 25ekoa, berriz, elebiduna. Parte hartzeko aurrez eman behar da izena 943 71 89 11 telefono zenbakian edo *turismo@debagoiena.net* helbidean. Helduendako prezioa 5 euro da eta 16 urtetik beherakoendako, 2 euro.

Ponpaketa estazioaren prototipoa egin dute MUn

Hirigunetik urrun dauden baserrietan edo txaboletan lurpeko ura ateratzeko balio du

M.B. | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko Mekanika Ingeniaritzako hirugarren mailako ikasleek ur-ponpaketa estazio baten prototipoa egin dute. Hirigunetik urrun dauden nekazaritza-ustiapenetan, norbanako etxebizitzetan –baserrietan edo txaboletan–, eta ur edangarria eta energia elektrikoa nekez eskuratzen dituzten herrialdeetako hiriguneetan erabil daiteke.

Arrasate eta Goierriko campusetako ikasleek sortu dute ur-ponpaketa estazioa. Iazko ikasturtean eraiki zuten prototipoa. Era berean, proiektua bideragarri izateko kalkuluak egin zituzten.

Metodologia berria

Problem Oriented Project Based Learning delako metodologiarekin dabiltza garatzen proiektua. Aurreko ikasturtean, lehen fasean, prototipoa eraiki eta bideragarritasuna aztertuta, bigarren fasean piezak fabrikatzeko aurrekontua egin, piezak erosi, eta goragoko zikloetako ikasleen laguntzarekin egin beharko dute aurrera.

Ikasteko sistema horretan bost laguneko taldeak egin eta bakoitzak tutore bat dauka. Tutorearen zeregina ikaslea gidatzea da.

Metodologia horri esker, Arrasateko 45 ikaslek eta Goierriko beste 30ek, lehen ikasturtetik bertatik hasita, proiektu baten parte hartzen dute, eta urtean zehar lortutako gaitasun eta trebetasunak erabiltzeko aukera dute. Proiektuak, hain zuzen, ebaluazioaren %50 hartzen du.

Buesa Arenako teilatu berria ipini dute LKSren zuzendaritzapean

M.B. | ARRASATE

Gasteizko Buesa Arena pabiloiaren teilatu berria arrakastaz ipini zuten abuztuaren 3an. Arrasateko LKSk egiten dihardu proiektuaren laguntza teknikoa eta lanen zuzendaritza. "Lanak erritmo onean doaz, eta Arabako Foru Aldundiarekin zehaztutako lan epeak betetzen ari gara", diote.

Pabiloiaren handitze lanetan Lagunketa, Zikotz eta Giroa enpresek osatutako UTEk ere parte hartzen dihardu.

Buesa Arenako teilatua. | GOIENA

Egitura espaziala

Teilatu berriaren zati nagusiak 220 tona ditu eta Gasteizko pabiloiak dituen 48 puntuetan ahokatu dute. *Karamelua* izenez ezagutzen den zati nagusiak borobil itxura du eta 126 metroko diametroa.

Teilatu berriak egitura espaziala du, 2,5 metroko lodiera eta 116 metroko luzera. Guztira, 5.090 metro koadroko eremua hartzen du. 12 isuri dituen estalkia du eta kanpora %3ko aldapa. Diametrorik handiena 130 metrokoa da eta eremu osoa 11.647 metro koadrokoa da. Egituraren pisu osoa 337 tona dira.

Buesa Arenatik kendu duten kupula zaharra beste kokapen batera eraman dute, eta aldaketa egin zuen garabi berak jaso zuen teilatuko pieza berria.

Arantzazuko Amaren egunerako indartu egingo dute autobus zerbitzua Oñatin

M.B. | OÑATI

Oñati-Arantzazu-Oñati bidea egiten duen autobusak zabaldu egingo du zerbitzua irailaren 9an, Arantzazuko Amaren egunean. Basilikan egiten dituzten elizkizunetarako joan -etorria egiteko, ordu tarte batzuetan autobusa ordu laurdenean behin irtengo da: 10:00etatik 14:30era Oñatitik eta 10:00etatik 14:00etara Arantzazutik; autobusa 15 minutuan behin irtengo da.

Ordutegi horretatik kanpo, autobusa ordu erdian behin irtengo da. Lehen autobusa 07:30ean irtengo da Oñatitik eta 08:00etan Arantzazutik. Azkena, 20:30ean Oñatitik eta 21:00etan Arantzazutik. Txartelaren prezioa 0,60 euro da.

Juan Lizarralde Elortza | Artzaina

"Omenaldia eskertzen dut, baina oso urduri egongo naizela badakit"

- Juan Lizarraldek omenaldia jasoko du Gipuzkoako Artzain Egunean
- Oñatiko Beillotza baserrian bizi da iloba Jabierrekin eta 85 urte ditu

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Pintto eta *Lista* txakurrekin topatu dugu Juan Lizarralde (Oñati, 1926) Beillotza baserrian. Domekan Legazpin egingo duten Gipuzkoako Artzain Egunaren barruan omenaldia jasoko du. Haren iloba Jabierrek "pozik baina urduri" dagoela esan digu. *Juan-e*k –ezizen horrekin ezagutzen dute askok– bere bizitzaren gaineko hainbat pasadizo kontatu dizkigu Beillotza baserrian.

Juan Lizarralde, *Lista* txakurrekin. | MIREIA BIKUÑA

Omenaldia egingo dizute domekan Legazpin. Pozik zaude?

Bai. Nikolas Segurolak esan zidan omenaldia egingo zidatela. Eskertzen dira horrelako aitortzak, baina urduri ere banago. Eguna noiz iritsiko amorratzen nago. Une horretan larri ibiliko naiz.

Ingurune ederrean bizi zara. Baserrian. Baina kalean bizi izandakoa zaitugu.

Bai, hala da. Baserria izan dugu beti. Arreba, koinata eta ilobarekin bizi izan naiz. Egun, iloba Jabierrekin bizi naiz.

Baina kalean ere bizi izan naiz. 38 urterekin Ulmara joan nintzen lanera. Asteguna kalean pasatzen nuen, eta aste bukaeretan baserrira etortzen nintzen. Erretiroa hartu dudanetik Beillotzan nago, eta oso gustura, gainera.

Zer nahiago duzu, lantegiko lana ala baserrikoa?

Bietan egon naiz gustura, baina baserrikoa berezia da. Asko maite izan ditut ardiak, animaliak, ortua... Egun, Jabierren esku dago etxeko lana, baina gustatzen zait zer egiten duen ikustea.

Etxeko tradizioari jarraituz artzain izan naiz ni ere. Bizimodu gogorra da, baina, aldi berean, oso polita.

Egun, ardiak bakarrik dituzue etxean.

Artaldetxo bat daukagu, baina askoz gehiago izan ditugu: 60 bat ardi, larre-behiak eta behorrak. Etxean izan ditugun ardi gehienak latxa mutur beltzak izan dira.

Zuk zaintzen zenituen ardiak?

Bai. Baserri ondoan dagoen Urkillako mendilerroko Zurkutz mendian pasatzen nuen uda ardiekin. Neguan etxera itzultzen ginen.

Etxean beste hainbat produktu landu dituzue.

Artoa, babak eta patatak erein ditugu ortuan. Gainera, gaztainak eta basoko beste hainbat fruitu biltzen genituen. Gure baserria zelai eta pagadiz inguratuta dago eta oso aberatsak dira.

Arantzazurako bidean bizi zara. Herrigunetik urrun.

Ez daukat aspertzeko denborarik. Eguraldi ona egiten badu, *Pintto* eta *Lista* hartu eta paseoa egiten dut. Euria edo elurra egiten badu, orduan sutondoan egoten naiz telebista ikusten.

Orain dela gutxi arte, Urbiara joaten nintzen domekero beste artzain batzuekin egoteko.

> "Baserritik Ulmara joan nintzen lanera, eta erretiratzean, berriro baserrira"

> "60 ardi izan ditugu batera etxean, gehienak latxa mutur beltzak"

Hiru ordezkari txakur txapelketan

Gipuzkoako Artzain Egunaren barruan, 43. euskal artzain-txakurren lehiaketa egingo dute. Hiru debagoiendarrek parte hartuko dute: Migel Arregi eta Jose Luis Madinabeitia oñatiarrek (Arregi *Mendi* txakurrarekin eta Madinabeitia *Txiki*-rekin) eta Jesus Mari Plazaola arrasatearrak *Gure* txakurrarekin.

Proba 17:30ean hasiko da Urtatzako zelaian. Bi proba egingo dituzte: lehenean artzainaren aginduak bete beharko dituzte eta bigarrenean ardiak eskortan sartu.

ZABALIK

IÑAKI PEÑA
http://goiena.net/iritzia/

2018

Urte hartan bertan Errusian Munduko Futbol Txapelketa egingo dute. Bi urte lehenago, Europako kultura hiriburuak Wroclaw eta Donostia izango dira, eta urte bat lehenago Korrikaren 20. edizioak beste behin ere Baskistan zeharkatuko du. Eta hizkuntzarekin jarraituz, 2018an ere oso urteurren garrantzitsua ospatuko dugu geurean. Izan ere orduan 50 urte beteko dira 1968ko urrian Arantzazun Mitxelena, Gandiaga, Villasante eta koadrila hura guztia batzartu eta Euskara Batua izeneko tresnaz erditu zirenetik.

"Ederra da Mendebaleko euskara entzutea eta irakurtzea"

Fermin Etxegoien oñatiarbilbotarrak *Neurona eta Zeurona* liburu guztiz gomendagarrian Batuaren aldeko aldarria egiten du, bestelako mezuekin batera, eta bat nator berarekin etorkizunari begira euskalkietatik haratago joateko garrantziaz. Baina erronka hortxe dago hain zuzen ere, oreka mantentzean alegia. Hizkuntzaren polifonia eta batutako musikaren arteko oreka.

Koldo Zuazo eibartar-bilbotarra sekulako lana egiten ari da azken urteotan euskalkien inguruan, horiek hizkuntzaren "sendabelar"-tzat hartuz. Eta bat nator berarekin ere bai, jakina. Elkar hobeto ulertzeko eta hainbat arlotan komunikatzeko hiztun gutxitu guztiok eredu batuak behar ditugula bistan da, hemen gurean edo munduko antzeko beste bazter batzuetan ere. Normalena da EiTBko albistegiak batuaz entzutea, eta *Berria*-n, *Sustatu*-n eta Wikipedian artikuluak batuaz irakurtzea. Baina ederra da Bizkaia Irratian, Goiena Telebistan edo Oier Gorosabel eibartar-lekeitiarraren blogean Mendebaleko euskara entzutea eta irakurtzea, Bilbon, Lekeition, Eibarren eta Oñatin egiten den euskalkia. Batua bai, euskalkiak ere bai. 2018an ez da faltako saltsarik honen guztiaren inguruan, Arantzazun eta Baskistan osoan.

Beharrezko saltsa eta eztabaida, zalantzarik gabe. Bizi gara!

USTEAK USTE

XABIER URTZELAI | xurzelai@goiena.com

Lider espiritualak, eta...

Abuztua, Madrilen. Leku guztietatik joandako milioi bat pertsona, asko kanpokoak. Gora begira denak, estasiak jota, lider espiritualaren –Aita Santua– keinuen zain. Dantzan, izerdi batean, eta babes neurriz inguratuta. Amaitu da jaia.

Abuztua, Sorian. Leku guztietatik joandako hiru mila pertsona, asko kanpokoak. Gora begira denak, estasiak jota (edo...), lider espiritualaren –DJa– keinuen zain. Dantzan, izerdi batean, eta Guardia Zibilez inguratuta (babes neurriak). Amaitu da jaia. Bigarren hitzorduaren alde egin zutenak, *subidoi* eta *bixamon* artean, zaborra batzeko gauza izan ziren.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

'Ziminoen planeta'–k behar ote zuen prekuelarik?

Gorka Bereziartua
http://www.argia.com/boligrafo-gorria/

Badirudi biopic-en eta remaken momentua pasa dela Hollywooden eta orain sekuelak eta prekuelak etorriko zaizkigula barra-barra.

Emankorrena, Ridley Scott: *Blade Runner*-ekin eta *Alien*-ekin lotutako proiektu banatan sartuta dabil, baina denbora askotxo pasako da horiek aretoetara iritsi aurretik.

Bitartean, uda honetan *Rise of the planet of the apes* filmak animatu ditu txarteldegiak.

Pelikula ikusi ondoren ordea, galdetzea zilegi da: beharrezkoa al zen?

Ez baitauka, itxuraz behintzat, 1968ko *Planet of the apes*-en indar ebokatzailearen laurdenik ere.

Izan ere, hark arrazakeriari buruzko bigarren irakurri garbia eskaintzen bazuen, badirudi honek animalien kontrako tratu-txarrei buruzkoa ere ez duela zehatz marrazten.

Hark gerren ondorio katastrofikoak bazituen korolario, honek zientziaren erabilera okerren aurkako mezutxoren bat eman nahiko lukeela dirudi.

Baina ez dezagun hain azkar filma larrutu, zeharbistan hasita itxuraz baino mami handiagoa dauka eta.

Pelikula honek hiru momentu klabe dituela esango nuke:

Lehenengo momentua, Caesar ziminoa bizilagunarekin borrokan hasten den unea.

Bigarrena, aurreneko aldiz hitz egiten duen momentua.

Eta hirugarrena, filmaren amaieran "Caesar etxean dago" dioen eszena.

Hiru urratsetan ikusiko dugu:

Ziminoa gizakien pare jartzeko gai dela konturatzen, lehenik.

Bere borondatea haienaren gainetik dagoela adierazten, bigarrenik.

Eta berak (baita berak bezalakoek ere) mundua etxe dutela aldarrikatzen, azkenik.

Filmak ez du erakusten horren ondoren etorriko dena: gizakien eta ziminoen arteko hil ala biziko borroka, baina aurrekariak aurkezterakoan, lortzen du ikusleari halako ezinegon bat sortzea: noren alde posizionatu beharko luke?

Tira, horiek guztiak esanda, tituluko galderari erantzutea falta da.

Hau da, beharrezkoa al zen hau?

Ba ez, seguruenik ez.

Izan ere, 1968ko pelikularekin lotzeak zerikusi handiagoa du taktika komertzialarekin filmaren edukiarekin baino (espazioan galdutako astronauten aipamenak nahiko indarka sartu dira gidoian).

Lotura hori egin gabe ere funtzionatuko zuen.

Baina krispetak jan bitartean ikusteko pelikula izateaz gain, *Rise of the planet of the apes*-ek eskaintzen du beste zerbait.

Eta hori bada Tim Burtonek 2001ean egindako *Planes of the apes*-en remakeaz esan daitekeena baino gehiago.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

"Zuk badakizu zer entzun!"?

Aitzol Gandiaga eta Aritz Alustiza
Bergara

Goizean, esnatu eta irratia piztean, "zuk badakizu zer entzun!", horiek dira entzuten ditudan lehen hitzak, ahots goxo batek esana. Baina hau al da herriak entzun nahi duen musika? Edo gutxi batzuek guk zer entzun erabakitzen dutena?

Horrelako irrati publikoetan euskal musikak duen tartea oso urria da, musika euskalduna modan ez balego bezala.

Gure herrian antzeko jarrerak bizi ditugu, gaueko jai giroan irten eta irratian entzuten dena nahikoa ez eta tabernek jarrera bera hartzen dute, musika euskaldunak ez omen du saltzen... konturatzen al gara Euskal Herriko taldeei eta euskarari berari ematen diegun zentsuraz?

Bergaran, zoritxarrez, jai giroan euskal musikaz gozatzeko aukera ematen diguten tabernak oso gutxi dira, ez dugu uste %100 musika euskalduna izan beharko lukeenik; hala ere, aldi berean honek bere txokoa izan beharko lukeela uste dugu, inguruko beste herri askotan bezala.

Lotsagarria da poteo orduan Tapia ta Leturiaren abestiak entzun, eta jarraian eguzkia sartzearekin batera abesti komertzial hutsak eta erdaldunak jartzeko duten ohitura herriko taberna askok.

Hau guztia esanda, honi buruzko hausnarketa bat egitera animatu nahi zaituztegu, herrian baditugu-eta beste modu batean funtzionatzen duten komunikabideak (Txapa irratia, Info 7...), ziur gaude Bergarako igerilekuetan ere ez dela zaila izango frekuentzia hauek harrapatzea!

Sarri, non bizi garen ahazten dugu, eta, guztiok gure hizkuntza zaindu behar dugula dakigun moduan, honekin batera geurea dugun kultura eta musika ere zaindu beharra daukagu.

Enara batek esan zidan behin...

Ana Nogueiras Cadavid
Aretxabaleta

Enara batek eredua nintzela esan zidan behin, ez dakit arrazoia zeukan ala ez; nik gaur eskerrak eman nahi dizkiot, hori izan baitzen eta izan baita lagundu nauena bost urte hauetan. Askotan datozkit burura hitz horiek, askotan pentsatzen dut enara horrengan, eta uste dut, dagoen lekuan, bere hegoak zabalduko dituela eta aurpegian barre bat irtengo zaiola hau irakurtzean; beraz, nire enara maitea, mila esker egun hartan esan zenidanagatik.

Eskerrak eman nahiko nizkieke hainbat pertsonari, eta inor ahaztu nahi ez dudanez, ez dut aipatuko izenik. Lehenik eta behin, eta ez da besteek baino garrantzi handiagoa daukatelako, Kurtzebarriko irakasle guztioi, zuekin asko ikasi baitut, eskerrik asko nirekin bilerak euskaraz egiteagatik, gauzak azaltzeko orduan eduki duzuen pazientziak ez daukalako preziorik. Guraso asko izan zarete nire ondoan egon zaretenok laguntzeko prest, zuei ere eskerrik asko. Barriketeroei, nirekin ibilitakoei eta baita beste taldekoei ere, euskaldun berriei eta euskaldun zaharrei, batzuk besteak gabe ez liratekeelako posible izango; txalupa batean bezala txalupak arraun barik eta arraunak arraunlaririk gabe; patroia ahaztu gabe, jakina. Dendari asko pozik egongo dira aurten, haien kandelen salmentek izugarri gora egin dute eta. Akaso, krisiari aurre egiteko gauza ona izan da azterketak edukitzea, zeren azterketa eduki dudan bakoitzean batek baino gehiagok piztu baitu kandelaren bat nik gaindi dezadan, horiei ere eskerrik asko.

Ezin da ukatu mundu honetan zerbait lortzeko esfortzua egin egin behar dela, baina esan beharra daukat nire euskararekiko ibilera ez litzatekeela berdina izango nire ondoan eduki ez banitu eduki ditudan irakasle eta ikasle taldeak. Urte hauetan asko ikasi dugu elkarrekin: dzanga-dzanga egiteaz aparte jakin izan dut mihura ez dela bakarrik zezenekin lotura daukan hitza, eduki ditugun matxurak zelan konpondu ere ikasi dugu, badakigu latigoa erabiliz ez dela ezer konpontzen, amodioak geure atea jo du... Denetik eduki dugu urte hauetan, batez ere, oso giro ona eta droga bat izango balitz bezala ezin dugu guztiz utzi euskaltegia, ziur nago datorren kurtsoan, aurten egon garenon arteko batek baino gehiagok errepikatuko duela. Zuei ere mila esker klaseak hain atseginak egiteagatik. Eskerrik asko, nigan euskaldun eta euskararen mundua ezagutzeko gogoa piztu zuenari ere, zeren berekin egon izan ez banintz hau dena ez bainukeen egingo.

Espero dut euskarak enara bezala bere hegoak zabal ditzan leku eta bihotz askotara iristeko.

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

Murugaineko trintxerak eta Dragones batailoia

Juan Ramon Garai eta Nekane Arrazola
(Intxorta 1937 kultur elkartea)
Arrasate

Murugaineko lubakien eta Arrasateko Dragones batailoiaren milizianoen lotura erabatekoa da. Eurak dira 1936ko azaroan bertaratu zirenak eta 1937ko apirilaren 1era arte bertan egon zirenak.

Dragones batailoia, 1934ko Oktubradaren ondoren, Guadalupeko gotorlekuan preso elkarrekin egon ziren Gazteria Sozialista Bateratuko hainbat kidek sortutako batailoia da.

1936ko irailaren 26an, Arrasate erori ondoren, bi egun geroago, irailaren 28an Gazteria Sozialista Bateratuko- JSU, UGT eta Partido Sozialistako zenbait bazkidek ordurako Elorrion eratuta zegoen batailoi horretarako eman zuen izena, eta beren ikurrinerako kolore gorria aukeratu zen.

Lehenengo konpainiako gudari guztiak arrasatearrak ziren; gerra hasieran Segundo Olazagoitia izan zuten kapitain, eta batailoiaren komandante kargua izan zuen lehena Gerardo Ruiz de la Cuesta izan zen, hau ere mondragoetarra –biak gudan hil zituzten–, beste 50 burkide arrasatearrekin batera.

Batailoiko hiru lagunen testigantza jarraian:

"Garai hartan etorri zitzaizkigun –1936ko urria– fusil eta metraileta txekoak. Urriaren 4an, beste gudari eta milizianoekin batera, Dragonesko bi konpañia Intxortako eta Kalamuako borroketan parte hartu genuen, faxisten erasoa gelditzea lortu zen.

Azaroaren hasieran Karraskainen lau konpañia elkartu giñen. Azaroaren 26an Aramaion, Murugainen, eta mendi horren Arrasate eta Aretxabaleta alderako hegalean zeuden posizioetan hartu genuen lekua; han eraiki genituen gure gotorlekuak. Untzilla, Baztar-Gain eta Bazter-Azpin.

Azaroaren 30ean, Madril jasaten ari zen presioa arintzeko, Legutiotik zehar Gasteiz harrapatzea deliberatu zen. Arrasate aldera abiatzeko keinada bat egin genuen, eta Olandio baserriraino jaitsi ginen, erreketeek eta soldaduek Zigarrolatik zehar herritik nola alde egiten zuten ikusten genuela.

Murugainen bagenuen posizio aurreratu bat; gauero uzten genuen lotara Naparrena baserrira joateko, eta hurrengo egunean hartu egiten genuen berriro. Horietako batean etsaia konturatu egin zen nonbait, eta segada bat antolatu zigun; hartan hil zen Victor Bolinaga. Hurrengo egunean asaltoan hartu genuen.

Murugainen gerra zegoenik era ia ahaztuta igaro genuen negua, Santa Barbara eta Otalazelaitik jaurtikitzen zizkiguten kanoikada batzuengatik ez bazen, han etsaiak bateria batzuk jarriak baitzituen, soldadu alemanekin".

"Martxoaren bukaeran Udalatxetik abisua bidali zuten, esateko Arrasaten etsaiaren tropa mugimendu handia ikusten zela. Infanteria eta kamioi mugimendu etengabekoa ari zen han, eta garbi-garbi entzuten zen soldaduen zarata. Artilleria ugari ari zen iristen gainera. Gainerako begiraleku guztietatik ere antzeko berriak ari ziren iristen, eta bestaldetik etsaiaren erasoa hastera zihoan guztietan bezala –gauza tristea baita sentitzen ez den arrazoi batengatik bizia ematea–, soldadu asko hasi zen igarotzen leialen aldera, eta interes handiko datuak ekartzen zituzten bestaldetik, denak bat zetozen datuak gainera. Dudarik ez zegoen garrantzi handiko erasoren bat ari zirela prestatzen faxistak, eta Legutiotik etorriko zela eraso hori. Berri horixe baitzekarten etsaien aldetik gurera zetozen guztiek, eta horretxen seinale zen etsaiaren tropa gehienak Arrasaten ez gelditzea, Aretxabaleta eta Eskoriatza aldera, hego mendebalerago jarraitzea baizik.

1937ko martxoaren 31n, gerora *Bilboko erasoa* izenarekin ezagutua izango zenari ekin zitzaion; larriena, bataila haren akabera nolakoa izango zen erabakiko zuten bi armada moduetan zeukan desabantaila ikaragarria: artilleria eta abiazioa, alegia".

"Esan den bezala, beraz, martxoaren hogeita hamaikan faxistek erasoari ekin zioten, haiek zeukatenik inork pentsatu ere ezingo zukeen gudu materialezko ugaritasun batez, eta tamalez egunetik egunera ugaltzen ari zenaz, gainera. Dozenaka eta dozenaka hegazkin igarotzen zitzaizkigun egunero gure buruen gainetik, eta bonba mordo ikaragarriak jaurtikitzen zizkiguten, gero berriro Gasteiz aldera alde egiteko; haien ondoren berehalaxe etortzen ziren beste batzuk; eta haiei laguntzeko dozenaka kainoi bateria, kalibre guztietakoak ari zitzaizkigun gure posizioak bonbardatzen. Gu, berriz, geure fusilak besterik ez genuela hantxe, etsaiaren horrenbeste armamenturi kontra eusteko. Borroka horietan, Antonio Dominguez Untzillan hil zuten, eta Miguel Zubia Murun.

Egun horretan Olandiotik eta Untzillatik Murugain hartzeko saioetan hainbeste bider porrot egiten aspertuta, taktikaz aldatu zuten, eta apirilaren batean Asentsio menditik ekin zioten erasoari. Sumendi bat ematen zuen.

Egun horretan Kurtzetako errepidea moztea lortu zuten eta batailoian ginenok errepidez irteteko modurik gabe geratu ginenean, Murutik alde egin beharra izan genuen. Handik berriz ere Intxortara joan ginen".

(Santiago del Valle *Txingolo*, Jose Mari Arriaran *Txispas* eta Guillermo Lasagabaster *Mala Letxe*-ren testigantzak)

Euskara ikasteko...

Natxo Bolivar
Oñati

Granadakoa naiz, baina Oñatin bizi naiz. Euskara ikasten ari naiz, eta gainera gustura, baina uda honetan Gasteizera joan behar izan dut euskara ikastera. Bai, hala da.

Aurten Oñatiko euskaltegian egon naiz. Orain dela aste batzuk udako ikastaro intentsiboei buruz galdetzera joan nintzen. Ezustekoa izan zen jakitea nirea bezalako erdi-mailako ikasketarik ez zela egongo. EGA prestatzeko edo hastapen mailako ikastaroak eskaintzen dituzte soilik.

Egoera bera topatu nuen inguruko euskaltegietan, publiko edo pribatuetan.

Orduan nire buruari galdetu diot: ez al da uda garai ona ikastaro trinkoak eskaintzeko? Zer gertatzen da nire egoeran dagoen jendearekin?

Ez dut urtean zehar ikasitakoa ahaztu nahi, aurrera egin nahi dut. Euskara integrazioa da, eta nik integratu egin nahi dut.

Azkenean, oso ahalegin pertsonal eta ekonomiko handia egin behar izan dut uztailean zehar egunero Gasteizko euskaltegi batera joateko.

... euskara ikasteko.

Itziar Lamarain | Arabako Kultura, Euskara eta Kiroletako foru-diputatua

"Ezinezkoa zait Araban diputatu eta Arrasaten zinegotzi izatea"

- Arrasateko PPko zinegotziak laga egingo du kargua, bi agintaldi oso egin ondoren
- "Gema Fernandez izango da nire ordezkoa", hauteskunde zerrendan bigarren joan zena

ENEKO AZKARATE | GASTEIZ

Bi agintaldi egin ostean Arrasateko Udalean, hirugarrena hasi berritan, kargua lagako duela iragarri du, Arabako Kultura, Euskara eta Kiroletako diputatu izendatu baitzuten uztailean. 65 urte, arrasatearra, Gasteizen bizi da.

Itziar Lamarain, joan den astelehenean, Arabako Foru Aldundian duen bulegoan, Gasteizen. | ENEKO AZKARATE

Zer moduz eman duzu uda?

Uztailaren 21ean hartu genuen kargua eta 26an hasi nintzen lanean. Harrezkero, lanean jardun dut, baita abuztuan ere. Buru-belarri. Lehenbailehen ardura berrietara egokitu nahian.

Zelan egin duzue aurreko gobernuaren eta zeuenaren arteko ardura aldaketa?

Nire departamentuan ez dugu arazorik izan. Aurreko diputatuarekin, Malentxu Arruabarrenarekin, ez dut harremanik izan, baina bai zuzendariarekin, eta esku aldaketa ondo joan da. Badakit, hala ere, beste sail batzuetan arazoak izan dituztela. Halakoetan, herritarrak hartu behar ditugu aintzat eta ez alderdikeriak.

Aurrekoek egindakoa aldatzeko asmoa duzu?

Egingo ditugu aldaketak, egitasmoak egokituko ditugu gure nahietara, baina ez dugu aurretik ondo egindakoa hautsiko. Ez naiz apurtzailea, eraikitzailea baizik. Ez gaude lana alferrik egiteko. Praktikoak izan behar dugu, bereziki une zailotan.

Zeure departamentuko lan ildo nagusiak zeintzuk izango dira?

Oraindik ezin dezakegu aurreratu hori. Ailegatu berriak gara, beste alderdi bat egon da lau urtez gobernatzen Arabako Diputazioan eta oraindik goizegi da gure asmoen berri emateko.

PPrekin euskarak atzera egingo du Araban, batzuek dioten moduan?

Hori diotenek fede txarrez dihardute. Ezagutzen nautenek badakite euskararen alde egingo dugula bai nik eta baita neure alderdiak ere. Euskararen Aholku Batzordeko kide naiz eta izan nintzen Ibarretxe eta Baztarrikaren garaian.

Gero eta euskaldun gehiago dago Araban ere, baina erabili, zenbateraino erabiltzen da?

Gero eta euskaldun gehiago dago lurraldean, batez ere gazte jendea, baina erabili gutxi egiten da. Horrek arduratuta gauzka, baita Euskaltzaindia bera ere.

Zer egin daiteke Arabako Diputaziotik euskararen erabilpena bultzatzeko?

Zaila da. Zer egiten dugu hedabideekin? Jendea errazera doa. Gaztelaniazkora doa. Gaztelania indartsua da. Zer egingo dugu? Euskaraz egitera eta irakurtzera behartu? Ez. Isunak jarri? Ez. Gozokiak eman? Ez. Kontrakoa lortuko genuke. Eta diru-laguntzak ez dira soluzioa.

Geu aldizkaria argiratzen zen lehen Gasteizen. Euskarazko aldizkari bat bera ere ez dago orain Araban. Diputazioak diruz lagunduko luke euskarazko proiektu berririk?

Zabalkundearen arabera. Aldizkari bat finantzatu behar badugu, ziurtatu beharko dugu irakurlearengana heltzen dela eta haiek aintzat hartzen dutela; hau da, irakurtzen dela. Bestela, dirua zaborrera botatzea litzateke. Errealistak izan behar dugu. Eta efizienteak. Ez gaude dirua botatzeko.

"Ezagutzen nautenek badakite euskararen alde egingo dugula"

"Iruña Veleia oso aztarnategi baliotsua da eta guri dagokigu zaintzea"

Euskararen Aholku Batzordearen zeregina, eginkizunak, lanak... mantsotu egin dira Lopezekin?

Egin ditugu batzarrak eta lan arloak zehaztu dira, batzorde ezberdinetan. Baztarrikaren denboran ezarritako oinarriak garatzen dihardugu. Hala ere, esan gura diet alderdi abertzaleei Euskararen Aholku Batzordea Lopezekin lehen aldiz batzartu zenean, hasi orduko, hasi zirela kritikekin, Urgellen eta Lopezen aurka. Eta iruditzen zait eraso horiek tokiz kanpo daudela.

Zeintzuk dira Arabak kultura, euskara eta kirol alorretan dauzkan premia nagusiak?

Alor guztiak dira garrantzitsuak eta guztietan daude lehentasunak. Eskola kirola bultzatu gura dugu eta horri emango diogu lehentasuna. Kultura alorrean, gauza batzuk aldatu gura ditugu, ez daudelako modu egokienean antolatuta, eta, bestalde, Diputazioko bertako lan taldeak, teknikarien lanak, indarra hartuko du, kanpora atera beharrean edo beste erakunde edo elkarte batzuk diruz babestu beharrean. Beti esan dudan moduan, ez zaizkit gustatzen *txiringitoak*.

Aurreko agintaldian hainbat euskara teknikari berri lanean hasi ziren Arabako eskualde edo koadriletan. Horiei eutsi egingo diezue?

Baloratu egin behar dugu. Aztertu funtzionatzen duten edo ez. Errentagarritasuna topatu. Inbertsioak merezi izan duen edo ez baloratu. Eta ondoren, erabakiak hartu.

Hiribururako ez ezik, herrialde osorako lan egingo duzu?

Argi daukat Arabako diputatua naizela, ez Gasteizkoa bakarrik, eta Aramaio Araba da. Abuztuan egon naiz Aramaion organo jaialdi baten. Lurralde osoa ari naiz ezagutzen. Oso aberatsa da Araba kulturari edo arkeologiari dagokionez.

Ze gertatzen da Iruña Veleian?

Bulegoko mahaiaren gainean daukat Iruña Veleiaren gaineko txosten mardula. Uda osoan ari naiz horrekin. Gaia epaitegian dago eta han egingo du bidea. Epaileek erabakiko dute. Baina, bestalde, hamar urterako egitasmo bat dago zehaztuta aurreko agintalditik eta hari helduko diogu. Iruña Veleia oso aztarnategi baliotsu eta garrantzitsua da eta guri dagokigu zaintzea.

"Zentsura-mozioa aurkeztuko balute Araban, herritarrek ez lukete ulertuko"

"%9 jaitsi dira sarrerak, eta aurrekontua murriztuko dugu"

Erabaki duzu zer egin Arrasateko Udalean?

Utzi egingo dut kargua, ez direlako uztagarriak bi zereginak, eta niri gauzak ondo egitea gustatzen zait. Ezinezkoa zait Araban diputatu eta Arrasaten zinegotzi izatea. Ezin ditut lan biak ondo egin eta Arrasaten oso noizbehinka ez dut agertu nahi. Herritarrei iruzur egitea izango litzateke. Noiz gauzatuko den oraindik ez dakit, baina, seguruen, Gema Fernandez izango da nire ordezkoa, hauteskunde zerrendan bigarren postuan joan zena. Gasteiztarra bera.

PPk gutxiengoan gobernatuko du Araban. Zentsura-mozioaren beldurrik ikusten duzue?

Dena da posible politikan, baina arabarrek ez lukete ulertuko, PP Araban lehen indarra izanda, EB-Berdeekin inbestiduran gertatutakoak gertatuta... Jeltzaleek bat egingo balute Bildurekin eta EB-Berdeekin zentsura-mozioa aurkezteko, haien kontra egingo lukete herritarrek.

Krisiak zelan eragin dizue?

%9 jaitsi dira sarrerak. Horren ondorioz, aurtengo aurrekontua murriztu egin beharko dugu eta, bestalde, datorren urteko aurrekontuak ere txikiagoak izango dira. Hala ere, gutxirekin gauza asko eta jende guztiarendako egin daitezke.

GIARTZU gimnasioa

Boni Laskurain 3 behea BERGARA - 943 763005 - *gimnasio@giartzu.com* - *www.giartzu.com*

karate euskal federazioa

KARATE GKF-FGK

KWF KYOKUSHIN WORLD FEDERATION

KARATE KYOKUSHINKAI

Euskal eta Gipuzkoako Karate Federazioak homologatutako zentroa.

"Zorionak eta zorte on Joseba, Varnan (Bulgarian) urriaren 15 eta 16an izango den Europako K.O. Kyokushin txapelketan!"

Izen-emate epea zabalik:

Haur zein nagusientzat karatea - KO karatea - Defentsa pertsonala

Haurrentzako karatea: Aurkezpen eguna: irailaren 7an, 17:00etan.

- 3 eta 6 urte bitarteko umeen ordutegia: astelehen eta asteazkenetan, 17:15ean.
- 7 urtetik gorako umeen ordutegia: astelehen eta asteazkenetan, 18:00etan.

* Karatean aritzeko edade minimoa: 3 urte / Ume kopurua taldeko: 12/15

Nagusientzako karatea:
Entrenamenduak: Astelehen eta asteazkenetan 20:00etan, ostiraletan 19:00etan

Defentsa Pertsonala:
Astearte eta ostegunetan: 20:00etan / Zapatuetan: 10:00etan.

K.O. KARATEA
Astelehen, asteazken eta ostiraletan

Euro eta erdiren truke, hilabeteko gimnasioa duzu!

Giartzun kirola egitea, zugan inbertitzea da.

K.O. Karatea - Joseba Izurrategi eta Dani Barbero - 2. eta 3. Kataluniako eta Madrilgo openetan.

Giartzuko karate-Kyokushin taldea

Izar, gerrikoa jasotzen

Rose Meri, garaikurra jasotzen

Defentsa pertsonala

Umeak jolasean

DUELA 10 URTE

2001-09-05

Arantzazuko seminarioa, kulturagune

Arantzazuko frantziskotarrek eta Eusko Jaurlaritzak hitzarmena sinatu zuten Arantzazuko seminarioa izandakoa kulturagune bihurtzeko. Juan Jose Ibarretxe orduko lehendakariak eta Jose Mari Arregi frantziskotarrak sinatutako itunaren bidez, 436 milioi emateko asmoa zuen Jaurlaritzak; horietatik, 52 milioi V. mendeurreneko kultura ekitaldiak laguntzeko ziren eta gainerakoa kulturagune berria egiteko.

Arregi eta Ibarretxe, sinatzen. | GORKA ETXABE

2001-09-07

Udal euskaltegia, Intxaurtxuetara

Eskoriatzako Udal Euskaltegiak egoitza berria estreinatu zuen 2001-2002 ikasturtean, Intxaurtxueta auzoan. Hara joan aurretik honakoa gogorarazi zuen Karmele Agirregabiria zuzendariak: "Herriko Plazako eraikin batean jardun genuen urte askoan eskolak ematen, baina baldintzak ez ziren batere egokiak, eta eskolak ez ematea erabaki genuen. Talderen bat osatuz gero, kultura etxean ematen genituen eskolak".

DUELA 5 URTE

2006-09-01

Narbaiza bota zuten

Bergarako Mekolaldeko Narbaiza ehungintzako enpresa zena botatzen hasi ziren industrialde berria egiteko; hain justu ere, Mekolaldetik Murinondorainoko gune berria egiteko asmoa zegoen. 2007an hasi ziren lehenengo enpresak hara joaten; tartean, San Lorentzon zegoen Tornilleria Deba enpresa.

HERRITARRAK

ESKORIATZA

Juan Carlos Zubia Buruan milaka istorio dauzkan eskoriatzarrari behin baino gehiagotan bururatu zaio herriko bitxikeriak liburu batean jasotzea; agian, noizbait irakurri ahal izango dugu hori. | MIRIAN BITERI

"Herriko bitxikerien gaineko liburua idazten hasi nintzen 1987. urtean"

Orain dela 62 urte jaio zen Juan Carlos Zubia Eskoriatzako udaletxean. Aita herriko aguazila zen eta txikitan han bizi izan zen. Garai hartako eta gaur egungo bizimoduaz egin digu berba datozen lerroetan.

Edozeinek ezin du esan udaletxean jaio eta bizi izan denik. Nolakoak dira garai hartako oroitzapenak?

Ni jaio nintzenetik bi bider berritu dute udaletxea eta ni jaio nintzen gela hor dago oraindik. Milaka oroitzapen dauzkat, jendea beti gora eta behera ibiltzen zen, eta bazkalorduetan egun hartako kontuak kontatzen ziren. Gainera, lehen gelatxo txiki bat zegoen, *kartzela* esaten geniona, eta bakar batzuk egon ziren barruan, eta haiek esandakoa entzuten genuen. Jaten ere guk ematen genien haiei.

Hori, udaletxeari dagokionez. Bestalde, plazan bizi izanda, beti ibiltzen nintzen kalean jolasean; milaka jolas genituen, orain desagertu egin direnak.

Orain erretiratuta zaude. Zertan ematen duzu denbora?

Musikarekin. Lagun batekin askotan joaten naiz kontzertuetara. Horretaz gainera, etxean badauzkat tresnak musika egiteko, hala nola klarinetea eta saxoa; perkusioa, orokorrean. 18 urte nituenean bandan sartu nintzen. Bestela, 1965. urtean-edo Los Kelwers izeneko musika taldean ibili nintzen. Ederlanetik irten zen izena; fundizioko hautsak dira.

Udalean ere bazabiltza aspaldi, soinu ekipoekin...

Hala da. Udalak antolatutako zerbait baldin badago eta beharra egonez gero, gertu nago. Elizan, erretiratuekin edo musika eskolakoen ekimenekin nabil; baita domekan musika jartzen ere.

Gustuko duzu musika entzutea?

Bai, denetarik; pentagraman sartzen den guztia. Oso gustuko dut musika zelta.

Etxafuego eta su artifizialekiko joera ere baduzu...

Musika edo etxafuegoak, zalantzan egongo nintzateke zein dudan gustukoen. Txapelketetara joaten naiz, Donostiara eta Gasteizera bereziki. Lehen, Iruñean ere izaten nintzen. Orduan ez zen txapelketarik egiten.

Koloretsuak, joko eta efektu askotarikoak izan behar dute su artifizialek, eta zaratatsuak; trakaren azken zatiak izugarria izan behar du. Eskoriatzan egindako azkenekoan, 50eko diametroko 300 bonba eta 70eko 400 bota genituen. Bestalde, oraindik gogoratzen dut 2006ko sanpedroetan egindako Piromusikala; gustura egingo nuke ostera ere, baina dirua behar da hako zerbait antolatzeko.

Zinemazalea ere bazara...

Hala da, eta efektu asko baditu, hobeto. Filmak etxean ikustea gustuko dut, baita zinemara joatea ere. Emaztearekin joaten naiz askotan; *La boda de mi mejor amiga* da ikusi dudan azkena.

Liburu bat idaztea gustatuko litzaizukeela entzun dut...

Joxe Aranburuzabala *Trankil* historialariarekin batera liburu asko izan nituen esku artean, eta horietan herriari buruzko gauza asko topatu nituen. 1987. urtean, zinegotzi nintzela, herriko bitxikerien gaineko liburu bat idazten hasi nintzen: *Cosas curiosas que en el siglo XX han ocurrido en Eskoriatza*. 40 orri egin nituen, eta baita gero apurtu ere. Gerora damutu egin naiz; buruan daukat liburua idaztea.

Bestalde, zer da Eskoriatzatik gehien gustatzen zaizuna?

Nire mundua plaza da, mendiak, arkeologia eta historia gustuko baditut ere. Mutikotan, parrokia atzetik ikusten den Eskoriatzako paisaia oso gustuko nuen.

Beste nonbaiten bizi izango zinateke?

Gasteizen. Herria eta hiria da; denetarik dauka eta polita da. Bartzelonara, aldiz, ez nintzateke joango, jende larregi dago-eta; are gehiago, uda partean. Udazkenean joatea gustatzen zait.

Juan Carlos Zubiaren jaiotzaren lekukoa izan zen herriko udaletxea. | MIRIAN BITERI

"Parrokia atzetik ikusten den herriko paisaia oso gustuko nuen mutikotan"

"Eskoriatzako udaletxean bizi nintzeneko milaka oroitzapen dauzkat"

Los Kelwers taldeko kideak; tartean, Juan Carlos Zubia. | JUAN CARLOS ZUBIA

NIRE HERRIAN

:) HERRIA TXUKUN IZATEA

Herria txukun dagoela uste du. Dena dela, Santa Marinako eta Intxaurtxuetako inguruneak txukuntzea ondo egongo litzatekeela dio. Haren arabera, "onena" horixe izango litzateke: "Herria oso ondo geratuko litzateke". Horrez gain, inguruetako mendiak eta udalerriko arkeologia eta historia azpimarratu ditu.

:(HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Juan Carlos Zubiaren iritziz, Eskoriatzan mugimendu txikia dago. Herritarren animazioa eta parte-hartzea igartzen du bereziki faltan. Horren harira, honakoa esan du: "Ni neu sartuta, nahiko hotzak gara. Azkenaldian jendea mugitu bada ere, mugimendu handiagoa egon beharko lukeela iruditzen zait".

BERGARA

Algodonera inguruko bidegorria ere, datorren asterako prest

- Udalak espero du hurrengo asteburuan zabalik izatea aste barruan lanak amaituta
- Mekolaldeko zatia abuztu erdialdean amaitu zuten eta dagoeneko erabilgarri dago

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Lanek martxa onean jarraitzen badute, Udalak espero du hilaren 10eko astebururako bidegorria erabilgarri izatea. Hasierako asmoa irailaren 1erako zabaltzea zen, baina abuztuko euriek sortutako eragozpenek eta opor egunen atzerapenek astebete luzatu dituzte lanak. Abuztuaren erdialdean hasi zuten Algodonerako zatia. Abuztuan amaitu gura zituzten lanak, eta, azkenean, atzerapen txiki batekin, hilabete eta erdiko iraupena izan dute lanek, eta azken lanak datorren astean burutzea espero dute.

Uztailaren 19an hasi ziren lanak, orduan itxi zuten errepidea, baina abuztu erdialderako bidea zabalik zegoen eta bidegorria erabilgarri, Lazpiur enpresa eta Gorostola baserriaren artean, hain zuzen, 600 metro guztira, txukundu berri. Asfaltoa botata, bidea egokitzea da egin dutena. Trenbide zaharraren bidea hartu du zati horrek eta ez da lur mugimendu handirik egin behar izan, industriarako gune laua da-eta izatez. Oinezkoen bidea ere bere horretan geratu da eta alboan egin dute, plataforma baten, bidegorria. Obra osoak, bi tarteenak, 159.600 euroko aurrekontua dauka eta Algodonera eta Mayc arteko zatiari ere Mekolaldeko lanak amaitu bezain laster heldu zioten.

Trenbideko zubi aurreko zatia, lanean diharduten tokia. | ANDER MONEDERO

"Behin-behineko" bidegorria

Lazpiur eta Gorostola arteko zatian egindako lana txikia izan da, lurra lautu eta asfaltoa bota dute, bestelako txukuntze edo argiztapenik ez dute ipini, baina "erabilpen handiko bidea" izanik egokitzea merezi zuela erabaki zuen Udalak. Industrialdea egiten dutenean beste bidegorri bat egingo dute, "beharrezko argiztapen eta egokitzapenekin", Eduardo Alvarezek azaltzen duen moduan, "baina gune industrialaren proiektuarekin batera erabakiko da non joango den etorkizuneko bidegorria".

Bidea itxita Algonoderan

Zati bat amaitu eta bigarrena bukatzear dago, hortaz. Mekolaldeko bide zatian ez bezala, baina, oinezkoek ez dute albotik igarotzeko biderik lanek irauten duten bitartean Algodonera inguruan, itxita baitago erabat bide osoa. Antia SLk eta Excavaciones y Obras de Diego SLk aldi baterako sortu duten enpresak egingo ditu zati horretan ere lanak. Tarte hori motzagoa da, 216 metrokoa, eta oinezkoentzako eta txirrindularientzako tarte zabala izango du, egun dagoen espaloia mantenduko dute-eta. Hala ere, inguruaren ezaugarriak direla-eta, lanak zailagoak dira. Hain zuzen, orain arte egon den ubide zabala estalita, horren gainean egokituko dute bidegorria, bi metro inguko zabalerarekin. Bide zati horrek izango duen berezitasuna izango da hori. Eduardo Alvarez udal teknikariak espero du datorren astean asfaltatzea egin eta lanak amaitzea astean zehar. Bidea ubide zaharraren gainetik egingo dute, mendi magalaren eta errepidearen artean dagoena, eta bizikleta erreiaren plataforma hor egingo dute, espaloiarekiko paraleloan, bi metroko zabalerarekin. Lanak egiteko, zuhaitzak eta argiztapena mugituko dituzte lur-mugimenduekin batera. Bidea itxita dago, bertatik ezin da pasatu, eta Zubiaurretik joan beharra dago, nahitaez, lanak amaitu artean.

Lanek, berez, irailaren 1erako beharko lukete amaituta, Alvarezek berak zehazten duenez, baina abuztu hasierako euriek eta osteko opor egunek atzeratu egin zituzten lehen zatiari dagozkion lanak". Algodonerako lanek, hala ere, martxa onean jarraitzen dutela diote Udaletik, eta hilaren 9rako amaitu eta datorren asteburuan zati hori ere erabilgarri egotea da espero dutena.

Mekolalden dagoeneko txukundu dute bidea. | ANDER MONEDERO

Mekolaldeko bidegorria, aldi baterako

Mayc eta Lazpiur arteko zatian bidegorria egin eta txukuntze lanak besterik ez dute egin. Arrazoi bat dauka horrek, Eduardo Alvarez teknikariak azaltzen duen moduan, eta da "aldi baterako bidea izango dela". Inguru horretan industria gunea egiteko asmoa dauka Udalak. Etorkizuneko planak dira horiek, baina. Hala ere, erabilera handia duen bidea izanik, Udalak erabaki zuen, behin-behinerako bada ere, bidea txukuntzea.

ESANAK

"Bidegorri berria egingo da industralde berriarekin "

EDUARDO ALVAREZ | TEKNIKARIA

Fagorren Garagartza auzoko lantoki ondoan egingo da biribilgunea; egunotan jo eta ke ari dira lanean. | JOKIN BEREZIARTUA

Fagor Garagartza ondoan biribilgunea egiten dihardute

Gutxienez 2012ko otsailera arte luzatuko dira lanak eta biribilgunea errepide ondoan joango denez, zirkulazioan eragozpen gutxi sortzea espero du Udalak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Fagorrek Garagartza auzoan duen lantokiaren ondoan biribilgunea egingo dute zirkulazioa arindu eta segurtasuna bermatzeko. Izan ere, puntako orduetan bereziki zirkulazio handia egoten da eta egungo bidegurutzea arriskutsua da batez ere lantokitik irteten direnen ibilgailuendako.

Abuztuaren 22an sinatu zen obren irekiera-akta eta ordutik UTE Arrasate deritzon enpresen elkartea dabil lanok egiten. Obra handia da, biribilgunea egiteaz gain, telefono, argindar eta gas sarea lekuz aldatu beharko dutelako. Eta ez hori bakarrik: bertatik pasatzen den errekatxoa ere desbideratu egin beharko dute. Hala, Udaleko Hirigintza Sailak ezin du zehaztu noiz amaituko diren lanak. Eta obretan diharduten langileek adierazi digutenez, gutxienez otsailera arte itxaron beharko da.

Aspaldiko obra da, Fagorrek Garagartzako lantokia handitu zuenetik datorrena. Orduan Udalak eta Fagorrek hitzarmena sinatu zuten biribilgunea egiteko eta dagoeneko Udalak jaso du Fagorrek emandako diru kopurua. Bada, atzerapenak atzerapen, martxan da proiektua.

Unean uneko mozketak

Lanak abenduan amaitzea jasotzen du kontratuak baina Udaleko Hirigintza Sailak jakinarazi du beranduago amaituko direla. Gabonen ostean izango dela bai, baina ez dakite esaten noiz amaituko diren zehazki.

Esandako moduan, biribilgunearen helburua da errepide tarte horretan sortzen den zirkulazio handia arindu eta segurtasuna bermatzea. Bestalde, obrek iraun bitartean ahalik eta eragozpen gutxien sortzea espero du Udalak. Izan ere, biribilgunea ez da egun errepidea pasatzen den leku berean joango –Aramaiotik Arrasaterako noranzkoan eskuinaldean joango da– eta beraz, unean uneko mozketak izango dira eragozpen aipagarrienak. Udalak ez du espero bidea moztu beharko denik, hau da, ez du bide alternatiborik aurreikusten.

MATRIKULA zabalik, 2011-9-30era arte
Goizez, 11etatik 1etara
Arratsaldez, 6etatik 8etara

Bekak Arrasateko Udalaren eta HABEren laguntzaz!

Kiroldegiko ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago

J.B. | ARRASATE

AUKEAk aurkeztu ditu 2011-2012 ikasturterako ikastaro berriak. Era guztietako jarduerak izango dira, adin guztiendako. Kiroldegiko eremu lehorreko ekintzak hilaren 19an jarriko dira martxan eta eremu bustikoak, berriz, urriaren 3an. Bestalde, umeen igeriketa ikastaroetan zozketa bidez zehaztuko da izen-ematea. Ikastaro horietan eskaerak eskaintza gainditzen du eta antolatzaileek aukera berdintasuna bermatu gura dute; irailaren 1etik 15era eman ahalko da izena.

Eskaintza zabala da oso: lehorreko ekintzei dagokienez, nagusiendako gimnasia berezietatik hasi, eta spinning edo body pump moduko intentsitate handiko ekintzetaraino. Gainera, kirola eta erlaxazioa uztartzen dituzten ekintzak ez dira faltako, hala nola pilatesa, tai txia eta yoga.

Izena emateko, bertara jo

Eremu bustian, bestalde, honako jarduerak eskainiko ditu AUKEAk: helduendako hastapen, hobekuntza eta estilo ezberdinetan oinarritutako igeriketa ikastaroak, haurrendako ikastaroak eta igeriketa egokitua. Haurdun daudenendako ikastaro bereziak ere antolatu dira. Azkenik, uretan egiteko gimnasiak –aquagyma– ez du hutsik egingo. Izena eman behar da kiroldegira bertara joanda.

Denetariko eskaintza: body pumpa, esaterako, intentsitate handikoa. | GOIENA

15 egunean zehar ogia doan lortzeko aukera, Ibai Arteri esker

J.B. | ARRASATE

Azken hilabeteetako ohiturari eutsiz, Ibai Arte elkarteak eskaintza berezia abiarazi du irailean: bezeroen artean 15 egunean zehar ogia doan banatuko du elkarteko kide diren hamar saltokitan. Bezeroen leialtasuna saritu gura du.

Ibai Arte txartela erabiliz

Merkataritza elkarteak egun bateko ogia doan jasotzeko 15 txeke banatuko ditu zozketa bidez Ibai Arte txartela erabiltzen duten bezeroen artean. Txartela erabiltzea, beraz, ezinbestekoa da. Erosketa ordaintzeko orduan datafonotik irteten den txartelean begiratu beharko dute bezeroek txekeak jasoko dituzten jakiteko.

Urriaren 31ra arte erabilgarri

Zortekoak izan diren bezeroek Olarte kaleko 29. zenbakian kokatuta dagoen Beinke saltokira joan beharko dute 15 txekeak jasotzeko. Urriaren 31ra arte izango dute txekeok trukatzeko aukera, honako hamar saltoki hauetan: Fruteria Perez –Maestro Guridi, 3–, Agirre-Etxe –Zarugalde, 33–, Autoservicio Fatima –Erguin, 3–, Solbes –Iturriotz, 11–, Landaluze –Iturriotz, 7–, Azpilikueta –Doctor Bañez, 10–, Salegi –Olarte, 20–, Feli –Okendo, 3–, Galburu –Olarte, 12– eta Izoztegi –Iturriotz, 7.

Arrasateko merkataritzaren alde lanean diharduen elkarteak aditzera eman duenez, irailaren 1etik 30era 100 sari zozketatuko dituzte.

Abuztuko oporraldien ostean, atzo ezkero ordutegi zabalagoa izango dute udal zerbitzu gehienek

Atzo ezkero ordutegi zabalagoa izango dute liburutegiak, BAZek, Udaltzaingoak, Gazte Bulegoak, Udal Euskaltegiak, kiroldegiak eta udaletxeak. Gehienek goiz eta arratsaldez zabalduko dituzte ateak. Iraileko lehen bi asteak bereziak izango dira. Liburutegiak, esaterako, itxi egingo ditu ateak eguerdian: 13:00etatik 16:00etara eta zapatuan itxita egongo da. Kiroldegian, berriz, aste bukaeretan udako ordutegia mantenduko dute. Zerbitzu gehienak hil amaieran hasiko dira neguko ordutegiarekin.

Zerkaosteta irailaren 5era arte itxita egongo da autoendako

Duela urte gutxi eraberritu arren, Zerkaosteta kaleko lurzoruaren egoera ez zen ona. Galtzada-harriak lekutik irtenda zeuden, besteak beste. Hala, arazo hori konpontzen dihardute uztail amaiera ezkero eta ordutik autoek ezin dute Zerkaosteta zeharkatu. Udalak espero du irailaren 5ean kaleak normaltasuna berreskuratzea.

Amenabar enpresa ari da konponketa lanetan, lurzoru hori eraiki zuen enpresa bera, hain zuzen.

Doke antzerki taldeak beste obra bati ekingo dio irailetik aurrera

Doke antzerki taldea beste obra bat prestatzen dabil ikasturte berrirako. Uztailean obraren irakurketa egin zuten, baina oraindik ez dituzte entseguak hasi; irailean hasiko dira. Taldeko kide Jose Mari Velez de Mendizabalek jakinarazi duenez, asmoa da lan berria datorren urteko maiatzean taularatzea. Itziar Rekalde izango da zuzendaria.

Hala, antzezlanean parte hartu gura duten herritarrek 688 64 50 85 telefonora deitu beharko dute.

Auzotarren afarian 100 lagun baino gehiago batu ziren mahaiaren bueltan, giro paregabean. | SERGIO AZKARATE

30 urteren ostean, geratzeko bueltatu dira Zarugaldeko jaiak

Jai batzordeak espero baino "askoz hobea" izan zen auzotarren erantzuna

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

30 urte jai barik egon ostean, denbora luzean geratzeko bueltatu dira Zarugaldeko jaiak. Joan den zapatuan, abuztuaren 27an, ospatu zen jaieguna. Abuztua izan arren, zarugaldetar asko oporretatik bueltan ziren ordurako, eta horietako askok bat egin zuten jaiegun bereziarekin.

Hiru hamarkadatan zehar hilda egon diren jaiak berpiztea lortu du jai batzordeak; hori bai, gogoz lan egin ostean. Adibide bat: auzotarren afarian 100 lagun baino gehiago batu ziren kalean bertan egokitutako karpan, eta haiendako guztiendako afaria egiteak meritu handia dauka: "Datorren urtean *catering* enpresa bat ekarriko dugu", adierazi du Amaia Gomez de Segura jai batzordeko kideak.

Itzulera, sorpresa atsegina

Antolakuntza taldea "oso pozik" dago auzotarrek izan duten erantzunarekin eta onartu dute aurreikusitakoa baino "askoz hobea" izan dela: "Balorazio guztiz positiboa egiten dugu. Jende ugari batu zen ekintza guztietan eta ekitaldi arrakastatsuena afaria izan zen; giro ona egon zen eta jendea ilusio handiarekin gerturatu zen".

Jolasen artean, oskol bilketa. | S.A.

Beraz, jaien itzulera sorpresa atsegina izan da antolakuntzakoendako: "Hasieran beldur pixka bat genuen, ez genekielako jendeak parte hartuko zuen edo ez, baina espero baino askoz hobeto joan da dena. Hala, hurrengo urteetan ere jaiak antolatzen jarraitzeko gogoa piztu zaigu. Gainera, egindako lana oso eskertua izan da eta horrek edonori ematen dio indarra eta ilusioa aurrera jarraitzeko. Hurrengo urtean ere jendea parte hartzera animatu gura dugu".

Egun osoan zehar moztuta egon zen Zarugalde kalea Muxibarko biribilguneraino. Izan ere, askotariko ekintzak antolatu zituzten kalean bertan: txupinazoa, umeendako jolasak, boloa, mus txapelketa, buruhandiak, triki-poteoa, afaria eta dantza.

Uribarri-Erguingo jaiak

Bestalde, datorren asteburuan, irailaren 9tik 11ra, Uribarri-Erguin auzoko jaiak ospatuko dira. Urtero legez, boloa, buruhandiak eta haur parkea izango dira Usaetxe plazan.

Eta noski, gazteendako rock kontzertua ere egongo da: La Madriguera –aurten ere ez dute kalerik egingo– eta Lined taldeek joko dute; hilaren 9an, 22:30ean hasita.

iKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

Ibai Bolinaga | Afizionatu mailako pilotaria

"Aurrelariak tantoak egin behar ditu eta atzelariak seguru jokatu behar du"

- Arrasatekoak hiru torneo irabazi ditu abuztuan
- Atzo zen jokatzekoa Lezoko finalerdia

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Ibai Bolinaga (Arrasate, 1991) ez dago abuztuan kiloren bat edo beste hartu izanagatik arduratuta: "Ez dut halako arazorik izan, asko jokatu dut-eta", dio, barrez. Gehienondako oporraldia, Arrasatekoa batera eta bestera ibili da, torneo pribatuetatik jasotako gonbidapenak aprobetxatzen. Eta aprobetxatzen diogu, guztiei atera dielako zukua; gehienetatik txapelarekin itzuli da, Errenterian, Getarian eta Antiguon irabazi du. Atzo jokatu zituzten Euskal Herriko afizionatu mailako hamabi pilotari onenek Lezoko torneoko finalerdiak; tartean zen Bolinaga.

Abuztua, ondo aprobetxatuta?

Bai, inoizko abuztu onena izan dudala esango nuke, nire maila onenetik gertu egon naizelako, eta hiru torneo irabazi ditudalako.

Gabonetan izandako arazo fisikoek ez dute denboraldia inondik inora ilundu.

Ez, atseden hartu behar izan nuen, eskuetako minaz jokatzen ez nuelako jarraikortasunik, eta halakoetan konfiantza galtzen delako. Udaberrian hasi nintzen errekuperatzen, Gipuzkoako selekzioaz jokatzen hasi nintzenean. Jarraikortasuna izatea ezinbestekoa da pilotari batendako.

Abuztuan bakarrik ez, denboraldian zehar ere hainbat txapel irabazi dituzu –Lezon ala Getxon, esaterako–. Txapel guztien artean, zeinek egin dizu aparteko ilusioa?

Antiguon irabazitakoak, izen handigo torneoa delako. Harmailetan jendetza batu zen, eta Arrasatetik jende asko joan zen partidua ikustera. Gainera, telebistaz ere eman zuten partidua eta bikoteak eta biok partidu txukuna egin genuela uste dut.

Entzun dugu Errenteriako finalean zaleak aulkitik altxarazi zenituela.

Beno... Egia esan uste baino errazago irabazi genuen final hura, eta bai, han ere partidu txukuna egin genuen.

20 urte bete dituzu, pilotalekuan geroago eta sendoago ikusten duzu zeure burua?

Bai, bagoaz gauza berriak ikasten. Esaterako, lehen pilotakada bakoitza indarrez ematen ahalegintzen nintzen, baina orain, esaterako, ikasi dut indarrak gordetzen, baina hala ere, pilotakadak segurtasunez ematen.

Gazteago zinenean zure gorpuzkerak abantaila ematen zizun. Orain, zu baino pilotari handiagoak izaten dituzu ondoan, baina joko mailan ez duzu behera egin.

"Joko mailari dagokionez inoizko abuztu onena izan da niretako"

Orain besteak ni baino handiagoak dira [Barre]. Afizionatu mailan gorpuzkeran ez dago gazte mailan egoten den aldea, eta hor pilotari bakoitzak bere arma propioak erabiltzen ditu, edo azkartasuna, edo kolpe ona...

Eta zeintzuk dira Bolinagaren puntu indartsuak?

Esango nuke orain momentuan segurtasuna dela daukadan gauza onena. Gorputzaldi onean banago eskuinarekin kolpe ona dudala uste dut, baina atzelari batendako seguru jokatzea da garrantzitsuena. Aurrelari batek tantoak egin behar ditu, baina atzelariak seguru jokatu behar du.

Debagoienean, azkenean, pilotari batek egin du profesionaletara salto, Mendizabalek.

Asko pozten naiz harengatik; gainera, udan hainbat partidutan ikusi dut, horietako bat pilotalekuan bertan, eta maila ona eman duela uste dut.

Badirudi ezin dugula elkarrizketarik amaitu profesionalismoaz galdetu barik. Aurrekoan erantzun zenidan ez dela lehentasuna.

Eta orain ere berdin erantzungo dut. Aurrekoan komentatu zenidanean afizionatuetara salto egin berria nintzen, eta oso urrun ikusten nuen aukera hori. Orain ere antzera; ondo banabil ere nagusiek egurra ematen didate [Barre]. Gutxik egiten dute saltoa.

Ibai Bolinaga, aste barruan, Arrasaten. | XABIER URTZELAI

Beñat Barberena etxera itzuliko da, Azpeitiko Iraurgin jokatzera

X.U. | ARRASATE

Arrasateko saskibaloi jokalariak zilarrezko LEB mailan jokatuko du aurtengo denboraldian, Azpeitiko Iraurgi taldeak fitxatu du-eta. Hala, Valentzian egindako egonaldia amaituta –Power Electronics taldean–, Barberenak uztailean adierazi zion Goienari oraindik argitzeke zuela etorkizuna. Bada, azken urteak kanpoan jokatzen egin eta gero, etxe ondoan jokatuko du, Azpeitian.

Uztailean egindako elkarrizketan Barberenak adierazi zuen azken urtean aurrerapauso handia egin zuela. Hala, kantxa barruan izandako hobekuntza horiei esker jaso zuen udan Pablo Lasoren deia –Euskal Selekzioko hautatzailea– selekzioarekin Argentinara joateko hainbat lagunarteko jokatzera. Han, beste talde batzuen artean, txapeldun olinpikoaren aurka neurtu zituzten indarrak, eta aurrean izan zituzten, besteak beste, Nocioni edota Ginobili moduko gizonak. Argentinan zegoela etxeko taldearen webgunean eman zuen fitxaketaren berri, Arrasatekoak gaztetan entrenatzaile izandako Jose Mari Baltzategiren deiari erantzunda (ointxe.com).

Azpeitian izango duen erronka berriaren gainean, Barberenak zilarrezko LEB kategorian jokatzea "gogorra" izango dela adierazi du, baina esperientzia berriari ekiteko irrikan dagoela.

Baieztatzea falta bada ere, Iraurgiren eta Aloña Mendiren asmoa da irailaren 8an lagunartekoa jokatzea Oñatin.

Barberena, uztailean. | JOKIN URIBETXEBERRIA

Ford Mugarrik entrenatzaile berria izango du: Ane Herrero

X.U. | ARRASATE

Edu Orgazek hiru urte egin ditu Arrasateko eskubaloi taldeko lehen taldea zuzentzen, eta, atseden hartzeko erabakia hartuta, Ane Herrero gazteak hartuko du haren lekua.

Ane Herrerok 20 urte ditu, eta gaztea izan arren badu esperientzia, Arrasate, Aloña Mendi eta Akaba Bera Bera taldeetan jokatu du-eta. Horrekin batera, Gipuzkoako, Euskal Herriko eta Espainiako selekzioekin ere jardun du arrasatearrak. Aurreko denboraldian kadeteekin ibili zen lanean, eta, Orgazek eskatuta, Ford Mugarrik igoera fasea jokatu duen bitartean Herrerok lehenengo taldea bertatik bertara jarraitu du.

Eskubaloia, etxetik hasita

Herrero abizena Arrasateko eskubaloiari lotua dago, *Pitxi* Herrero senaren seme-alabek aitak maite zuen kirolari heldu ziotelako txiki-txikitatik, eta orain alabari egokituko zaio urte askoan aitak bete zuen lekua betetzea.

Bestetik, Edu Orgazek merezitako atsedena izango du, azken hiru denboraldietan urtetik urtera taldearekin geroago eta lan hobea egiten ibili eta gero. Maila horri eustea da erronka.

Zirkua, antzerkia eta dantza batuko dituzte Herriko Plazan gaur

Argentinako Circo Alboroto taldean arrasatear jatorria duen Alejandra Zeziagak parte hartzen du

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Circo Alboroto taldeak *Un poco de cordura en medio de tanta locura* ikuskizuna ekarriko du Herriko Plazara. Argentinako taldea da Circo Alboroto eta lau lagunek osatzen dute. Umorea ardatz hartuta ikusleak barrezka jartzea izango da argentinarren helburua. Ikuskizunak 45 minutu iraungo du.

Zirkua dute ogibide

2006an sortu zuten Alboroto taldea. Taldeko lau kideek zirkua dute ogibide azken urteetan; eta Argentinan, Mexikon, Espainian eta Euskal Herrian zehar ibiltzen dira euren ikuskizunak eskaintzen. Kale ikuskizuna da gehien egiten dutena, baina aretoetan ere aritu izan dira.

Zirkuko teknika da euren ikuskizunetan gehien erabiltzen dutena, eta horri gehitzen dizkiote dantza, antzerkia eta *clown* teknikak.

Bi gizon eta bi emakume

Beste mundu batera, errealitate zentzugabe batera eramango dituzte ikusleak Alboroto taldeko kideek. Bi emakume eta bi gizonezko irtengo dira taulara: Rula, Mumina, Cartucho eta Tle Tle. Giza piramideak, malabarismoa, oihaletan gora igo... denetarik egingo dute lau pertsonaiek. Gainera, ikusleen laguntza beharko dute protagonistek. Adin guztiei zuzendutako ikuskizuna izango da.

Eskuineko emakumea da Alejandra Zeziaga. | COMPAÑIA ALBOROTO

Jatorri arrasatearra

Alboroto taldeko partaideetako bat, Alejandra Zeziaga, arrasatearra da jatorriz. Rafael Zeziagaran alaba da, eta Ricardo Zeziagaren biloba. Rafael eta Ricardo Arrasaten jaio ziren, baina Argentinara joan ziren ondoren.

'Anomalia magnetikoa' Markeliñeren eskutik

Bihar, zapatua, 22:30ean Herriko Plazan eskainiko du kale ikuskizuna Markeliñek

A.E. | ARRASATE

Sistemari autopsia alegorikoa egingo dio Markeliñe taldeak *Anomalia magnetikoa* ikuskizunean. Euskal Herriko kale antzerkian adituak dira Markeliñe taldeko kideak.

Porrot kolektiboaren zergatia adierazteko ezer gutxi behar dela erakutsiko dute Herriko Plazan. Eszenaratze eta musika arina eta oihal bat besterik ez dute erabiliko euren lana eskaintzeko Markeliñeko kideek.

Irudimenezko esperientzia

Markeliñe taldeko kideek honela azaltzen dute euren azken lana: "*Anomalia magnetikoa* irudimenez betetako esperientzia plastiko eta eszeniko azkarra da". Istorioan kontatzen denak madarikazio poetiko probokatzailera eramango ditu ikusleak, euren esanetan: "Bizitza gauza serioa zen, baina beranduegi konturatu ginen horretaz", diote.

Istorioan zehar galdera batera iritsiko dira: bilakaera fisikoaren ondoren gizakiak funtsezko bidegurutzea aurkituko du: Lurra da nire jabea ala ni naiz Lurraren jabe? Oraindik amaitu gabe dagoen bilakaera etikoa azalduko digute.

Eboluzioa abiapuntutzat hartuta Suwamish tribuko buruak 1855ean AEBetako presidenteari lurrak erosteko zuen asmoaren gainean emandako erantzunaren zatiak eskainiko dituzte istorioan.

Lau protagonista

Sandra F. Agirre, Itziar Rekalde, Jon Koldo Vazquez eta Fernando Barado dira kale ikuskizuneko protagonistak.

Anomalia magnetikoa laneko une bat. | MARKELIÑE

Irailean kontzertu akustikoak eskainiko dituzte Kulturateko areto nagusian

Udazabal programa amaituta, gertu du Udalak iraileko kultura agenda

A.E. | ARRASATE

Udaleko Kultura Sailak dagoeneko gertu dauka iraileko kultura gida. Bada, aipagarrienak dira irailean zehar Kulturateko areto nagusian eskainiko dituzten kontzertu akustikoak.

Bi aste bukaeratan

Datorren egubakoitzean hasiko dira kontzertuak. Napoka Iriak eskainiko du kontzertua, 20:00etan. Jendaurrean grabatutako lan berria eskainiko dute; hain zuzen, urtarrilean Bergarako Zabalotegi aretoan grabatutako lana. Kantu zaharrak, berriak eta bertsioak eskaini zituzten Zabalotegi aretoan eta han eskainitako hamar abestik osatzen dute lan berria. Gitarra elektrikoa, akustikoa eta ahotsa dute lagun Napoka Iria taldeko kideek.

2005ean sortutako taldea da Napoka Iria.

Hurrengo kontzertua zapatuan izango da, hilak 10. Litoral taldearen doinuak entzuteko aukera egongo da Kulturaten. Pau Roca buru duen talde berria da Litoral. Mugimendu handia duen taldea da; izan ere, euren leloa da musikari bakoitzak bere instrumentua mugitzeko gauza izan behar duela.

Keu Agirretxea, hilaren 18an

Hilaren 16an Mamy Wata taldeak eskainiko du kontzertua. Erritmo eta dantza afrikarrak ekarriko dituen taldea da. Dea da taldeko abeslaria.

Hilaren 17an Bilboko Manett taldeak eskainiko du kontzertua. *Suburbia* lana eskainiko dute, folk-pop doinuak dituzten abestiak.

Amaitzeko, Keu Agirretxeak *Fignuh Experience* proiektua aurkeztuko du. Gitarrista aparta da Agirretxea, eta azkenaldian konposatu ere egiten du.

Kontzertu guztiak Kulturateko areto nagusian izango dira, 20:00etan. Musika lasaiaz gozatzeko aukera paregabea.

La Banda del Abuelok Otxandion joko du bihar, zapatua

Spaghetti rock doinuak egiten dituen talde arrasatearrak Otxandioko gaztetxean eskainiko du kontzertua bihar, zapatua. Irailaren 17an, ostera, Bergaran jardungo dute, Laino tabernan. Gainera, *Un hombre llamado caballo* filmeko irudiak eskainiko dituzte.

'Mundu hobe batean' filma eskainiko dute gaur Monterronen

Udako zinemaren barruan, *Mundu hobe batean* drama eskainiko dute Monterronen gaur, 22:30ean. Susanne Bier zuzendariak gidatu du filma; 112 minutuko iraupena dauka eta 7 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Datorren egubakoitzean Shawn Levyren *Noche loca* eskainiko dute.

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

BASATI
TABERNA
943 71 17 68

Dantza egitea gustuko duenak –ume zein nagusi– aukera aparta izango du *Herrixa dantzan* egitasmoarekin. | J.A.

Plazako dantzak bultzatzeko, ume eta nagusiendako saioak

Jardunek ikastaroa antolatu du eta Udalak doako saioak domeketarako

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Dantzazaleek gorputza mugitzeko aukera paregabea izango dute datozen hilabeteetan.

Alde batetik, Jardun elkarteak plazako dantzen ikastaroa antolatu du berriz, aurreko ikastaroek izandako arrakasta ikusita. Beste aldetik, fandango tailerra eta *Herrixa dantzan* izeneko dantza saioak antolatu ditu Udaleko Kultura Sailak.

Plazako dantzak, Jardunekin

Plazako dantzen ikastaroari dagokionez, irailaren 27an hasi eta ekainaren 12an bukatuko dira. Eskolak martitzenetan izango dira, gaztelekuan, eta mailaren araberako hiru talde egongo dira: hastapen maila, 18:30etik 20:00etara; bigarren maila, 18:30etik 20:00etara; eta hirugarren maila, 20:00etatik 21:30era.

Interesatuek Jardun euskara elkartearen bulegoan, *jardunkultura@topagunea.com* e-posta helbidean edo 943 76 36 61 telefono zenbakian eman dezakete izena. Ikastaroaren prezioa 16 euro da hileko –14 euro, elkarteko bazkidea izanez gero.

Domeketan, dantzara!

Herrixa dantzan izeneko dantza saioak ere antolatu ditu Udaleko Kultura Sailak, dantzazaleendako. Patxi Montero irakasleak gidatutako dantza saioak dira eta urrian hasi eta abendura arteko hileko bigarren domeketan izango dira, Zabalotegi aretoan. Saiook doan izango dira, gainera.

Lehenengo saioa urriaren 9an izango da; bigarrena, azaroaren 13an; eta hirugarrena, abenduaren 11n. Saiook bikoitzak izango dira: 18:00etan, batez ere haur eta gurasoek elkarrekin egiteko dantzak izango dira; eta 19:00etan, batik bat, helduendako dantzak izango dira.

Fandango tailerra ere bai

Aiko taldeko ordezkariek emango duten fandango tailerra ere antolatu du Udalak irailaren 11rako. Fandangoan sakontzeko tailerra izango da, 18:30ean, Zabalotegi aretoan, dohainik, eta interesa duten guztiek har dezakete parte.

Astelehenean, hilak 5, hasiko dira danborradetako entseguak

M.B. | BERGARA

Hilaren 5ean hasiko dira San Martin jaietako danborradetako entseguak. Aurten, gainera, Martinez de Irala eskolako gimnasioan egingo dituzte saioak, Seminarioan obratan dabiltza-eta. Elkarte bateko kide izan edo ez, edonor joan daiteke entseguetara.

19:00etan hasiko da haurrena eta 20:00etan helduena. Entseguak honako egun hauetan izango dira: hilak 5, 6, 7, 8, 12, 13 eta 14.

Nagusien danborradari dagokionez, irailaren 15ean 22:30ean izango da eta haurren danborrada, berriz, 16an, San Martin Agirre eguna, 18:30ean.

Olio-dastatze ikastaroa ere bai

San Martin jaien bueltan, olioa dastatzeko hastapen ikastaroa ere antolatu du Udalak.

Irailaren 7an izango da, 18:00etatik 21:00etara, Irizar jauregian –gazteleraz izango da.

Ikastaroa doan da eta gehienez 30 lagunendako lekua egongo da –bergararrek lehentasuna izango dute–. Hori horrela, plaza kopurua baino jende gehiagok izena emanez gero, zozketa egingo da irailaren 5ean.

Izena emateko 943 77 91 59 telefono zenbakira deitu behar da asteleheneko 12:00ak baino lehen.

'Egubakoitzak kartzelan' musika saioak iralean ere egingo dituzte

M.B. | BERGARA

Egubakoitzak kartzelan egitasmoak izandako arrakasta ikusita, irailerako bigarren edizioa prestatu dute gaztetxeko kideek. Hori horrela, iraileko egubakoitz guztietan kontzertu lasaiak izango dira kartzela zaharreko kanpoko agertokian.

Gaur, irailak 2, izango da lehen saioa eta Civil Love eta Giorgio Bassmatti bakarlarien musikaz gozatzeko aukera izango da. 22:00etan hasiko da eta sarrera 3 euro da. Txapa Irratiaren bidez ere emitituko da zuzenean FMko 97.2 dialean eta streaming bidez *www.txapairratia.org* webgunean.

Beste sei bakarlari

Irailaren 9an Mikel Urdangarin eta Ubera auzoko Ekaitz Aranberri bakarlariek egingo dute emanaldia. Bergararrak Irlandako folkaren influentzia ezkutatzen ez duen arren, euskal identitatea eta rockero izaera oso presente daude haren bertsio eta kantu propioetan.

Irailaren 23an, berriz, Napoka Iria eibartarra eta Mara laudioarra etorriko dira gaztetxera eta 30ean, Azkaiter Pelox eta Saioa.

NIRE USTEZ

MAIALEN MADARIAGA

Jaitik jaira

Galbidera naraman lagunen bat edo bestek bultzatuta, tamaina desberdinetako jaiak ezagutzeko aukera izan dut aurtengo udan. Suzko erruberekin zerua margotzen duten hiri handietatik hasita, hiru etxafuego aski dituzten auzoetako jaietaraino.

Azken hauek nahiago ditudala esatera ausartuko banintz, lagunetako batek Bilboko parranda on hura gogoraraziko lidake. Hala ere, lau baserriren inguruan antolatzen diren horien alde egiteko arrazoiak ere baditut.

Polita da hogei metro koadroren bueltan elkarren artean hain desberdinak diren auzotarrak batera ikustea. Barra ondoan, txapela lotarako ere kentzen ez duen aitona. Beste aldean, aitonaren bordako errenta ordaintzeko lanak dituen gazte mileurista, eta metro batera, baserri zaharraren paretek ezkutatzen duten jauregian bizi den markesa. Bakoitza bere erara, baina musika berberaren erritmoan dantzan, eta lapiko beretik jaten.

Ia argirik ere egiten ez duten kolore berde eta gorridun lau bonbilla, edari askoko barra txiki bat eta trikitilari bikote baten aurrekontu apala dute auzoetako jaiek. Azken urteotan zoritxarrez, jendea bertaratzea izaten da garestiena.

Aurrekontuak aurrekontu, esan nezake ez dagoela auzoetako jaiak baino jai herrikoiagorik, eta hori aski arrazoi dela hauen alde egiteko.

"Ez dago auzoetako jaiak baino jai herrikoiagorik"

GOIERRI
Autogidarien Eskola
Gidabaimena euskaraz zein gazteleraz atera dezakezu
Informa zaitez
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

MIZPILDI
OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Mujika
gozotegia
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

KARATE SHOTOKAN, KIROLA ETA ZERBAIT GEHIAGO

Karatea kirolik berebiziko eta osoenetarikoa da, beste kirol asko baino onuragarriagoa baita alde fisiologikotik begiratuta.



Umeek atarramentu handiagoa lor dezakete ikasketetan eta gizarte harremanetan.

Karatea kirol lehiakorra dela onarturik, geure ikasleak lehiatzera ere bultzatzen ditugu pixkanaka, betiere era positiboan eta motibazioa handitzeko asmotan.

Kirolariek, banaka edo taldean, erabat kontziente izan behar dute euren lorpenez eta euren helburuez

Lagunartekotasuna, adeitasuna eta sexuen arteko berdintasunean erreparatuz.

IKASLEEN GARAPENA NEURTZEKO PROGRAMA BAT DUGU ABIAN
Programa horrekin ikasle bakoitzaren egoera fisikoa eta garapena neurtuko dugu. Bakoitzak ikus dezan ze aukera dituen.



IRAKASLEAK
Irakasle aditu eta gaituak ditugu edozein talderekin jarduteko. Guztiak tituludunak: Euskal Kirol Eskola, Euskal Karate Federazioa eta Kirol-kontseilu Gorena.

Konfiantza eta segurtasuna hartzen dira eta osasuna eta sasoi ona.

Kontzentrazioa lantzen da, Errespetua eta gizatasuna bultzatzen dira,

Karate eskolak IRAILAREN 12an hasiko dira:
Astelehen, asteazken eta ostiraletan.

Umeak: 1. txanda, 17:30etik 18:30era
2. txanda, 18:30etik 19:30era

Nagusiak: 19:30etik 20:30era

Harremanetarako deitu 615 79 90 78 telefonora, bergarako.shotokan@gmail.com helbidera idatzi edo zatoz Bergarako Ipintza Institutuko DBH eraikuntzako gimnasiora entrenamendu orduetan.

Datorren eguenean, hilak 8, irekiko dute gaztelekua, oporren ostean

Gazteen artean "harrera ona" izan duela eta "gazte askotxo" joaten dela esan dute udal arduradunek

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Abuztuko oporraldia bukatu eta gero, eguenean, hilaren 8an, zabalduko ditu ateak gaztelekuak. Eguenetik domekara egongo da zabalik, honako ordutegian: eguen eta domeketan 17:00etatik 20:00etara eta egubakoitz eta zapatuetan 17:00etatik 21:30era.

Ekainaren 16an ireki zuen Udalak gaztelekua 12 urtetik gorakoendako eta "gazteen artean harrera ona" izan duela aurreratu dute udal arduradunek; eta "gazte askotxo" joan izan dela ere bai.

Askotariko ekintzak

Ping-pong eta mahai-futbol txapelketak, pintxo lehiaketa, afaria, eta Gamarrako igerilekuetara irteera egin dituzte, besteak beste, ekainaren 16tik abuztuko oporraldirako gaztelekua itxi zuten arte.

Mutil koadrila ping-pongean. | GOIENA

Uztailari dagokionez, aipatzekoa da gazteek igerilekura joan nahi zutenez gaztelekuaren ordutegia ere moldatu egin zutela haien nahietara. 18:30ean ireki zuten, hain zuzen ere.

Udal arduradunen esanetan, hilaren 8tik aurrera zer egingo duten ere gazteekin batera erabakiko dute, "gustu guztietarako ekintzak" egin nahi dituztelako.

Bestalde, Udaleko Gazteria Sailetik gogora ekarri dute denbora faltagatik uztailean egiteke geratu ziren ekintzak ere badaudela. Hauexek, hain justu ere: grafiti tailerra eta kontzertu bat.

'Baietz lortu!' umeendako ikuskizuna eguenean

M.B. | BERGARA

Jardun euskara elkarteak antolatuta, Monda eta Lironda antzerki taldeak *Baietz lortu!* ikuskizuna egingo du eguenean, hilaren 8an, 18:30ean, Irala kalean.

Ikuskizuna 4 eta 12 urte arteko umeendako da eta barre egiteko aukera ugari izango dute bertaratzen direnek.

Monda eta Lironda dira ikuskizunaren protagonistak. Bidaia berezi bat egin ondoren elkar ikusteko hitzordua egin dute. Elkartzerakoan konturatu dira Mondarentzat gauza asko egon direla bidean, baina Lirondarentzat, aldiz, ezer ere ez. Publikoaren laguntzarekin Monda saiatuko da Lirondak espero ez duen zerbait egiten. Lortuko du?

Ibargaraiko eta Zurraderoko zirkulazio antolamendu berria martxan dago

M.B. | BERGARA

Oporretatik bueltan, Ibargarai eta Zurradero kaleetako zirkulazio antolamendu berria martxan dago, guneko trafikoa aritzeko helburuarekin. Ibargarai –4. eta 14. zenbakien artean– eta Zurradero kaleek biribilgune funtzioa dute orain. Hori horrela, Fraiskozuritik datozen autoek eskuin aldera egin behar dute eta handik Zurradero edo Matxiategira. Zurradero kale amaieran, Multiopticas Larrañagaren parean ezkerrera edo eskuinera egin dezakete eta puntu horretan lehentasuna izango dute Ibargaraitik datozenekiko: ezkerrera egingo dute Fraiskozurirantz edo parking publikora joateko; eskuinera, palmondorantz joateko.

Miguel Altuna pareko semaforoei dagokienez, zerbitzuz kanpo geratuko dira, kendu egingo ez dituzten arren. Hala ere, Udaletik aurreratu dute egun batzuetan keinuka jardungo dutela, herritarrak antolamendu berriarekin ohitu arte. Era berean, udaltzainak ere egongo dira.

Autoak baterian aparkatuta. | GOIATZ ARANA

Aparkalekuak, baterian

Bestelako aldaketak ere eragin ditu gunearen antolaketa berriak: hain justu ere, autoa baterian lagatzeko aparkalekuak margotu dituzte Ibargaraiko tarte horretan, etxeen kontra.

Antolaketa berriak dagoeneko eragin ditu herritarren kexuak. Horren aurrean, Udaletik esan dute, batetik, halako aldaketetara ohitzeko denbora behar izaten dela, eta bestetik, erabilerak erakutsiz gero akatsak daudela, horiek aldatu egingo dituztela.

OHARRAK

1971N JAIOTAKOEN IRTEERA ERRIOXARA

Irailaren 24an egingo dute. 09:30ean abiatuko dira Fraiskozuritik, eta 21:00etan itzuli. Izena emateko azken eguna irailaren 8a da, Depor tabernan, 20 euro aurreratuta. Itzultzean afaria egongo da Santa Ana elkartean.

HITZALDIA SAN JOXEPEN HILAREN 5EAN

Kutxak antolatuta, *El humor y la salud* delako hitzaldia egongo da elkartearen areto nagusian, 17:00etan.

ALDAI-EGIAKO ZENBAKI SARITUA ATERA DA

Aldai-Egia auzoko San Kristobal jaietan egindako zozketako zenbaki saritua 1.785 izan zen eta Loidi-Bolu baserriko Felix Etxeberriari egokitu zitzaion. Orioko Aisia talasoterapian bi lagunendako egonaldia irabazi du.

MUSIKA ESKOLAN 6AN HASIKO DUTE IKASTURTEA

Martitzenean, hilak 6, hasiko da ikasturtea Musika Eskolan eta instrumentuen eskoletarako ordua hartzeko hilaren 5ean joan beharko dute ikasleek. Horrez gain, ikasturte berriko zerrendak sarrerako taulan daude ikusgai, arratsaldez. Bestalde, izena eman daiteke ikasgai hauetan hilaren 15era arte: musika eta mugimendu tailerra (5 eta 6 urte arteko haurrendako); hizkuntza musikala (7 urtetik gorakoendako); helduen hezkuntza musikala; eta hasiberrien abesbatza (5 eta 9 urte artekoendako).

AUTOBUSA ZARAUZKO EUSKAL JAIRA JOATEKO

Hilaren 9an Zarauzko Euskal Jaira joateko autobus zerbitzu berezia jarri du Pesak. Eskoriatzan (10:15), Aretxabaletan (10:25), Arrasaten (10:35) eta Bergaran (10:50) geratuko da eta Zarautzera egingo du bidaia zuzenean autobidetik. Bueltarako, 21:15ean abiatuko da Zarauztik eta zuzenean etorriko da. Txartel bakarraren erabiltzaileek ohiko txartelaren prezioaren gainean % 40ko deskontua izango dute.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

Etxekoek eroan zuten Bergara Hiria futbol torneoa

Bergarak eroan zuen joan den asteburuan Bergara Hiria udako torneoa. Agorrosinen jokatu zuten ibarreko lau futbol talde nagusiek, Mondrak, UDAk, Aloña Mendik eta Bergarak. Domekako finalean Bergara eta Aloña Mendi aritu ziren nor baino nor gehiago, eta bergararrak nagusitu ziren, 3-2. Baltzategik, Arazkonagak eta Matxok sartu zituzten etxekoen golak. Gainera, Bergarako Aitor Oregi izendatu zuten txapelketako jokalaririk onena.

Antxintxika lasterketa azaroaren 5ean, aurten patinatzaileekin

Azaroaren 5ean egingo dute Antxintxika Triatloi Taldeko lagunek Olatz Rementeria memorialaren VII. edizioa, Antxintxika lasterketa –Soraluzetik Bergarara 10 kilometro–, baina antolatzaileak lanean dira uztaila ezkero. Iaz gurpil-aulkian dabiltzan atletak izan ziren nobedadea, eta aurten patinatzaileak hartuko dituzte, besteak beste, herrian bertan Hanka Labanka patinatzaile talde sendoa dagoela aprobetxatuta. 800 lagun espero dituzte.

Aristi, ezkerrean lehena, eta Lizarralde, azkena, uztailean Ordizian egindako taldekako erlojupekoan. | TXIRRINDULARI.NET

Aristi eta Lizarralde Bejarren lehiatuko dira, euskal selekzioaz

Espainiako txapelketa barruan domekan egingo duten lasterketan izango dira

XABIER URTZELAI | BERGARA

Espainiako gazte mailako txapelketa hasiko dute gaur bertan Bejarren (Salamanca), eta erlojupeko saioarekin hasiko dute hitzordua. Bergarako ordezkariak, baina, ez dira proba horretan egongo, Sumofic-Lokatzako Mikel Aristik eta Eneko Lizarraldek domekako lasterketarako gordeko dituzte-eta indarrak. Hala, Bejarko inguruetan egindako zirkuituari bost itzuli eman beharko dizkiote (117 kilometro).

Aristi, faborito

Egiten dabilen denboraldia ikusita, eta Danimarkan erakutsi berri duen gorputzaldiaz, garbi esan genezake Mikel Aristi izango dela gainontzeko ziklistek gertutik jarraituko duten txirrindularietako bat: "Estatuko selekzioarekin egoteak kategoria horretan sartzea ere badakar. Mikel gogotsu dago Danimarkatik etorri berritan, eta, Bejarko lasterketak izango duen profila ikusita, lasterketa gogoko du. Gainera, kontrarioak ere oso ondo ezagutzen ditu; izan ere, selekzio-kide izan ditu Danimarkan", adierazi du Sumoficeko entrenatzaile Iker Sanchezek. Noski, Aristik Hector Saez, Francisco Jose Medina, David Casillas eta Joaquin Torres selekzio-kideak ezagutzen dituen neurrian, aurrean ibiltzeko hautagaiek ondo dakite Bergarakoa zer egiteko gauza den, eta ezustea emateko tarte txikia izango du.

Urrutitik saiakera

Aristi gertutik zainduko duten neurrian, baliteke Lizarralde askeago ibili ahal izatea, ezusteetarako tarte handiagoaz: "Enekok urrutitik saiakera egin dezake, denboraldian zehar erakutsi duen moduan ihesaldietan sartzen badakielako, eta baita ihesaldi horietan ondo mugitzen ere. Ea bergararrek lasterketa ona egiten duten eta esperientzia on hau aprobetxatzen duten".

Espainiako txapelketaren ostean munduko txapelketa da geratzen den hitzordu handietako bat; gazteen hautatzaileak ez du zerrendarik aurreratu.

ariznoa elkartea

2011-2012
KURTSO HASIERA

Alebinak, infantilak, kadeteak eta gazteak (5. mailatik gorakoak):
Irailaren 2an, 18:00etan, Labegaraietan

•

Aurrebenjaminak eta benjaminak (5 urtetik 4. mailara artekoak):
Irailaren 20an, 17:30ean, Ipintzan

•

Antzuolako taldea:
Irailaren 21ean, 14:30ean, frontoian

ariznoa elkartea bergara
www.ariznoaelkartea.com

Matrikula berrientzako bilera informatiboa
Irailaren 13an, 17:30ean, Ipintza DBHko anfiteatroan

Harremanetarako: *ariznoa_ge@hotmail.com* | 600 22 40 49

Hiru irakasleek segituko dute euskaltegian lanean

Oraingo udalbatzak atzera bota du aurreko udal ordezkariek apirileko osokoan hartutako erabakia

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Udal euskaltegian diharduten hiru irakasleen lanpostuak mantendu egingo ditu Udalak. Hala erabaki zuen uztailaren 21ean egindako osoko bilkuran.

Erabaki horrekin indar barik utzi dute aurreko udalbatzak Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa 2011 delakoan zehaztutakoa. Alegia, euskaltegiko hiru irakasleetako baten lanpostua ezabatu eta haren titularra Euskara teknikari lanpostura bideratzea.

Dena den, ikasturte berriari begira, euskaltegian ematen den zerbitzua "mantentzea" erabaki du Udalak.

Roberto Altuna, Koldo Zumalde eta Ernesto Murgiondo dira euskaltegian plaza duten irakasleak.

Bi irakasle bakarrik

HABE erakundea da euskaltegiko irakasleen soldata ordaintzen duena, eta, gutxienez, zortzi ikaslez osatutako talde ofizialak hartzen ditu aintzat euskaltegi bakoitzak behar duen irakasle kopurua zehazteko. Gainera, HABEk berak finkatutako erritmoak eta eskola orduak bete behar dituzte.

Oñatiko euskaltegiko datuak begiratuta hauxe ikus daiteke: urtean zehar ematen diren eskola-orduen %54 eta horietan diharduten ikasleen %45 ez-ofizialak direla, HABEren irizpideen arabera. Hori horrela, ez ditu ontzat ematen, eta 2010eko irailean Udalari jakinarazi zion euskaltegiko irakasleen auzian erabakia hartu beharko zuela 2011ko ekaina aurretik. HABEren arabera, Oñatiko euskaltegiak bi irakasle bakarrik behar ditu, "azken urteotan matrikulazioa asko jaitsi delako".

Udalaren gain

Udal hauteskundeen ondoren, Bilduk alkatetza hartu zuenean, adierazi zuen ez zetorrela bat aurreko udalbatzak hartutako erabakiarekin, eta neurriak hartu ditu. "HABEk dio bi irakasle nahikoak direla Oñatin. Baina guk uste dugu hiru lagunendako lana badagoela. Ikastaro eta ikasle kopurua handitzen bada, beharrezkoa da hirugarren irakaslea.

ESANAK

"Hiru irakasleak beharrezkoak dira eskaintza handituz gero "

NEREA ZUBIA | EUSKARA ZINEGOTZIA

Adibidez, laugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko probak egiteko prestaketa ikastaroak eskainiko dituzte. HABEk ez badu hirugarren irakaslearen soldata ordaintzen, Udalak hartuko luke bere gain", esan digu Euskara zinegotzi Nerea Zubiak.

Horren alde egiteko eta euskaltegiko irakasleen beharra aldarrikatzeko, euskaltegiko hainbat irakasle eta ikasle ohik plataforma bat eratu zuten. "Erabakiak aurrera egiten badu, ikasle asko euskara ikasteko aukera barik geratuko dira", esan zuten maiatzean. Era berean, "eskatu" zuten hirugarren irakaslearen soldata Udalak ordaintzea.

Deialdia, aurrerago

Udalbatzak irakasleak mantentzeko hartutako erabakiaren ondoren, Euskara teknikari lanpostua hutsik geratu da, aurreko langileak erretiroa hartu ondoren. Hala, udal langileen artean deialdia egin dute urtebetez lanpostua bete ahal izateko. Behin betiko erabakia izango da. "Badakigu lanpostua bete behar dugula, eta dagokion deialdia egingo dugu aurrerago. Deialdia irekia izango da, eta baldintzak betetzen dituen edonor aurkeztu ahal izango da Euskara teknikari lanpostua betetzeko", esan digu Nerea Zubiak.

Helduen danborrada Txaketuaneko bidegurutzean, iaz. | GOIENA

Danborradarako entseguak asteon hasi dituzte Errekalden

Danbor-jotzaileek martitzen eta eguenetan, eta dantzariek astelehen eta eguaztenetan

M.B. | OÑATI

San Migeletako lehen doinuak agerikoak dira Errekalde Herri Eskolako lokalean. Asteon hasi dituzte jaietako danborradetarako entseguak. Haurren eta helduen danborradetan parte hartuko duten danbor-jotzaileek eta dantzariek egin dituzte lehen saioak.

Goiztiarrenak haurren danborradako danbor-jotzaileak eta helduen danborradako dantzariak izan dira: atzo, eguena, hasi zituzten entseguak.

Aurrerantzean honela egingo dituzte: haurren danborradakoak hilaren 6an, 8an, 13an, 15ean, 20an eta 22an –entsegu orokorra–, 19:00etatik 19:45era arte, Errekalden. Gainera, iñudeek, gastadoreek eta sukaldariek eta elkarteetako banderadunek (10-12 urte artekoak) hilaren 20an eta 22an egingo dituzte entseguak. Bestalde, hasi dira danborradarako arropak banatzen: hilaren 6an, 8an, 13an eta 15ean emango dituzte.

Nagusien danborrada

Bestalde, helduen danborradako dantzariek hilaren 5ean, 7an, 12an, 14an, 19an, 21ean eta 22an egingo dituzte entseguak, 20:00etatik 21:00etara, Errekaldeko lokalean. Eta danbor-jotzaileek hilaren 13an, 15ean, 20an eta 22an.

Azkenik, elkarteetako banderadunek bi entsegu egingo dituzte: hilaren 20an eta 22an.

Txandako txantxikua topatzen duenak 50 euroko erosketa-bonua irabaziko du irailean

Txanda elkarteak beste joko bat ipiniko du irailean martxan: dendarien elkarteko txantxikua topatzen duenari 50 euroko erosketa-bonua emango diote Txandako dendetan gastatzeko. Irailean zehar dendarik denda ibiliko da, eta topatzen duen bezero bakoitzak jasoko du saria. "Erakusleihoetan, denda barruan, San Lorentzon, Kale Barrian... egon daiteke", diote Txandakoek.

Gesaltza-Arrikrutz-Jaturabe ingurune karstikoa ezagutzeko bi irteera gehiago egingo dituzte

Lehen espeleoabentura apirilean egin zuten. Ordutik hona hainbat egin dituzte, baina Gesaltza-Arrikrutz-Jaturabe ingurune karstikoa ezagutzen ez dutenek beste bi aukera dituzte: irailaren 17an bata eta urriaren 15a bestea. 3-4 orduko irteera da eta beharrezkoa da material erosoa, katiuskak eta frontala eroatea. Gehienez 16 urtetik gorako 20 pertsona onartuko dituzte, eta interesatuek aldez aurretik eman behar dute izena, 943 08 20 00 telefonoan.

Askotariko ikastaroak egingo dituzte KZgunean irailean zehar; kultura etxean eman behar da izena

Oinarrizko Internet, *Metaposta*, *Jaycut*, *Flickr* eta *Doodle* delako ikastaroak dira KZgunean emango dituztenak irailean zehar. Ikastaro gehienak bi ordukoak dira, eta norberari ongien datorkion ordutegia aukeratu ahal izango du. Gainera, IT txartela ateratzeko hainbat azterketa egingo dituzte irailean zehar. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko: 943 08 16 34 telefonoa edo *tutor.onati@kzgunea.net* helbidea.

MIREIA BIKUÑA

Errekaldeko margotze lanak bukatzear

Errekaldeko lanek itxura ederra hartu dute dagoeneko. Azken egunotan pintaketa lanak hasi dituzte, eta ia kale osoa margotu dute: autoendako eta edukiontziendako lekuak, elbarriendako aparkalekuak eta bidegorria margotu dituzte. Eta farola berriak ipini dituzte. Orain, Mendiko kale aldera dagoen espaloia konpontzea falta da, eta hango aparkalekuak margotzea.

Hainbat berrikuntza dituzte Zubikoako kirol eskaintzan

Gimnasia abdominal hipopresiboa, street dance eta fit-bikea dira eskaintza berriak

M.B. | OÑATI

Zubikoa kiroldegian gertu dute ikasturte berrirako kirol eskaintza. Askotariko ikastaroak egingo dituzte, gehienak iazko berak. Baina bada berrikuntzarik: hain justu ere, gimnasia abdominal hipopresiboa, street dance eta fit-bike ikastaroak egingo dituzte.

Kirol eskaintza guztien gaineko informazioa kiroldegian jaso ahal izango dute interesatuek. Dena den, ikastaroak barrutik ezagutu gura dituztenendako ate irekiak egingo dituzte hilaren 12an, 13an eta 14an.

Izen-ematea zabalik

Ate irekien ondoren, gimnasia eta fitness ikastaroak hilaren 15ean hasiko dituzte, eta zabalik dute izen-emate epea: hilaren 12ra arte egin daiteke, 943 71 63 75 telefonoan edo *zubikoa@oinati.net* helbidean.

Bestalde, kiroldegiko zerbitzuen eta horien antolaketaren gaineko informazioa izateko edo norbanako aholkularitza jasotzeko hiru egun finkatu dituzte: hilaren 6an (10:00-12:00 eta 18:00 -20:30), 7an (12:00-14:00 eta 18:00 -20:30) eta 8an (10:00-12:00) egongo dira Egoitek-eko teknikariak informazioa ematen.

Hiru berrikuntza

Berrikuntzei dagokienez, ikastaro mota ezberdinak izango dira. Gimnasia abdominal hipopresiboari dagokionez, hilabeteko ikastaroak emango dituzte. Hiru hilabeteko ikastaroak izango dira street dance-koak. Helburua da ikasturte osoan hiru edo lau dantza ezberdin ikastea. "Funk, hip-hop eta break-dance dantzen arteko nahasketa da", diote arduradunek.

Azkenik, fit-bike ikastaroa taldeka egingo dute. Bi egun zehaztu dituzte, eta egun bakoitzean bi talde osatuko dituzte: batzuek astelehen eta eguaztenetan izango dituzte eskolak (19:15ean eta 20:15ean) eta besteek, martitzen eta eguenetan (19:15ean eta 20:15ean).

Igeriketa ikastaroak

Beranduen hasiko diren ikastaroak igeriketakoak eta ur-ekintzetakoak dira. Errosario jaiak pasa ondoren, urriaren 17an hasiko dituzte. Dena den, izen -emate deialdia egin dute (ikus beheko taula).

Ikasturte berrian ur-abileziak lantzeko eta igeri egiten ikasteako metolodologia berria erabiliko dute. Horrek eragina izango du ikastaroen iraupenean: hilabeteko ikastaroak izatetik, hiru hileko ikastaroak izatera pasako dira. Prezioek ez dute aldaketarik izango.

Bestalde, igeriketa eta ur-ekintzetako taldeetan gehienezko kopurua gainditzen denean, onartutako ikasleen zerrenda zozketaz erabakiko dute. Oñatiarrek, kiroldegiko bazkideek eta Debagoieneko kirol txartela dutenek lehentasuna izango dute.

IGERIKETA ETA UR EKINTZAK

Izen-ematea:

Irailaren 12tik 16ra.

10:00-13:00 eta 16:00-19:00.

Behin-behineko zerrendak:

Irailaren 20an kiroldegiko harreran edo *www.oinati.net* atarian.

Erreklamazioak:

Irailaren 21etik 23ra.

Behin betiko zerrendak:

Irailaren 27an kiroldegiko harreran edo *www.oinati.net* atarian.

Ikastaro hasiera:

Urriaren 17an.

Oñatz dantza taldekoak 1979ko Haur Dantzarien Egunean. | OÑATZ

300 bat lagun batuko dira bihar Oñatz taldearen 40. urteurrena ospatzeko

Egun osorako egitaraua prestatu dute: kiroldegiko pilotalekuan bazkalduko dute eta larrain-dantza erraldoia egingo dute plazan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatz dantza taldeko egungo kideek eta kide ohiek ospakizunetan pasako dute biharko eguna. Iaz, 40 urte bete zituen taldeak, eta horren aitzakian egun osoko festa antolatuko dute biharko. "40 urte hauetan zehar modu batera edo bestera Oñatzen inguruan ibili diren herritarrak batu gura ditugu gure deialdira. Guztiak animatu gura ditugu", esan zuten antolatzaileek ekainean. Herritarren erantzuna jaso dute orain: 300 bat lagun animatu dira eta kontu-kontari ibiliko dira bihar.

Eguna hasteko, poteoa

Guztiek dute hitzordua 12:00etan Foruen plazako pilotalekuan. Musikarekin girotuta poteoa egingo dute, baina aurretik, aurreskua edo ikurrin-dantza dantzatuko dute. 14:30ean herri bazkaria egingo dute kiroldegiko pilotalekuan, eta bazkaldu ondoren alardea egingo dute. "Euskal musika izango da nagusi. Bazkal ondorengoa girotuko dugu dantzekin eta musikarekin", esan digu Oñatz taldeko kide Jesus Irizar *Txutxin*-ek.

Jai eguna bukatzeko larrain -dantza erraldoia egingo dute plazan, 19:30ean. Nahi duten herritarrek parte hartu ahal izango dute. Larrain-dantzaren pausoak gogorarazteko hainbat entsegu egin zituzten uztailean.

I. Haur Dantzarien Eguna

1962an Oñatz kultura elkartea sortu zen; besteak beste, abesbatza eta mendi taldea zituen.

Txutxin 1968an dantza eskolak ematen hasi zen Zubillagako neska-mutiko talde batekin eta lehen dantza saioa egin zuten 1969an Santurtzin. Urtebete geroago Oñatz kultura elkarteak pentsatu zuen Haur Dantzarien Eguna Oñatin ospatzea. Dantza talderik ez zegoenez, Zubillagako neska-mutikoek egin zuten dantza. "Haren ondotik deialdia egin genuen herrian umeak dantza taldera erakartzeko eta Zubillagakoek bat egin zuten taldearekin", gogoratu du *Txutxin*-ek.

Oñatz dantza taldeko kideek eskolak ematen dituzte: egun, 200 bat neska-mutikok dihardute dantzan 60 irakasleren aginduetara.

Haur dantzarien eguna hilaren 18an

41. haur dantzarien egunaren antolaketa esku artean du Oñatz dantza taldeak. Hilaren 18an egingo dute, eta 350 bat neska-mutiko egongo dira Oñatin euskal dantzen erakustaldia egiteko. 10:15ean elkartuko dira talde guztiak Otadui Zuhaiztian. Kalejiran plazako pilotalekuraino joango dira, eta han hamarretakoa egingo dute. 12:00etan alkate txikiaren agurra entzun eta ibilaldia egingo dute kalerik kale. 13:30ean umeak banatu egingo dituzte bazkaltzeko: batzuk etxeetan hartuko dituzte eta beste batzuk elkarteetan. 17:00etan alardea egingo dute plazan. Mutilek eta neskek hiruna dantza egingo dituzte. Alardea bukatzeko elkarrekin egingo dute dantza.

OHARRAK

DEIALDIA

Udako oporren ondoren, lehen odol ateratzea egingo dute hilaren 16an, ikastolan, 18:00etatik 20:00etara arte. Urtea bukatu aurretik beste hiru egingo dituzte: urriaren 7an, azaroaren 11n eta abenduaren 9an.

TRASTE ZAHARRAK

Hileko eguen guztietan batzen dituzte etxeko traste zaharrak. Materiala dutenek 943 71 19 38 telefonora deitu beharko dute. Trasteak 20:00etatik 22:00etara utzi behar dira kalean.

KIROLDEGIKO ORDUTEGIA

Atzo ezkero, neguko ordutegia dute berriro kiroldegian: astelehentik egubakoitzera 07:30etik 21:30era arte; zapatuetan 09:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:30era arte; eta domeka eta jaiegunetan 09:00etatik 14:00etara arte.

Salto eta bolei txapelketak Usakon eta sardina erreak, surf festan

M.B. | OÑATI

Abuztuari agur esateko, aste bukaera ekitaldiz beteta dator. Surf festa, rock kontzertua eta kale antzerkia daude aste bukaeran Oñatin.

Surf festa antolatu du herritar talde batek biharko. Horren harira hainbat ekitaldi egingo dituzte, eta batzuk, gainera, bitxiak dira. Adibidez, 12:00etatik 15:00etara salto txapelketa egingo dute Usakon. Interesatuek *surffesta@gmail.com* helbidean eman dezakete izena. Gainera, Usako-bolei txapelketa egingo dute.

Giroa alaitzeko ez da musikarik falta izango: DJ Kirrinek jarriko ditu egungo kantu entzunenak eta ezagunenak.

18:00etatik aurrera sardina erreak izango dira protagonista San Anton plazan. Txakolina eta sagardoa egongo dira.

Rocka eta antzerkia

Bestalde, gaur, rock kontzertua egingo dute Bitz eta Asfikzia taldeek Atzeko kaleko agertokian, 22:30ean. Bitz taldeak grabatu berri duen diskoko kantuak eskainiko ditu. Azkenik, domekan, Trapu Zaharrak taldeak *Jira ta Bira* kale antzerkia egingo du, 19:00etan, Foruen plazan.

Atzo ezkero zabalik dago KZgunea; irailean goizez

M.A. | ARETXABALETA

Abuztuko oporrak bukatu ostean, zabaldu ditu ateak Markole auzoan dagoen KZguneak eta goizez egingo dute lan irail osoan (09:00-13:00). Ikastaro berriekin hasiko dute ikasturtea, gainera; eskainiko dituzte Open Office Writer, testu prozesadore indartsu horren gaitasunak frogatzeko, eta Mugipuzkoa, Gipuzkoako mugikortasun ataria zelan erabili jakiteko. Horiekin batera ohiko ikastaro batzuk ere iragarri dituzte: Internet; Google posta; Google Docs; sare sozialak –Facebook, Twitter–... Ikastaro horien guztien egunak ezarrita dituzte dagoeneko.

Metaposta eta Izenpe

Metaposta –dokumentu gordailu elektronikoa– zer den erakusteko saioak ere egingo ditu Aitor Madrid dinamizatzaileak, eta Izenpe txartela zelan eskuratu eta zertarako erabili azalduko du. Gainera, IT txartela eskuratzeko azterketak egingo dituzte irailean zehar; hona egunak: 6, 14, 22, 26 eta 29.

Ikastaro egunak zeintzuk diren jakiteko, azterketetarako txanda hartzeko edo argibideren bat gura izanez gero, deitu Markole auzoko KZgunera: 943 25 23 51.

OHARRAK

1971N JAIOTAKOAK EGUN-PASA HILAREN 17AN

Aurten 40 urte betetzen dituztela-eta ospakizun handia egin gura dute 1971n jaiotakoek. Arabako Errioxara joango dira irailaren 17an: kultura arloko bisita egin eta upategi baten bazkaldu. Izena emateko azken eguna hilaren 9a da, egubakoitza, Orly eta Eguzki tabernetan; 20 euro ordainduko da izena ematean.

1946AN JAIOTAKOAK EGUN-PASA URRIAN

Aurten 65 urte betetzen dituzten aretxabaletarrek egun-pasa egingo dute urriaren 1ean Errioxan. Inguruak ezagutu eta Eskuernagako Candido Besa upategian bazkalduko dute. Izena aurrez eman behar da eta 20 euro sartu honako kontuan: 3035 0002 1 6 002 1 07359 1 –kontzeptuan norberaren izena jarri.

KURTZEBARRI EGUNA IRAILAREN 11N

Murrukixo Mendizale Elkarteak Kurtzebarri mendiko eguna ospatuko du, urtero legez, iraileko bigarren domekan, hilak 11.

Txarapea ibilbidean dauden 1. eta 2. zenbakietako etxe blokeak, oraindik bukatzeko. | M.A.

Irailean ekingo diete berriro Txarapeako etxe tasatuen lanei

- Uztailerako bukatu beharrean 'urte bukaerarako' bukatuko dituzte
- Babes ofizialeko lehenengo etxebizitzak irailean hasiko dira ematen

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Txarapea ibilbidean –Deba ibaiaren beste aldean– egindako etxebizitza tasatuen bi bloke oraindik bukatu barik daude, 1. eta 2. zenbakidunak, hain zuzen. Uztailerako hitz emanda zieten jabeei, baina arazoak izan dira berriro eta beste behin geldi egon dira lanak, eta jabeen ezinegona sortu. Uztailean jakindakoaren arabera, orain, irailean, berriro ekingo diete lanei, eta, ondo bidean, etxeok aurten bukatuko dituzte.

Irailean ekingo diete lanei

Orain dela ia zazpi urte egin zuten etxe tasatu horien zozketa eta lanak oso luze joan dira ordutik. Hain zuzen, orain urtebete ere antzeko egoeran zeuden etxeak, geldi eta lanak ezin bukatuta. Orduan konponbidera iritsi ziren eta orain ere Bruesa enpresa eraikitzailea, administratzaile konkurtsala eta Kutxa akordiora iritsi dira Txarapeako bi etxe blokeok amaitzeko. Kutxak finantzatuko ditu lan horiek, eta lanei irail hasieran berrekitekotan geratu ziren uztailean. Hala, urtea bukatu aurretik etxeak bukatuta izatea aurreikusi dute.

Bruesa enpresaren egoera ekonomikoa dela eta, zalantzan egon da etxeok amaituko ote zituzten; etxeon jabe behar dutenek ezkor izateko arrazoiak zituzten, behin baino gehiagotan geratu direlako lanak; baina egoera aldatu egin da akordioa lortuta. Akordio horren arabera, Kutxak hartuko du bere gain eraikuntza lanen finantzaketa, eta trukean, saldu gabe dauden etxeekin geratuko da.

Ana Bolinaga alkateak baieztatu egin zion hori guztia Goienari uztaileko azken egunetan, eta "Aretxabaletarako oso albiste ona" zela gaineratu.

Ibai alboko pasealekua egiteko

Bruesak egiteko dituen lanak, baina, ez dira horrekin bukatuko, inguruko urbanizatze lanak ere bukatu barik dituelako. Hain zuzen, Deba ibaiaren beste aldeko pasealekua egiten hasita daude –kiroldegi ingurutik Iturrizar plazaraino doan pasealekua– eta ibilbide itxura hartuta ere badu, baina uztailean eten zituzten lanok eta oraindik asko dago egiteko.

Babes ofizialekoak bukatzen

Bestalde, Txarapean dauden babes ofizialeko bi etxe blokeetako bat dagoneko bukatuta dago, eta irailean jasoko dituzte horien giltzak jabeek. Beste blokeko lanak ere aurrera doaz, eta datorren urteko martxo ingururako bukatuta izango dituztelakoan daude jabe izango direnak.

Astelehenean joango dira herritarrak Arantzazura erromes

M.A. | ARETXABALETA

Ohiturari jarraituz, iraileko lehen astelehenean, irailak 5, joango dira aretxabaletarrak Arantzazura. Ama Birjinaren bederatziurrenaren barruan dagoen ospakizuna izango da, eta parrokiak autobusa antolatu du hara joan gura dutenendako.

Sasoi baten oinez joaten ziren inguruotakoak Arantzazura, eta, oraindik ere bakarren batzuek ibilbidea oinez egin arren, gehienek autobusa hartuko dute. Izena emateko Andre Mariaren Zeruratze parrokiara jo behar dute interesatuek (11:00-12:00 eta 16:30-18:30), eta Jose Luis Arratibel sakristauarekin egon; prezioa 12 euro da. Batzuek goiz partean egingo dute joan-etorria, meza entzun ondoren buelta, eta beste batzuk bazkaltzen geratuko dira han.

Udal ordezkariak

Herritarrak ez ezik, udal ordezkariak ere urtero joan izan dira Arantzazura, sasoi bateko ohiturari eutsiz. Udalbatzako hainbat kide eta teknikari batzuk joan izan dira parrokoarekin batera. Han, frantziskotarrek harrera egin izan diete eta herritarrekin batera meza entzun ondoren bazkaltzera geratu izan dira. Aurten ere hainbat kide han izango dira.

Gaztetxoen proiektuak lantzeko laguntza deia egin du Udalak

M.A. | ARETXABALETA

Herriko gazteen egitasmoak aurrera eroateko diru-laguntzen oinarriak onartu eta iragarri ditu Gazteria Zerbitzuak. Helburua da gazteek zaletasun, sormen ekintza edo izaera horretako egitasmoak burutu ahal izatea, dirua traba izan barik. Udalak 600 euro bideratu ditu deialdi horretara, eta bi dirulaguntza emango dituela iragarri du, bakoitza 300 eurokoa.

Eskaerak Gazteria Zerbitzura bideratu behar dira eta azken eguna azaroaren 28a da. Argibide gehiago abuztuaren 2an argitaratutako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dator.

Bete beharreko baldintzak

Udalak hainbat baldintza ezarri ditu diru-laguntzok eskatu ahal izateko: 16 urte baino gehiago eta 20 urte baino gutxiago izatea; Aretxabaletan erroldatuta egotea eta bertan bizi izatea gutxienez azken bi urteotan; kirolaria den kasuan, kirol talde federatu bateko kide izatea; arte sormenarekin zerikusia duen arloren bat landu gura izanez gero –pintura, musika, eskultura, zinea...– gaiarekin lotura duen gutxieneko titulazioa aurkeztea; eta kooperantea izanez gero, esku artean kanpora joateko proiekturen bat izatea.

Aretxartek egin du abuztuko zozketa

M.A. | ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarteak zozketarako txartelak banatu ditu abuztuan bezeroen artean, herrian geratutako bezero horiek saritu guran. Eguaztenean egin zuten zozketa eta lau zenbaki atera zituzten: 109.565; 110.023 (Brasileñan banatua); 111.026 (L-10 ile-apaindegia); 112. 769 (Begira argazki denda). Saria da Aretxabaleta Kirol Elkarteko bazkidetza txartel bi 2011-2012 denboraldirako, herriko futbol taldeen partiduak debalde ikusteko. Bazkidetza txartel horiek jasoko dituzte lau zenbaki horien jabeen artean lehenengo deitzen duten bi lagunek. Hona deitzeko zenbakia: 943 79 98 76. Eta horretarako azken eguna irailaren 9a da, egubakoitza.

Ixadebalde hilaren 10ean

Bestalde, irailaren 10ean, zapatua, egingo du Aretxartek III. Ixadebalde merkealdien azoka. Iazko irailean egin zuten lehenengoz halako azoka merkatari aretxabaletarrek, eta oso pozik agertu ziren orduan. Egunotan hasiko dira antolatzen hitzordua, eta oraindik zehaztu barik daukate zenbatek hartuko duten parte. Udazkenean bete-betean sartu aurretik atzera geratutako jeneroa, batez ere uda sasoikoa, kendu gura dute merkatariek eta hori bezeroen onurarako izango dela iragarri dute.

Hipo eta Tomax pailazoak. | HIPO ETA TOMAX

Hausnarketarako filmak eta historia kontuak Arkupen

Ingurumenari egindako kalteak jasotzen dituzte filmek

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ikasturte berria hasi da eta Arkupeko iraileko kultura eskaintza kontu asko ikasteko asmoarekin antolatu dute, batez ere ingurumen eta historia kontuak. Erakusketa aretoan, ostera, pintura ikastaroetako ikasleek egindako lanak egongo dira ikusgai hil osoan.

Argazki emanaldiekin hasiko dituzte Zaraia aretoko ekitaldiak; hain zuzen, datorren martitzen eta eguaztenean hiru dimentsioko argazki emanaldiak izango dira (19:30). Jose Luis Feo arrasatearrak gertatu ditu, eta azken sasoian halako arrakasta izan duten hiru dimentsioko irudien gainean jardungo du emanaldia egin bitartean.

Irailaren 13an, ostera, Patxi Abasolo historia irakasle eta 1512 -2012 Nafarroa Bizirik egitasmoko kideak historia kontuak ekarriko ditu gurera: *Konkistak 500 urte, deuseztatu ezin izan duten oroimena* berbaldia eskainiko du (19:00).

Ikus-entzunezkoek, ostera, ingurumen kontuak landuko dituzte, eta hausnarketarako bidea zabaldu gura dute. Bartzelonan egindako Ingurumenaren Nazioarteko Zinema Jaialdian eskuratutako filmak emango dituzte bi eguenetan (19:00): *Aquí para permanecer* irailaren 15ean eta *Adictos al plástico* irailaren 22an. Lehenengoak kontrolik gabeko eraikuntza eta naturak dituen baliabideen agortzea ditu gai; bigarrenak, plastikoaren gehiegizko erabilera eta haren ondorioak. Biak ingelesez emango dituzte eta azpitituluak gaztelaniaz.

Umeendako ikuskizunak

Umeek bi ikuskizun izango dituzte irailean: Hipo eta Tomax pailazoek *Dinbi, danba!* eskainiko diete hilaren 18an Zaraia aretoan (17:00) eta Kanpanolue taldeak *11 salto gehio!* hilaren 23an, Herriko Plazan (19:30).

Nemesio Otaño izan du gogoan abesbatzak Comillasen

Konposatzailearen omenezko lehen kontzertua zen; bigarrena Madrilen du

M.A. | ARETXABALETA

Comillasen (Kantabria) eman zuen kontzertua joan den domekan, abuztuak 28, Aretxabaleta Abesbatzak, IV. Abesbatza eta Organo Musika ziklo barruan. Nemesio Otaño konposatzaile eta musikologoa (Azkoitia, 1880-1956) omentzeko kontzertua izan zen, Comillasen ere zeresan handia izan zuelako hark.

Azaroan, Madrilera

Iaz grabatu zuen Aretxabaleta Abesbatzak Otañoren abestiekin diskoa, *Nemesio Otañoren omenez*, Azkoitiko jesuita eta konposatzaile handia gogoan. Ibilbide luzea izan zuen musika munduan Otañok, eta tartean Comillasko unibertsitateko abesbatzako zuzendari izan zen, baita irakaslea ere. Hala, bada, Angel Barandiaranen gidaritzapean eta Jose Luis Franzesena organoa jotzen zela, Otañoren abestiak gogorarazi zituen Aretxabaleta Abesbatzak domekan; tartean, *Lagun Zaiguzu*, *Estrella Hermosa* eta *Ave Maria*.

Aretxabaleta Abesbatzako kideak Comillasko parrokian, domekan. | M.A.

Oso harrera ona egin zieten Kantabriakoek eta Aretxabaletatik joandako hainbat lagun ere izan ziren ikusleen artean; hortaz, oso pozik itzuli zen abesbatza.

Beste kontzertu bat ere emango du abesbatzak Azkoitiko konposatzailearen omenez aurten; Madrilen izango da, azaroaren 11n. Madrilgo San Fernandoko Arte Ederren akademiako kide ere izan zen Otaño, eta han ere omenalditxoa egin gura diote. Hala, bertako auditorium dotorean emango duten kontzertuko ahotsa aretxabaletarrek jarriko dute.

Musika eskolari omenaldia

Hori baino lehen, San Migel jaietan, irailaren 25ean, urtero eskaintzen duten emanaldia egingo dute herritarrendako. Aurten Leizarra musika eskolari eskainiko diote emanaldi hori, 25 urte bete dituelako. Bada, abesbatza ez da bakarrik izango ekitaldian, musika eskolako dantza taldeak egingo dio lagun hainbat kantutan, eta musika taldeak ere bai: pianoa, akordeoia, perkusioa, klarinetea eta tronpa.

Emanaldi horrekin musika eskolari eta haren sortzaileei omenaldi apala eskaini gura diete, oztopoei aurre eginda sortu eta 25 urtean geratu barik lanean jardun duelako herrian.

NIRE USTEZ

ANJEL BERGARETXE

Lanera berriz

Bukatu dira oporrak, eta gehienok lanera itzulita izango gara (lana dugunok behintzat).

Udako berriei erreparatuz, aurrekoetan suteek izaten zuten lehentasuna ekonomiak hartu du aurten. Horretan ezjakin hutsa naiz, baina azkenaldian entzun eta ikusitakoari kasu eginez, ez dakit aditu bezala agertzen direnek ere asko gehiagorik dakiten. Batzuek oso ondo azaltzen dute gertatutakoa (pasa eta gero, jakina), baina ez dirudi inork dakienik datorrena ikusten, ez eta sortu duten hondamena konpontzen. Ala ez zaie konpontzerik komeni?

Politika ere normalean baino presenteago egon da udan. Ez gaude alferrik hauteskunde oste-aurre aroan. Eta gura ala ez (eurek zein besteek), BILDU izan da protagonista nagusienetako bat. Espero bagenuen be, izugarria da ezartzen ari zaien presioa. Hitz eta keinu bakoitza lupaz begiratu, neurtu, pisatzen dute. Edozeinek hartzen du zer, noiz eta nola egin behar duten esan ez ezik, exijitzeko eskubidea. Mehatxuak ere ez dira falta izan. Datozen hauteskundeetan ere epaitegiei begira egon behar ote dugu?

Eta bitxikerien artean, PNVren ateraldiak. Hauteskunde koalizioari uko egiteko eman duten arrazoi (aitzakia) piloaren artean, zera: BILDUk ez zuela koalizio hori nahi (ez zuten ba beraiek proposatu?). Garitanoren aurkako balizko mozioa errefusatzeko ere, azalpen xelebrea eman dute: horixe gurako omen lukeela BILDUk, gobernutik egotziak izatea, alegia! Harrapazan!

"Hitz eta keinu bakoitza lupaz begiratu, neurtu, pisatzen dute"

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Zubiate labea ikus daiteke, aurrez txanda hartuta

Pozik daude Ibarraundi museoan abuztuan izandako bisitariekin; besteak beste, Cuencatik etorri dira

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Zubiate labea eta Gaztañadui kaleko areto berean dagoen buztingintzaren gaineko erakusketa bisitatzeko aukera dago egunotan, bisita gidatuen bidez. Interesatuek 943 71 54 53 telefono zenbakira deitu behar dute aurrez txanda hartzeko, edo Ibarraundira jo.

Zubiate labea, Euskal Herrian gordetzen den zeramika labe adibide onenetakoa da, eta gaur egunera arte iritsi den mota horretako bakarra Gipuzkoan.

Zubiate irekita egon zen XX. mendeko lehen hamarkadara arte, bertan aritu zen azken ontzigileak, Felix Zubiatek, bertan lan egiteari utzi zion arte. Enrike Ibabek, *La Ceramica Popular Vasca* liburuaren egileak, 1974an aurkitu zituen, beste instalazio batzuen artean ezkutaturik, labe zaharra eta horrekin batera buztinola osatzen zuten gainontzeko elementuak, hala nola tornu gelak, lehorketa guneak eta zeramika biltegia.

Labeaz gain, erakusketa ere ikus daiteke. | MIRIAN BITERI

Gaur egun gordetzen den elementu bakarra labea da, eta, Aranzadi zientzia elkarteak zaharberritu ostean, iazko udan inauguratu zuten, erakusketa interesgarriarekin batera.

Abuztuan jende asko

Labeak dagoeneko izan ditu hainbat bisita. Horren harira, esan beharra dago jende asko ibili dela abuztuan Eskoriatzan. Ibarraundi museoko Eneritz Zubiak jakinarazi digu, besteak beste, Gernika, Valentzia, Madril eta Cuencatik iritsitako bisitariak izan dituztela han, eta, museoa bisitatzeaz gain, Eskoriatza eta bailarako turismoari buruz galdetu zutela. Abuztuko bisitariekin pozik dauden arren, Zubiak gaineratu du uztailean oso bisita gutxi izan zituztela. Gehienak sanpedrotan jaien harira jarritako erakusketan izan ziren.

Etxe berria dute 18 lagunek Gaztañadui eta Santa Marinan

M.B. | ESKORIATZA

Santa Marina eta Gaztañaduiko etxebizitza tasatuek jabe berriak dituzte dagoeneko. Uztail amaieran egindako zozketan, oraindik jabe barik zeuden Santa Marinako 16 eta Gaztañaduiko bi etxebizitza adjudikatu zituzten Beñat Herce alkateak, Edurne Iturbe udal idazkariak eta Arantza Iregi zinegotziak.

186 eskatzaile

Denera, 186 lagunek zuten etxebizitza horietan izena emanda; eskatzaile horietatik, 35 eskoriatzarrak ziren eta gainerako 151 lagunak debagoiendarrak. Ikusminik ez zuen sortu zozketak.

ZOZKETAN IRTENDAKOAK

Santa Marinako etxeen jabeak

- Jessica Gomez Martinez
- Beatriz Herruzo Corral
- Olga Armendariz Goyarrola
- Jose Antonio Azkona Gorostiza
- Fernando Joaquin Jorge
- Agurne Agiriano Ojanguren
- Tomas Sagasta Encinas
- Francisco Javier Eraña Altuna
- Maite Diaz de Gereñu Armendariz
- Esther Manzanos Lafuente
- Eguzkiñe Alegria Romaratezabala
- Consuelo Perez Pino
- Karmelo Oñate Akizu
- Leire Carrillo Martinez
- Peio Lete Delgado
- Jon Joseba Lete Delgado

Gaztañaduiko etxeen jabeak

- Olga Armendariz Goyarrola
- Idoia Zubizarreta Luengo

JON BEREZIBAR

Albaniarren geldiunea Mendiolan

Bisita berezia izan zuten abuztuaren 22an Mendiolan. Gazte Kristauek egindako mundu topaketatik bueltan, 80 gaztetik gora batu ziren han, euren komunitateko abade Jesus Madinabeitia Mendiolako semearen auzoa ezagutzeko. Fede, dantza, kantu eta irribarrez betetako topaketa izan zen.

REHABILITACIONES IKERRA S.L.

ERAIKUNTZAK - PROIEKTUAK

Aranburuzabala 27 - ESKORIATZA
Tel.: 943 53 38 31. Mugikorra.: 630 087 071
E-posta.: re-ikerra@hotmail.com

OHARRAK

AUTOBUSA ZARAUZKO EUSKAL JAIRA JOATEKO

Irailaren 9an Zarauzko Euskal Jaira joateko autobus zerbitzu berezia jarri du Pesak, joan -etorrirako. Eskoriatzatik 10:15ean irtengo da eta Aretxabaleta, Arrasate eta Bergaratik pasa ostean, autobidetik joango da zuzenean Zarautzera. Itzulerari dagokionez, 21:15ean irtengo da autobusa Zarauztik.

Olaetako mendi hegalean ez dago lur-jausia gertatzeko arriskurik

M.B. | ESKORIATZA

Lasai egon daitezke herritarrak, Olaetako mendi magalean ez dago -eta lur-jausia gertatzeko arriskurik. Horixe dio Eskoriazako Udalak TEAM ingeniaritza enpresari mendi hegal horretan lur-jausia gertatzeko arriskuaren gainean eskatutako txostenaren emaitzak. Txostena egiteko zundaketa inklinometrikoa egin da; mendi-hegala hodi batekin monitorizatu dute sei hilabetez eta neurketak egin ditu hilero. Horien arabera, ez dago arriskurik.

Dena dela, zenbait neurri hartzea gomendatu dute ezegonkortasunik ez gertatzeko: hainbat zuhaitz kendu eta bertako landareak landatu, esaterako. Udaletik jakinarazi dute gomendio horiek betetzeko prozesua hasi dutela.

Kapiriko umeak herrira iritsitako ura jasotzen, iaz. | BITTOR ARBULU

Kongorako dirua batzeko Elkartasun Jaia gaur

Pintxoak egongo dira Zurrategin eta Virginia Imazen ikuskizuna Torresoroan

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Gaur, egubakoitza, Elkartasun Jaia egingo da Zurrategi plazan Anelkarrek antolatuta. 20:45etik aurrera pintxoak eskainiko dituzte eta mahaiak egongo dira bertan afaldu ahal izateko. Sei euroren truke jan ahal izango da ondorengo pintxo-menua: bi pintxo (tortilla, txorizoa edo urdaiazpikoa), ardoa edo sagardoa, kafea eta pastak. Menutik kanpora pintxo gehiago nahi dituenak bi euroren truke lortu ahal izango ditu.

Urdaiazpikoa bertan mozten arituko da Garikoitz Lete antzuolarra, lan horretarako arropa eta tresneri guztiekin. Anelkarrekoek espero dute ikuskizun polita izango dela. Horrez gain, panel bat ipiniko dute plazan bertan, laburpen txiki bat egiten Kongoko Kansenia eta Kapirin egindako lanekin eta asmo berriekin.

Antzezlana

Afaldu ostean Virginia Imazen *Divinas* ikuskizuna egongo da Torresoroan, 22:30ean. Sarrera 8 euro kostako da eta aurrez erosi ahal izango da Itzar liburu dendan. Antzezlana ikustera joaten diren guztien artean bidezko merkataritzako produktuez osatutako saski bat zozketatuko dute.

Batzen den dirua, Kongorako

Gaur bertan Kongora abiatuko da Bittor Arbulu antzuolarra, han martxan duten proiektu batean parte hartzeko. Afarian eta antzerkian batzen den dirua Kongoko proiektu horretara bideratuko da.

Iaz lortu zuten Kongoko Kapiri herrira ur kanalizatua ekartzea. 4.000 biztanle inguru ditu herriak eta ordura arte kilometroak ibili behar izaten zituzten errekatik ura hartzeko. Iaz egindako lanari esker, herriraino ura kanalizatu dute erreka batetik eta ur garbiagoa dute herrian.

Bittor Arbulurekin batera joan dira Tomas Madinabeitia eskoriatzarra, Koldo Arzelus tolosarra eta Agustin Lazarobaster mendarotarra. Aurtengorako beste asmo batzuekin doaz: iturriak jarri herrian, ondoko herri batera eraman ura, deposituak jarri...

BITTOR ARBULU
KONGON BOLUNTARIO

"Kapirin iturriak jartzea da aurtengo lana"

Kongoko Errepublikako Kapiri herrian iaz hasitako lanarekin jarraituko dute Arbuluk eta beste zenbait lagunek.

Zein izango da aurten egingo duzuen lana?

Iaz Kapiri herrira ura eramatea lortu genuen eta aurten proiektu horrekin jarraituko dugu. Herrian iturri bakarra dago eta aurtengo asmoa izango da herriko zenbait puntutan iturriak jartzea. Horrez gain, ondoan dagoen Mwanga herri txikira ere eramango dugu ura Kapiritik.

Zenbat denbora egingo duzu han?

Iaz bi hilabete egin nituen bertan baina aurten hilabete egingo dut. Ea lanak bukatzen ditugun epe horretan.

Osasun zentroa Torresoroan egongo da astelehenetik aurrera

IRATI GOITIA / USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Torresoroa eraiki zenetik herriko anbulatorioa bertan kokatzea zen asmoa, baina tramiteak luzatu, eta, azkenean, astelehenetik aurrera, irailak 5, emango dute osasun zerbitzua Torresoroan. Besteak beste, bi komun, medikuen aldagela, biltegia, itxaron gela eta hiru kontsulta egongo dira (erizainarena, medikuarena eta erabilera askotarikoa).

Orain arte, pediatra Antzuolara joaten zenean, medikuak Bergarara joan behar izaten zuen, bientzako gelarik ez zegoelako. Orain, ordea, pediatrak bere kontsulta izango du, baita medikuak ere. Beraz, aldi berean egon ahal izango dira anbulatorioan.

Eskailerarik ez

Leku berriak duen beste abantaila nagusi bat izango da eskailerarik ez izatea. Horrek, batetik, jendearen sarrera erraztuko duelako; eta, bestetik, arazo gutxiago izango dituztelako gaixoak esku-ohean anbulantzietara eramateko orduan. Izan ere, eraikin zaharreko igogailuan ez dira esku-oheak sartzen, eta, ondorioz, aulkietan jaitsi behar izaten zituzten gaixoak anbulantziara.

Anbulatorio zaharrean gaztetxea egiteko proiektua du Udalak.

Ekintza berriak izango dira gimnasioan ikasturte honetan

U.A. | ANTZUOLA

Abuztuan itxita egon ostean, atzo, irailak 1, zabaldu zuten herriko gimnasioa. Ikasturte berrian honako ikastaroak egiteko aukera egongo da: bosu-tonoa (musikaren erritmoarekin gorputz osoaren tonifikazioa lantzen da); total fitnessa (aurrekoa hobetuta eta material gehiago erabiliz); patinajea (3 hilabeteko ikastaroak); dantza latindarrak (astean ordu eta erdi); erditze osteko gimnasia (3 hilabeteko ikastaroak); 11 eta 15 urte bitarteko gazteendako dantza; fitness gelako zirkuituak; 3. adinekoendako gimnasia; pilatesa; sasoian egoteko gimnasia; batuka; spinninga; eta karatea.

Tarifa ezberdinak

Gimnasioko bazkide izatea 21 euro ordainduko da hilean. Ekintzak, berriz, 18,5 euro kostako zaizkie bazkideei eta 34,5 euro bazkide ez direnei. Aukera ezberdinak ere badaude: hileko Bazkide Plusa tarifarekin (48 euro) bazkideen abantaila guztiak izango dira eta nahi den ekintza guztietan parte hartzeko aukera; Ekintza Plusa tarifa (27 euro), berriz, bazkideendako da, ekintza bat baino gehiagotan aritu ahal izateko.

Irailaren 6an hasiko du ikasturtea Musika eskolak

Hizkuntza Musikaleko 1. mailan hasteko asmoa duten ikasleek irailaren 15era bitartean eman dezakete izena. Bestalde, 9-12 urte bitarteko abesbatza sortzeko asmoa dago. Ez da beharrezkoa musika jakitea, ezta ikasketak egiten ibiltzea ere. Musika Eskolan duzue informazio gehiago.

Futbol zelaiaren eta pilotalekuaren ordu erreserba

Pilotalekua eta Eztala futbol zelaia erreserbatzeko epea zabalik dago. Izen-ematea udaletxean edota *kultura@antzuola.net* helbidera mezua bidaliz egingo da. Orain arte pilotalekuaren erabiltzaile izan direnek eta erreserba dutenek ere eman behar dute izena.

Antzuolako biraren 3. etaparen ostean bazkaria egingo da Gorlako aterpetxean

U.A. | ANTZUOLA

Irailaren 11n, domeka, Antzuolako biraren hirugarren etapa eta azkena egingo du Arrolak. 09:00etan Olarandik irten eta ibilbide hau egingo dute: Oñati bidetik Korosora, Arrola, Kimuberri, Deskarga, Trekutz, Gorlako Aterpean bazkaria, Trekutz, Antzuola. Ez dago izena eman beharrik.

Bazkarirako izen-ematea

Biraren barruan, bazkaria egingo dute Arrolakoek Gorlako aterpetxean. Horretarako, izena eman beharra dago aurretik. Izen-ematea irailaren 7an, eguaztena, egingo da Arrolak Olaranen duen lokalean, 19:00etatik 20:00etara bitartean. Bazkaria norberak ordaindu beharko du eta menua erabakitzeko dago.



Muru landetxea: hamar urte ume sahararrei beste uda bat eskaintzen

J.B. | ARAMAIO

Gantzaga auzoan dago Muru landetxea, uda igarotzeko paraje ederrean. Bada, landetxeko arduradun Paki Gil eta Mario Cerratok hamar urte daramate ume sahararrak ekartzen.

Azken urteetan Daidhum Ihaj hamar urteko haurra ekarri dute gurera. Hala, Mario Cerratok Aramaion izan zen tartean –ekainaren 23an etorri zen eta abuztuaren 23an joan– zer egiten zuen azaldu digu: "Hemen daudenean han egin ezin dutena egin dezaten saiatzen gara: hondartzara joan, lagunekin egon... Izan ere, oso harreman ona dauka herriko haurrekin eta etxetik irteten zenean gutaz erabat ahazten zen".

Ume sahararrak ekartzea esperientzia aberasgarria izan zaiela adierazi dute landetxeko arduradunek: "Niretako harrigarriena izan da pobreziatik horren gertu bizi arren bizitasun eta poztasunean askogatik irabazten digutela. Beste poztasun bat daukate, duda barik". Horregatik esperientzia gomendagarria dela dio Cerratok: "Halako esperientziak denondako aberasgarriak dira, beste mundu batzuk daudela egiaztatzeko".

Udalaren esker ona

Hala, Cerrato eta Gilek egindako lana errekonozitu gura izan du Udalak, laguntza txiki batekin eta hainbat oparirekin. Honela azaldu du Edurne Uribarren-Iturrietak, Ongizateko zinegotziak: "Aramaion familia bakarra dira hamar urtean segidan ume sahararrak ekarri dituztena, eta hori txalotzekoa da. Euren lana ezagutzera emanda beste familia batzuk ere animatu gura ditugu".

Hamar urteotan hiru ume pasatu dira Muru landetxetik. Ia uda osoa egin izan dute bertan. Izan ere, bereziki gogorra izaten da uda ume sahararrendako eta kanpaina horien helburu nagusia da Saharan ase ezin ditzaketen oinarrizko beharrak asetzea.

Daidhum Ihaj –kamerari begira– izan da aurten Muru landetxean. | PAKI GIL

Jaiek ez dute etenik auzoetan: domekan Marixeka hartuko du jai giroak

J.B. | ARAMAIO

Abuztuaren 28an San Adriango jaiak ospatu ziren. Bada, domeka honetan, Marixekan ospatuko dituzte jaiak. Marixekako elkarte gastronomikoak antolatzen ditu jaiak eta elkarteko presidente Patxi Aiastuiren arabera, "giro polita" egon ohi da: "Egia da azken urteetan jaiek apur bat behera egin dutela, lehen dantzariak-eta izaten ziren. Hala ere, urteroko hitzordua da aramaioar askorendako".

Goiz eta arratsalde

09:00etan suziri jaurtiketarekin hasiko dira jaiak. 11:00etan salda, txorizoa eta tragoak egongo dira eta 12:00etan meza. Mezaren ostean erromeria izango da Joxe Gardokiren eskutik, bazkalordura arte. Elkarteko bazkarian 45 bat lagun batuko direla aurreikusten du Aiastuik.

Egitaraua amaitzeko, nola ez, Gorriti eta haren animaliak joango dira haur eta gaztetxoen gozamenerako.

Txirritolaren postal lehiaketako izen-ematea irailaren 15era arte egongo da zabalik

Udako oporraldietan ireki zen Txirritola euskara elkartearen postal lehiaketa eta oraindik zabalik dago izen-ematea: irailaren 15a da azken eguna. Aurtengoa zazpigarren edizioa da eta epaimahaiak originaltasuna, euskara maila eta ahalegina hartuko ditu kontuan. Horrez gain, postalak deskribapen laburra izan beharko du. Saria izango da Nafarroako landetxe baten bi pertsonarendako egonaldia. Bada, postalak kultura etxera bidali beharko dira, posta zerbitzu arruntaren bidez.



Enrike Vazquez Aramaioko parrokoa San Martin elizako organoan harrapatu genuen, martitzenean. | JOKIN BEREZIARTUA

Enrike Vazquez | Aramaioko parrokoa

"Zuk konposatu duzun pieza bat mundu osoan entzutea izugarria da"

- Aita Santuaren Gazteriaren Munduko Jardunaldietako ereserkia egin zuen
- Gustura dabil Aramaion, baina lehen urtea zailena izaten dela aitortu digu

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Urrian urtebete egingo du Enrike Vazquezek (Gasteiz, 1964) Aramaioko parroko moduan. Bada, orain mundu osoan entzun den abesti bat konposatu zuelako da albiste. Izan ere, abuztuan egindako Aita Santuaren Gazteriaren Munduko Jardunaldietarako ereserki ofiziala egin zuen. Jardunaldien lema bera du izenburu ereserkiak: *Tinko fedean*.

Zergatik uste duzu aukeratu zintuztela mundu osoan entzungo zen ereserkiaren musika egiteko?

Duela bi urte Madrilgo gotzainak deitu zidan ereserkiaren musika egiteko proposatuz. Bost urte egin nituen Erroman eta bertan ezagutu genuen elkar; suposatzen dut horregatik izango zela.

Izan ere, betidanik izan dut musikarako zaletasuna. Kontserbatorioan ikasi nuen; 2000. urtean atera nuen konposizio eta instrumentazio titulua.

Nola eratu da kantua, hasieratik bukaeraraino?

Kantuaren hitzak pasa zizkidaten eta hortik abiatuz melodia egin nuen. Uneoro esan nien gustukoa ez bazuten alda zitekeela baina, antza, nire lana gustatu zitzaien. Madrilen onartu ostean Erromara joan ginen behin betiko onarpena jasotzeko. Onarpena jaso ostean beste bertsio bat sortu nuen, lau ahotseko koroarendako eta organoaren laguntzaz interpretatzeko.

Jardunaldien leloa aukeratu zuten abestiaren izenbururako: *Tinko fedean*. Kantuaren hitzak oso teologikoak dira baina, gazteen jardunaldiak zirela kontuan izanik, hiru bertsio egin genituen: liturgikoa bat; pop bertsioa bigarrena; eta sinfonikoa hirugarrena. Hala, Madrilgo jardunaldietan gehien entzun zen bertsioaren estreinaldia El Escorial monasterioan egin zen. Bertan 70 musikariz osatutako orkestra eta 150 bat korista izan ziren.

> "70 musikariz osatutako orkestra eta 150 korista izan ziren estreinaldian"

Nola jaso zenuen albistea?

Oso pozik hartu nuen. Zuk konposatutako pieza bat mundu osoan eta horrenbeste musikari eta abeslariren artean entzutea izugarria da. Esperientzia ezin aberasgarriagoa izan da niretako.

Ondo joan ziren jardunaldiak?

Merezi izan zuen, zalantza barik. Aita Santuaren mezaren aurretik, lehenengo meza Madrilgo kardinalak eman zuen eta harekin batera meza emateko bi ordu lehenago egon behar zinen han, sekulako beroarekin. Hala, ospakizun handirako orkestra eta koroarekin batera egotea erabaki nuen.

Bestalde, ekaitza egin zuen gauean, sokazko instrumentu jotzaileek oholtza utzi behar izan zuten, instrumentuak hondatuko ziren beldurrez.

Amaitzeko, zer moduz Aramaion?

Gustura. Hala ere, lehen urtea da zailena; herritarrak ezagutzeko denbora gehiago behar dut.

100 urte egin ditu Timotea Kortabarriak

Timotea Kortabarria aramaioarrak omenaldia jaso zuen abuztuaren 22an Gasteizen duen etxean, 100 urte bete zituelako. Senideez gain, udal ordezkariak ere izan ziren bertan. Hunkituta hartu zuen bisita.

ARAMAIOKO UDALA

ELGETA

Iaz baino jende gutxiago izan dute herriko landetxeetan

Ibilbide tematikoaren bisita gidatuetan, aldiz, leku barik geratu da jendea

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Lasai joan da abuztua Elgetan. Salbador eta San Roke egunen ospakizunak kenduta, herritar ugarik kanpoan eman du abuztua.

Landetxeetan ere aurreko urteetan baino mugimendu txikiagoa izan dutela adierazi digute. Eguzkitzan abuztu erdiko bi asteak nahiko ondo joan direla esan digute, baina, gainerakoan, nahiko pobre. "Teruel, Bartzelona, Madril, Valentzia eta Alemaniako jendea izan dugu etxean", adierazi digute. "Bizpahiru eguneko egonaldiak egin dituzte eta Donostia eta Bilbora egin dute, gehienbat".

Barrenenguan ere nabaritu dute jaitsiera. "Iaz baino jende gutxiago izan dugu eta etorri direnak Kataluniatik etorri dira, gehienbat". Astebete inguruko egonaldiak izan dituzte landetxe horretan, eta, kostaldera, egiteaz gain, bisitariak barrualdean ere ibili direla adierazi digute. "Oñati eta inguruko parke naturalak ere aukeratu dituzte".

Aurrerantzean, ostatu hartzeko establezimendu berria izango dugu Elgetan; San Roke kaleko Maialde hotela, hain zuzen ere. Berritze lanetan ibili dira Jesus Kalboetxeaga eta Izarra Arriaran ugazabak, biak bergararrak. Hotelak zazpi logela, taberna eta jatetxea ditu. Bazkaltzeko menua ere eskaintzen dute.

Ibilbide tematikoa

Bisitari aldetik arazorik izan ez dutenak ibilbide tematikoko arduradunak izan dira. Bi bisita gidatu egin dituzte abuztuan eta jendea leku barik geratu da.

Asentzioko autokarabanendako gunea. | L.Z.

Asentzio, autokarabanendako gidan

Elgetako Udalaren ekimenez *aisialdirako gune* katalogatu dute Asentzioko parkinga *www.areasac.es* webgunean. Doakotasuna, ingurune naturala, komuna, otorduak egiteko mahaiak eta gaua pasatzeko lasaitasuna nabarmentzen dituzte fitxan. Udal webguneak ere jasotzen du lotura.

Zazpi kirol jarduera ikasturterako eskaintzan

Izen-ematea zabalik dago udaletxean; plaza hartzeko hilabete bateko kuota aurreratu behar da

L.Z. | ELGETA

Astelehenetan eta eguaztenetan karatea (17:30), yoga (19:00), eta tai txia (20:15) egongo dira; martitzenetan eta eguenetan, berriz, eskola kirola (16:30 eta 17:30), mantentze-GAP (18:30) eta spinninga (19:30 eta 20:15). Udalak erretiratuendako gimnasia saioak mantentzea erabaki du, baina astean saio bakarra egingo dute; martitzenetan 15:30ean.

Jakinarazi dute spinningeko bi taldetan lehentasuna izango dutela aurreko kurtsoa amaitu eta irailaren 13a aurretik izena ematen dutenek.

Lehenengo kuota aurretik

Osatzen diren taldeek ikasturte amaierara arte iraun dezaten, edozein jardueratan izena ematearekin batera hilabete bateko kuota ordaindu beharko da. Ikasturtean zehar jarduera lagatzen duenak galdu egingo du kuota hori eta ikasturtea bukatzen dutenei ez zaie ekaineko kuota kobratuko. Kuotak 20-30 euro bitartekoak dira. Salbuespena dira erretiratuendako saioak –hileko bost euro– eta eskola kirola saioak –urteko 50 euro–. Jarduerak urrian jarriko dira martxan.

Kirol instalazioen erabilera

Kiroldegiko frontoia, sauna, squash pista eta gimnasioa herritarren erabilerarako daude. Frontoia ordubete erabiltzea 10 euro da; argiarekin 15 euro. Saunaren zein squash pistaren prezioa orduko 4,5 euro da. Azken horretan, kurtsorako ordu erreserba eginez gero prezioa 3,90 euro da. Gimnasioan dauden spinningeko bizikletak eta gainerako makinak erabiltzeko orduko bi euro kobratuko da. Gimnasio osoa alokatzea, aldiz, bost euro.

Artista entzutetsuak Espaloiaren udazkeneko egitarauan

L.Z. | ELGETA

Leo Bassi, Ruper Ordorika eta Zea Mays Espaloian izango dira datozen hilabeteotan. Udazken-neguko programazioa aurreratu digute arduradunek eta izen aski entzutetsuak aurkitu ditugu bertan.

Leo Bassi izango da lehenengoa Espaloiko agertokira igotzen. Irailaren 30ean *Utopia* ikuskizuna eskainiko du. Urriaren 9an, Iñaki Salbadorrek *Lili bat* saioa egingo du Elgetan; Mikel Laboa gogoan egindako muntaia. Urriaren 21ean, Zea Mays eta Split 77 taldeen emanaldia izango dugu kafe antzokian eta azaroaren 26an, arrakasta handia izan duen *Errautsak* antzezlanaren azken emanaldia egingo du Ander Lipusek Espaloian.

Ruper Ordorika ere Elgetan izango da urtea amaitu aurretik. Disko berria prestatzen ari da, eta, gauzak ondo bidean, Espaloian aurkeztuko du.

Zinekluba eguaztenero

Ez du abuztuan etenik izan eta Espaloiko zineklubeko kideek gertu dute iraileko programazioa. *Algo pasa en Hollywood* (hilak 7), *Mal día para pescar* (hilak 14), *El americano* (hilak 21) eta *Salidos de cuentas* (hilak 28) filmak emango dituzte. Hitzordua, eguaztenero, 21:30ean.

Uztaileko aisialdi zerbitzuaren gaineko balorazioa udaletxean entregatzeko eskatu dute antolatzaileek

Zerbitzuaren ordutegia, ekintzen nolakotasuna, hezitzaileen jarduna, landutako gaiak... erabiltzaileen balorazioa jaso nahi dute aisialdiko hezitzaileek eta uztail amaieran umeen artean banatutako inkestatxoa bete eta udaletxera eramateko eskaera egin dute. Iraileko lehenengo hamabostaldian ere jasoko dituzte balorazio-orriak. Datorren urteari begira garrantzitsua deritzote erabiltzaileen iritzia ezagutzeari. Udaletxean entregatu behar dira balorazioak, sarreran egongo den postontzian sartuta.

Elgetako Herri Eskolan eguaztenean, hilak 7, emango diote hasiera ikasturte berriari

Ikasturte hasiera pausatua egingo dute Elgetako eskolaumeek. Lehenengo bi egunak goizeko ordutegiarekin egingo dituzte eta barikua jaieguna izango da. Jangela zerbitzua eguaztenean bertan jarriko dute martxan. Ohiko ordutegia astelehenean, hilak 12, hasiko dute. Zortzi unitateko eskola izango da Elgetakoa; aurreko urteetan baino bat gehiago. "Aholkulariaren figura ere izango dugu", aipatu du Emma Igartua zuzendariak.

OHARRAK

ESPAINIAKO ITZULIA

Hilaren 10ean, zapatua, Elgetatik igaroko da Espainiako Itzuliko azken aurreko etapa. Aurreikuspenen arabera, 14:00 -14:30 inguruan igaroko da tropela Elgetatik. Kataitik etorriko da eta Bergara aldera egingo du Kataidetik igarota. Lasterketa dela-eta zirkulazio aldaketak egongo dira herrian egun horretan.

BISITA LUBAKIETARA

Udalak aurreratu du irailerako ere bi bisita gidatu antolatuko dituela Intxortako ibilbide tematikora. Irailaren 11n eta 25ean egingo dira eta ezinbestekoa izango da aurrez izena ematea; 943 79 64 63 edo 943 71 89 11. Hiru orduko txangoa da eta prezioa, helduendako, bost euro da. 6-16 urte bitarteko umeendako, berriz, bi euro.

LEINTZ GATZAGA

Iñaki Agirreurreta da Bideberri mankomunitateko lehendakariordea

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Maiatzean egindako hauteskundeen ostean aldaketak egon dira mankomunitateetan ere, eta Antzuolak, Elgetak eta Gatzagak osatutako Bideberri mankomunitateak dagoeneko hautatu du datozen lau urteotarako Gobernu Batzordea: lehendakaria, Nagore dos Santos Romaratezabala (Antzuola); lehendakariordea, Iñaki Agirreurreta (Gatzaga) eta diruzaina, Marga Castro (Elgeta). Agirreurreta da, hain zuzen, Gizarte Zerbitzu eta Kultura Saileko zinegotzia Gatzagan.

Bideberri 2007an sortu zuten, Debagoieneko hiru herri txikienetako gizarte zerbitzuak kudeatu eta zerbitzu egokia emateko.

Argibideak, udal webgunean

Bideberrik kudeatzen dituen zerbitzuen berri udal webgunean jaso daiteke –*www.leintzgatzaga.com*–. Argibide garbiak daude bertan herritarrendako –diru-laguntzak, informazio eta aholkularitza zerbitzuak...–, eta Udalak kudeatzen ez dituen baina interesgarriak diren lotura askoren berri ere ematen dute.

Hala ere, gizarte langilearekin zuzenean egon gura izanez gero martitzenetan jo behar da udaletxera, txanda aurrez hartuta.

KZgunea hilaren 12an eta 26an zabalduko dute, arratsaldeetan

Oporrak eta herriko jaiak bukatu ondoren, irailean bi astelehenetan zabalduko dituzte KZguneko ateak: 12an eta 26an. Arratsaldeetan (16:00 -20:00) izango da Aitor Madrid dinamizatzailea, eta hainbat ikastaro eskainiko dizkie 16 urtetik gorako herritarrei. Kezkak eta zalantzak ere argituko ditu.

Hilaren 17an omenduko ditu Udalak herriko nagusiak

Urteroko ohiturari jarraituta bazkaria eskainiko die herriko nagusiei Udalak, Andramari jaiak pasatu eta hurrengo zapatuan. Irailaren 17an izango da, eta Gatzagako erretiratuek egun-pasa polita egiteko aukera izango dute, bapo bazkaldu, lagunartean kontu kontari jardun eta karta jokoan eginda.

FUTBOLA

Denboraldi-aurreko partiduak bihar Mojategin, Ibarran eta Azkoagainen

Oñatikoek Jose Luis Agirreren lehen oroimenezkoa jokatuko dute

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Futbolistak batere gogoko ez duten sasoian murgilduta daude: denboraldi-aurrea. Ohorezko erregionaleko taldeak denboraldia prestatzeko lanetan dabiltza buru-belarri –oraingo astean talde batzuk egunero entrenatu dute–. Bolumena lantzeko sasoia da, baloi gutxi, korrika asko, nahiz eta norbaitek esango duen horiek garai zaharragoetako kontuak direla, gaur egungoa futbol modernoa dela.

Eta, aste barruko lan hori fintzeko balio dute lagunarteko partiduek. Hala, zapatu arratsaldean hiru hitzordu ezberdin izango ditugu ibarrean, Oñatin 17:00etan, Arrasaten 16:30ean eta Aretxabaletan 19:00etan.

Aloñaren iazko gol erabakigarria; gol horri esker oñatiarrek irabazi zuten torneoa. | JOSETXO ARANTZABAL

Arrasate Hiria torneoa

Joan den astean mahoneroek irabazi zuten Bergara Hiria txapelketa, eta bihar jokatuko dute arrasatearren torneoa. 16:30ean hasita aurrez aurre izango dira Mondra, Bergara eta Aretxabaletako bigarren taldea. Eta bigarren taldea diogu, UDAko lehenengo taldeak Ibarran jokatuko duelako lagunartekoa, bihar, Amurrioren kontra (19:00). Arrasate aldean ez dute oso ondo hartu Aretxabaleta bigarren taldearekin joatea –ulergarria da– baina erabaki horren atzean ez da fede txarrik egon, UDAko entrenatzaile Juanan Cruz-ek adierazi moduan: "Duela hilabete eta erdi hasi ginen denboraldi -aurreko planifikazioa egiten, eta orduan adostu genuen Amurriorekin oraingo asteburuan lagunartekoa jokatzea. Eta, Arrasatekoen gonbidapena ondoren jaso dugu".

Horrenbestez, 16:30ean jokatuko dute Mondrak eta Bergarak, 17:30ean Bergarak eta Aretxabaletak, eta 18:30ean Aretxabaletak eta Mondrak.

Oñatikoek ere hitzordu propioa izango dute, Jose Luis Agirreren lehen oroimenezkoa egingo dutelako bihar, 17:00etan, Azkoagainen. Aloñak Gasteizko Aurrera taldearen kontra jokatuko du eta partidua erabiliko dute Aloñaren aurkezpen ofiziala egiteko. Hala, Asteleheneko *Goiena*-n talde guztietako jokalariak aurkeztuko dizkizuegu.

Sustrai Aloña Mendikoak, aurkezpen ekitaldian. | T.MADINA

SASKIBALOIA

Aldaketak Euskal Kopan: Aloñak Zornotzaren kontra jokatuko du

X.U. | ARRASATE

Irailaren 10ean hasiko du kategoriaz igo berri den Sustrai Aloña Mendik denboraldia, baina ez ligan, Euskal Kopan baizik. Uztailean aurreratu zuen Goienak Igartuaren eta Alartziaren mutilek kopan Azpeitiko Iraurgi izango zutela aurrean, baina aldaketak izan dira eta oñatiarrek Zornotza –EBAkoa– gainditu beharko dute (18:00).

Lagunartekoa irailaren 8an

Euskal Kopan ez bada ere, Sustrai Aloña Mendik eta Azpeitiko Iraurgik lagunartekoa jokatuko dute, irailaren 8an, Zubikoan (19:30). Oñatiarrek lehenengoz ikusi ahal izango dute EBA mailako taldea.

Bestetik, Iraurgiko elastikoarekin ikusi ahal izango dugu Beñat Barberera arrasatearra, talde azpeitiarraren fitxaketa.

AUTOMOBILISMOA

Aramaioko rallyspinta egingo dute irailaren 17an, nobedadeekin

X.U. | ARRASATE

Azpikoracing taldeko lagunak buru-belarri dabiltza irailaren 17an egingo duten rallysprinta antolatzeko lanean. Iaz parte -hartze ederra egon zen, eguraldiak lagundu egin zuen, eta irabazleari dagokionez ezustekoa izan zen, Ander Vilariño ez zelako lasterketara agertu –egun gutxi lehenago saldu zuen autoa. Egoera horren aurrean, garaipenerako bigarren hautagai Joseba Zapirainek (Peugeot 206 WRC) ez zuen kontrariorik izan. Lehenengo bi txandak topera egin zituen (04:07:07, eta 04:07:00) eta arriskatzen ibiltzeak zentzu handiegirik ez zuela ikusita, hirugarrenean hanka altxa zuen.

Antolatzaileek adierazi dute aurtengo edizioan posible dela sorpresaren bat edo beste egotea, baina ez dute ezer aurreratu nahi izan.

PILOTA

Antiguako torneoan Beñat Rezusta bergararrak eta Ibai Bolinaga arrasatearrak jantzi zuten txapela

Joan den asteburuan jokatu zuten Antiguoko pilota txapelketa, eta Debagoieneko bi pilotari izan ziren finaletan, baita biek txapela irabazi ere. Batetik, gazte mailako partiduan Bergarako Beñat Rezustak eta Amezketako Gallurraldek irabazi zuten –Rezusta finaleko jokalari onena izendatu zuten–. Afizionatuen mailan Ibai Bolinagak iazko arantza atera ahal izan zuen; iaz finala galdu zuen, baina aurtengo finalean, abuztuan izandako bolada ona biribildu zuen [Elkarrizketa 14. orrian].

PILOTA

Bergarako pilotari gazteek hasi dute ikasturtea

Kadete eta gazte mailetako pilotariek hasi dute ikasturte berria, eta astelehen eta eguaztenetan elkartzen dira entrenatzeko, 18:00etan hasita. Eskola arteko pilotariei dagokienez, 6-10 urtekoak irailaren 23an hasiko dira (17:00), 11-12 urtekoak irailaren 20an (18:00), eta 13 urte dituztenak irailaren 5ean (19:00).

FUTBOLA

UDAk Murrukixoko lokalean banatuko ditu bazkide txartelak

Aretxabaleta Kirol Elkartea oraingo astean bertan hasi da bazkideei 2011-2012 denboraldiko txartelak banatzen, eta datorren astean ere Murrukixoko egoitzan egongo dira, hilaren 7an eta 8an, 19:00etatik aurrera (Durana kalean). Hala, Aretxabaletako elkartetik eskerrak eman nahi dizkiete bazkideei emandako erraztasunengatik.

GIMNASIA ERRITMIKOA

Dragoikoek astelehenean hasiko dute ikasturtea

Arrasateko gimnasia erritmikokoek, Dragoi taldekoek, irailaren 5ean, hurrengo astelehenean, hasiko dute ikasturte berria. 17:00etan dute hitzordua Uarkapen, 2011-2012 denboraldiko lehen lan-saioa egiteko. Entrenamenduak, urtero bezala, astelehen, eguazten eta egubakoitzetan egingo dituzte, 17:00etatik 19:00etara.

TXIRRINDULARITZA

Markel Irizarrek beste bi urte egingo ditu RadioShacken

Jakinekoa zen, Markel Irizarrek berak onartuta, gauzak ondo bidean Oñatikoak ez zuela arazorik izango Johan Bruyneelen RadioShack taldean jarraitzeko. Eta badirudi talde amerikarra Leopard Trek-ekin elkartzeak ez duela horretan aldaketarik eragingo, Irizar akordiora iritsi da-eta RadioShackekoekin, bi urterako.

FUTBOLA

Jon Urtzelai jokalari oñatiarrak futbola uztea erabaki du

Jon Urtzelaik (Oñati, 1977) futbola uztea erabaki du, kirol ibilbide oparoa izan eta gero. Realeko harrobikoa, Oñatikoak ez zuen lehenengo taldean debuta egin, baina Murtzia,Vecindario eta Eibar taldeetan jokatu du. Azken urtea lesionatuta egin du Eibarren, eta horrek erraztu dio botak zintzilikatzeko erabakia hartzea.

TWITTER kontu bana, herri eta gai bakoitzeko

Goiena Komunikazio Taldea: @goiena

Kontu horretan Goienaren inguruko berriak, telebistako programazioa, azken ordukoak... jasoko dituzu.

HERRIAK

Antzuola: @antzuolagoiena
Aramaio: @aramaiogoiena
Aretxabaleta: @aretxagoiena
Arrasate: @arrasategoiena
Bergara: @bergaragoiena
Elgeta: @elgetagoiena
Eskoriatza: @eskogoiena
Oñati: @oinatigoiena

GAIAK

Ekonomia: @ekonomiagoiena
Hezkuntza: @hezkuntzagoiena
Kirolak: @kirolakgoiena
Kultura: @kulturagoiena
Osasuna: @osasunagoiena
Teknologia berriak: @teknonetgoiena
Goiena Kluba: @goienakluba

Egin zaitez jarraitzaile!

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

Ikus itzazu argazkiak, astero, asteleheneko Goiena paperean

UDAKO ARGAZKIEN VII. GOIENA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

Bidali zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!

Argazki guztiak fotoblog honetan: *goiena.net/blogak/argazkiak*

IDOIA ITURRALDE

LARA GONZALEZ

MIGUEL DE GANESHA

Har ezazu parte!

Oinarriak

- **Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:**
  - **Egilearen izen-abizenak eta herria.**
  - **Harremanetarako telefonoa.**
  - **Argazkia noiz eta non ateratakoa den.**
  - **Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.**
- **Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 1etik irailaren 16ra arte.**
- **Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean ondo erreproduzitzeko adinako bereizmenarekin).**
- **Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.**

- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: *argazkiak@goiena.com* helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate ARETXABALETA: Basabe poligonoa E05 edo Durana 11-2 solairura, 20550 Aretxabaleta.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Egoitzara ekartzekotan kartazal batean sartuta, CD batean, edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPG formatuan.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri-beltzean.
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren erdialdetik aurrera asteleheneko Goiena paperean eta Goiena.net-n sortuko dugun foto-blogean. Goiena telebistan ere erakutsiko dira argazkiak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 3an jakingo dugu asteleheneko Goiena paperean.
- Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko dituzte kontuan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkia guztiak Goienako artxiboan gordeko dira eta aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

Sariak

1. saria

Panasonic LUMIX DMC G10 argazki kamera digitala eta KB Photoestudiok eskaintzen dituen ikastaroetako batean, %50eko deskontu bonoa Bergarako KB Photoestudio argazki dendaren eskutik.

- 12 megapixel.
- LUMIX G VARIO 14-42mm / F3.5-5.6 objektiboa.
- 3 hazbeteko LCD pantaila.
- Live View Dual denbora osoan.
- Flash eta guzti.

2. saria: Cantabrian bi lagunendako astebukaera bateko egonaldia. Arrasate Bidaiak-en eskutik.

3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

ANTOLATZAILEA: goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

BABESLEA: gizarte kutxa

LAGUNTZAILEAK: KB photoestudio www.kbphotoestudio.com · Panasonic LUMIX · GURE AMETSA JATETXEA · ARRASATE BIDAIAK

KULTURA

Oroitzapenerako doinuak

- Donostiako Orfeoiak eta Bilboko Udal Bandak kontzertua eskainiko dute hilaren 9an
- Ulmaren 50. urteurrenaren harira antolatutako kontzertua izango da Oñatikoa

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Oroitzapenerako kontzertua izenarekin aurkeztu dute datorren egubakoitzean, hilak 9, Donostiako Orfeoiak eta Bilbao Musika Udal Bandak eskainiko duten kontzertua. Ulma kooperatibaren 50. urteurrenaren ospakizunen harira antolatutako kontzertua izango da.

Egubakoitzean 21:00etan hasiko da kontzertua Oñatiko plazan eta ordubete inguru iraungo du. Jose Antonio Sainz Alfaro da Orfeoiko zuzendaria eta Rafael Sanz-Espert, Bilbao Musika Udal Bandakoa.

Donostiako Orfeoia, Donostiako Kursalaren aurrealdean. | ORFEOIA

Oñatiarren presentzia

Maila handiko bi taldek jardungo dute Oñatin; eta plazan jardungo dutenen artean oñatiarrak ere egongo dira. Hain zuzen, Esteban Urtzelaik kantuan jardungo du Orfeoiarekin.

2006an hasi zen Orfeoiarekin abesten Urtzelai. Gaur egun, tenore moduan dabil, eta zuzendari orde lanak ere egiten ditu. Sainz Alfarorekin batera jarduten du entseguetan; kontzertuak, baina, Sainz Alfarok zuzentzen ditu.

Zuzentzen edo abesten, non dagoen gusturen galdetu diogu Urtzelairi: "Ba, egia esan biek dituzte gauza politak. Kantuan egitea ikaragarri gustatzen zait; hortaz, barruan, talde lanean zaudela ikustea oso polita da, eta kantuan disfrutatzea eskuz esku duzunekin. Baina aldi berean aurrean jarri eta zure eskuetan ehun pertsonen ahotsak izatea oso polita da, gogorra eta konpromiso handiagoa eskatzen duen lana, baina oso erakargarria".

Bi adar izango ditu saioak

Kontzertuak bi adar izango ditu. Alde batetik euskal kantuak abestuko dituzte eta bestetik operako zatiak eskainiko dituzte.

Euskal kantuei dagokienez Guridiren *El Caserio*, *Hegoak ebaki banizkio*... eskainiko dute: "Bilboko Bandako zuzendariak antolatuta euskal kantu ezberdinak batuko dituen abestia eskainiko dugu", azaldu du Urtzelaik. Kantu ezagunak izango direla aipatu du: "Bai euskal kantuak eta baita opera zatiak ere ezagunak izango dira entzule gehienendako", gaineratu du Urtzelaik.

Lehenengo aldia da bi taldeek elkarrekin joko dutena. Hala ere, aipatu behar da Orfeoiko zuzendariak gidatu izan duela Bilboko Udal Banda zuzendari gonbidatu bezala. Bilboko Bandaren gainean Urtzelaik dio: "Bilboko banda profesionala da eta erreferentzia onak ditugu. Hortaz, ilusioarekin gaude". 1895ean, Areatzako kioskoan eskaini zuen lehenengo kontzertua Bilboko Udal Musika Bandak. Gainera, 70eko hamarkada amaieran Antonino Ibarrondo oñatiarra Bilboko Udal Musika bandako zuzendaria izan zen. 32 urtez Oñatiko Bandako zuzendaria izan ondoren 1972an Sestaoko Udal Musika Banda zuzentzera joan zen eta han zazpi urte egin ondoren Bilbokoaren zuzendaritza hartu zuen.

GOIENA

ESTEBAN URTZELAI
ORFEOIKO KIDEA

"Orfeoiarekin Oñatira joateak ilusio handia egiten dit"

Oñatin hasi zuen abesbatzen ibilbidea Esteban Urtzelaik. 2004an Orfeoi Txikia zuzentzen hasi zen eta 2006a ezkero Orfeoian abesten du Urtzelai oñatiarrak.

Berezia izango da Oñatin abestea?

Bai, niretako bai. Azken finean, Oñatin hasi nintzen koru munduan eta orain, bizitzako kontuak direla-eta, Oñatiko lotura koralak moztuta ditut; hortaz, orain egiten nabilenarekin Oñatira itzultzeak ilusio handia egiten dit.

Jarraitzen duzu Ganbara abesbatza?

Bai, ilusio handiarekin bizi izan genuen uztailean lortutako bigarren sari hori. Trantsizio garaia bizi izan dute, baina ez dira geldi egon, atzeko lana egiten ibili dira eta orain fruituak eman ditu lan horrek.

Bilbao Musika Udal Bandaren irudia. | BILBAO MUSIKA

El Caserio-ren *Preludio* eta *The best of Manchini* lanak Bilboko Udal Bandak bakarrik joko ditu; gainerako abestiak bi taldeek batera eskainiko dituzte.

1.000 aulki jarriko dituzte

Antolatzaileek azaldu dute agertokia Oñatiko udaletxearen aurrealdean jarriko dutela. Plazan 1.000 aulki jarriko dituzte, eta, arratsalde partean hesituta egongo den arren, ondoren zabaldu egingo dute. Kontzertua doan izango da. Antolatzaileek gaineratu dute datorren egubakoitzean euria egingo balu kontzertua bertan behera geratuko litzatekeela.

KONTZERTUKO EGITARAUA

- *Aita Gurea* (P. Madina)
- *El Caserio* (J. Guridi)
  Preludio (II. acto)
- *Kantaldia* (I. Urkizu)
- *Principe Igor* (A. Borodin)
  Danzas polovtsianas 17
- *The Best of Manchini*
  Arrg/Mold. w. Hautvast
- *Cuadros vascos* (J. Guridi)

Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

AKUPUNTURA

INTEGU
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

ALBAITARIAK

ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)
Bergara / 609 54 16 13

DENTISTAK

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANO
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

LOPEZ DE GOIKOETXEA
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

YOGA

SAMADHI YOGA
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Itsaso Gutierrez, Jon Kirru Iparragirre eta Iñaki Bengoa, Arrasateko Shot estudioan. | ARANTZAZU EZKIBEL

Durangoko Azokarako diskoa kalean izatea da Xarma taldearen asmoa

Abuztuan grabatu dituzte abestiak; orain, nahasketekin dabiltza

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Danbaka lehiaketako irabazleen saria diskoa grabatzea izaten da; bada, azken edizioko Xarma irabazleak horretan buru-belarri dabiltza. Abuztu erdialdean hasi ziren abestiak grabatzen eta asteon, martitzenean, amaitu dituzte grabazio lanak, Arrasateko Shot estudioan. Orain, nahasketak egin behar dituzte. Xarma taldekoen asmoa da abendurako, Durangoko Azokarako, diskoa kalean izatea.

Karenka izango da Xarmaren bigarren lanaren izena. 12 abestiz osatutako diskoa izango da, guztiak euskaraz. "Diskoko abesti ia guztiak guk sortutakoak dira; abesti bat izan ezik; hori Ondarroako RKS taldearen bertsioa izango da". *Karenka*-k *aurrez aurre* esan gura duela azaldu dute Xarmako kideek.

ESANAK

"Bigarren disko honetarako soinu indartsua egin nahi izan dugu"

ITSASO GUTIERREZ | GITARRISTA

Disko gogorragoa

"Abesti landu, indartsu eta zuzeneko tinkoa" dutela aipatu zuen Danbakako epaimahaiak Xarmari lehenengo saria emateko orduan. Itsaso Gutierrez taldeko kideak dio bigarren disko hori are eta gogorragoa izango dela, eta hori bilatzera joan direla: "Soinu indartsuagoa egin nahi izan dugu; guk nabaritu dugu aldea eta uste dugu entzuleek ere nabarituko dutela", azaldu du. *Amarauna* lehenengo diskoa atera zutenetik Xarmak eboluzioa izan duela gaineratu dute bai Gutierrezek eta baita Jon Kirru Iparragirrek ere.

Rocka da Xarma taldearen ardatza, eta doinu horietan bere ibilbidea egiten jakin du Xarmak.

Gustura egindakoarekin

Azken asteotan egin duten lanarekin oso gustura geratu dira Xarmakoak: "Gustura egon gara Shot estudioan Iñakirekin eta lan ona egin dugula uste dut", azaldu du Gutierrezek.

Diskoa Durangoko Azokarako kalean izatea espero dute. Diskoan, gainera, Intxorta 1937 kultura elkartearendako eta Ikasle Abertzaleendako egindako abestiak ere sartu dituzte.

Danbakak izan duen eragina

Danbaka irabazteak eraginik izan duen galdetuta, Gutierrezek eta Iparragirrek aipatu dute eragina izan duela; baina, uda honetan, esaterako, disko berriko abestiak prestatzen buru-belarri lanean ibili direla eta kontzertuak eskaintzeko denborarik ez dutela izan azaldu dute.

Bestalde, gaineratu dute diskoa grabatzeko aukera izatea zoragarria dela; izan ere, finantziazioa bilatzea izaten da zailena. "Dirua behar da diskoa grabatzeko", dio Gutierrezek.

Bateria-jole berria izango dute

Taldeari dagokionez, aldaketak izango dituzte aurrera begira. Orain arte bateria-jole izan den Josuah Froufek taldea utzi du eta haren ordez Denis Alberdi berriztarra sartuko da taldean. Keike taldean ibilitakoa da Alberdi, Gutierrez eta Iparragirrerekin batera.

Asier Altunaren 'Bertsolari' lana Zinemaldian aurkeztuko dute

Bergararraren lana sail ofizialean ikusiko da, baina lehiaketatik kanpo

A.E. | BERGARA

Asier Altunaren *Bertsolari* dokumentala urriaren 14an estreinatuko dute zinema areto komertzialetan. Aurretik, hala ere, Donostiako Zinemaldian aurkeztuko dute. Irailaren 16tik 24ra bitartean izango da aurten. Sail ofizialean hartuko du parte, baina lehiaketatik kanpo.

Bertsolaritzaren gaineko dokumentala da *Bertsolari*. BECen azkeneko Bertsolari Txapelketa Nagusian hartutako irudiak jasotzen ditu. Euskalduna ez denari bertsolaritza zer den azaltzen dio Altunak, hiztegiko definizio zurrunez haratago.

Asier Altuna eta Aitor Alberdi, 2009ko txapelketan. | ARANTZAZU EZKIBEL

Lujanbio eta Egaña

Euskaraz filmatu du Altunak eta Maialen Lujanbio azken txapeldun nagusia eta Andoni Egaña dira protagonistetako batzuk.

'Aupa Etxebeste' 2005ean

Asier Altunaren *Aupa Etxebeste* filma ere Zinemaldian aurkeztu zuten 2005ean. Gazteen saria irabazi zuen, gainera.

Bertsolari Txintxua Films-en produkzioa da eta Golem-ek banatuko du zinema areto komertzialetan. Urriaren 14tik aurrera ikusi ahal izango da.

Trapu Zaharrak taldeak 'Jira eta bira' lana eskainiko du Oñatin domekan, 19:00etan

A.E. | OÑATI

Kalean! egitaraua amaitzeko eta borobiltzeko, Trapu Zaharrak antzerki taldeak Oñatin jardungo du domekan. Kale antzerkia eskainiko dute; hain zuzen, *Jira eta Bira* antzezlana.

Hiru aktore ariko dira

2036. urtera egingo dute salto Trapu Zaharrak antzerki taldeko kideek. Hiru pertsonaia arituko dira Oñatiko kaleetan: Javi Barandiaran, Mikel Laskurain eta Iraitz Lizarraga. Hiru merkatariren paperean sartuko dira, gasturik egiteko gogorik ez dagoen mundu batean.

Administrazioak merkatari baliogabeak errekuperatzeko sortu dituen topalekuen gainean jardungo du antzezlanak. Umorea izango da nagusi, Trapu Zaharrak taldekoen artean ohikoa den umorea, hain zuzen. 25 urte darama taldeak antzerkia egiten.

Virginia Imazen Oihulari Clown taldeak 'Divinas' lana eskainiko du Torresoroan gaur, egubakoitza

Anelkarrekin elkarlanean antolatuta, Kongoko Kapiri herriaren aldeko ikuskizuna eskainiko du Oihulari Clown taldeak gaur Antzuolako Torresoroa aretoan, 22:30ean. Virginia Imaz *clown*-a ere Torresoroan izango da, *Divinas* antzezlana aurkezten. Sarrerak aurrez jarriko dituzte salgai 8 eurotan Itzar liburu-dendan. Anelkarrek egun osoko jaia antolatu du. Batzen den diruarekin Bittor Arbuluk Kapiri herrira ura eroango du eta bost iturri jarriko ditu. 30.000 euro behar dituzte horretarako.

Amaia Lizarantzu | Antzezlea

"Zuk sortu duzun zerbaitekin ikusleak ondo pasatzea gauza handia da"

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Oholtza gainean sentitzen duen hori kontatzeko hitzak falta zaizkio Amaia Lizarantzuri (Arrasate, 1985). Antzerkia ikasi eta *Anaki* obra multimediarekin dabil gaur egun antzokietan.

Lanbide gogorra aukeratu duzula esango dute askok.

Orain *Anaki* lanarekin nabil, eta, oraingoz, nire asmo bakarra horrekin jarraitzea da, benetan gustura nabil-eta. Gorputzak eutsi artean jarraitzeko asmoa daukat. Momentu baten lan barik eta ezer aurkitu ezinda banabil, beste zerbaitetara dedikatuko naiz.

Zein da zure motibazio nagusia?

Gauzak kontatzea eta transmititu ahal izatea da nire nahia. Zuk sortu duzun zerbaitekin publikoak ondo pasatzea gauza handia da. Oraingoz, ez dut nire kabuz askorik sortzeko aukerarik izan, baina uste dut hori izango dela.

Oholtza gaineko une hori hain da berezia?

Berezia da unea bera; izan ere, aurretik, adibidez, oso txarto pasatzen dut. Irten aurreko momentu horrengatik izango balitz, atera ere ez nintzateke egingo. Jolas momentua da niretzat.

Txikitan igartzen ei zaizue aktoreei sena.

Ganbaran badaukagu oraindik ere mozorroz betetako kutxa handi bat eta horrekin jolasten ginen ahizpa eta biok, eta lagunak. Etxera etortzen ziren guztiekin mozorrotzen ginen eta ezpainetako margoa hartuta aurpegia eta gorputza margotu eta horrela ibiltzen ginen. Pailazo samarra izan naiz beti.

Etxean ez zitzaizkizun harrituko, hortaz, aktore izan gura zenuela esatean?

Beti izan dut etxekoen babesa. Hala ere, beste zerbait ere ikasi nuen, Gorputz eta Kirol Ekintzen Sustapena (TAFYD). Hasieran, Bilbora ikastera joan nintzenean, goizez amateur moduan ibiltzen nintzen antzerkian eta gero ikasi egiten nuen.

Sinesgaitza izanik ere, antzezleak lotsatiak ei zarete.

Hala naiz ni ere. Elkarrizketa honek ere ematen dit lotsa. Agertokian pertsonaia zara, beste bat, eta ezberdina da. Agian, betiko erantzuna da hori...

Ezaguna bazara egunen baten, beraz, komeriak!

Planteatuta ere ez daukat hori. Pentsatzen dut prozesu bat izango dela. Okerren, baina, nire ahizpak pasatuko du, bikiak gara-eta, eta hura agurtuko dute! Ezaguna izatea, baina, ez da nik nahi dudan gauza bat.

***Anaki* haurrentzako lana izanda, ondo moldatzen zara txikienekin?**

Oso ondo, gardenak dira-eta umeak, eta berehala ikusten da zerk funtzionatzen duen eta zerk ez. Gainera, datozen hilabeteetarako saio ugari irten zaizkigu eta oso pozik gaude. Ea gaztelerazko bertsioa ere egin dezakegun.

Bestela, askotan joaten zara antzerkia ikustera?

Ahal bezain beste bai; izan ere, obra bat ikusten, interpretatzen bezain beste disfrutatzen dut. Ikusten, hori bai, askoz ere gutxiago sufritzen dut.

Ze lanek gozarazi dizu gehien azkenaldian?

Luis Merlo *Tócala otra vez Sam* obran, Donostia ikusi nuen orain dela gutxi. Oso lan ona iruditu zitzaidan.

Drama bat gustura hartuko zenuke?

Oso. Baina baita komedia ero bat ere. *Anaki*-rekin batera beste obra bat aldi berean egin ahal izatea perfektua izango litzateke.

***Casting*-ek gogor fama daukate. Hala da?**

Nik egin ditudanetan, behintzat, ondo portatu dira nirekin. Asko mugitu beharra dagoen mundua da eta niri, tamalez, asko kostatzen zait. *Casting* guztiak dira beldurgarriak niretzat, baina, era berean, beti izan dira atseginak. *Casting*-a egiten dizutenak ere aktoreak dira eta badakite zer den hor egotea.

Egingo zenuke proba Euskal Herritik kanpo?

Niri hemen lan egitea gustatuko litzaidake, bertako istorioak kontatzea. Ez dago nire planen barruan, baina batek daki bihar Madrilen, Frantzian edo Argentinan egongo naizen.

MARRA AZKARREZ

Abesti bat: Mikel Markezen *Zure begiek*.

Filmak: *Precious*, *Amélie* eta *Mi vida sin mí*.

Bidaia bat: Santiago bidea.

Urte sasoi bat: Udaberria.

Jantzi bat: Zapia.

Telesail bat: *Aída*.

Youtubeko bideo bat: *El circo de la mariposa*.

Zure plater izarra: Porru pastela.

Ez naiz etxetik ateratzen...: Ispiluari begiratu barik.

Amaia Lizarantzu, Goiena telebistako platoan.

JON BEREZIBAR

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. 72 metro koadroko etxebizitza salgai Bergarako erdigunean. Bi logela eta komun bat. Berokuntza eta gasarekin. Interesatuok deitu telefono zenbaki hauetara: 606 65 58 08 edo 660 04 25 25

103. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Bi logeladun etxebizitza ematen da errentan. Igogailuarekin. Interestauok deitu telefono zenbaki hauetara:645 00 89 97 edo 645 70 80 26

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzat, Arrasate pasealekuko 11.ean. Lau logela. Dena kanpokaldera begira. Berokuntza. Deitu 943 78 01 45 telefono zenbakira.

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik gertu. Ikasleentzat. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Interesatuok deitu650 02 79 27 edo 943 79 99 63 telefono zenbakietara.

Arrasate. Hilean 600 eurogatik guztiz jantzitako apartamentua ematen da errentan Bizkaia etorbideko 2an. Pertsona bat edo birendako egokia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara:636 68 28 26

Oñati. Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Oñatin. Berokuntzarekin. Komuna berriztu berri. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635 74 29 33

104. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Bikote arduratsua gara eta Aretxabaletan denboraldi luzez errentan hartzeko pisu bila gabiltza. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 83 35 61

Bergara. Etxebizitza hartu nahiko nuke errentan Bergaran. 2 edo 3 logelakoa eta kontratuarekin. Presazkoa da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 697 62 59 57

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Etxebizitza osatzeko jende bila gabiltza Arrasaten. Hiru logela, sukalde hornitua, egongela handia, komuna, balkoia, igogailua eta berokuntza zentrala. 260 euro hilean, gastuak barne. Unibertsitate ondoan dago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 620 52 94 98

Arrasate. Hiru pertsona behar dira pisua osatzeko Arrasaten. Lau logela, komuna eta sukalde-egongela. Herriko plazan bertan eta merkea. 17:30etatik aurrera deitu.658 74 48 24

Arrasate. Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko Arrasaten. Langileak bizi dira. Pisuak lau logela eta bi bainugela ditu eta oso eguzkitsua da. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara:653 71 44 57

Bergara. Pertsona bat behar da etxea osatzeko Bergaran. Hilean 240 euro gastuak barne. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 670 85 86 68

Oñati. Etxebizitza konpartitzeko pertsona bila nabil, Oñatiko erdigunean (Kale Barrixan). 225 eruro gehi gastuak (argia eta ura). Etxea guztiz jantzia eta hornitua. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 652 71 52 50

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara.. Emakume euskalduna behar da 3 urteko umea zaintzeko. Abuztuaren 29tik aurrera, goizez. Deitu 669 14 55 00 telefonora.

ARRASATE
Esperientziadun altzari saltzailea behar da.
943 77 13 52

BERGARA
Frontoiko tabernan esperientziadun zerbitzaria behar da.
Itxura onekoa.
943 76 41 90
Fernando.

402. ESKAERAK

Arrasate. Hemengo neska umeak zaintzeko, etxeko lanak edo edozein lanerako prest. Orduka ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 659 55 27 16

Arrasate edo Bergara. Bertako neska, eskarmentuduna, nagusiak zaintzeko gertu Arrasate edo Bergaran. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 18 07 23

Arrasate. Neska errumaniarra, arduratsua eta eskarmentuduna, orduka etxe zein atariak garbitzeko edo plantxa egiteko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara:634 80 49 91

Arrasate. Neska gertu ume edo nagusiak zaintzeko. Eskarmentuduna. Ordutegi malgua.Deitu 618 00 08 28 edo 943 79 82 43 telefono zenbakietara.

Bergara. Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 665 75 41 32

Debagoiena. Arrasateko neska euskalduna ikastolan hezitzaile lanetan aritzen dena, irailetik aurrera arratsaldez umeak eta nagusiak zaintzeko prest. Agurne. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 646 12 31 59

Debagoiena. Emakume euskalduna garbiketa lanerako edo tabernan sukaldean laguntzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 616 68 02 18

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 688 64 77 97

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest Debagoienean. Orduka zein etxean bizitzen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 666 69 26 07

Debagoiena. Emakumea prest garbiketa lanetarako eta umeak zein nagusiak zaintzeko. Orduka edo etxean bizitzeko gertu. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 646 28 55 02

Debagoiena. Neska euskalduna garbiketa lanak egin zein nagusiak zaintzeko gertu. Eskarmentuduna eta informeekin. Interesatua egonez gero deitu telefono zenbaki honetara: 671 35 22 60

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

